

ASTELEHENKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2010-12-20
ASTELEHENA
303. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



Lord Witch, Xarma eta Desprezio Danbakako finalean

Metala, rocka eta punka garaile Danbakako aurtengo edizioan | 29

Elgetarrek arrain freskoa herrian erosteko aukera dute berriro | 11



Bergarako Errekaldeko lorategia: XIX. mende bukaerako altxorra | 16



Iragana gaurkotasun

Mondragon ala Arrasate? Erantzuna Dokeren 'Iragana Iragan' antzezlanak eman du | 32

JULIO CALLEJA

Gipuzkoako gaztelu garrantzitsuena Eskoriatzan dago: Atxorrotzekoa

Erdi Aroko gaztelu batean sekula aurkitu ez diren Erromatar garaiko elementuak aurkitu dituzte Atxorrotzen. Bertan 16 lagun biziko zirela uste dute. Aurkitutako aztarnak ikusgai egongo dira urtarrilaren 14ra arte, Iba-raundi Museoa. | 2

Elgetatik sartu eta Leintz Gatzagatik irtengo da 2011n Korrika 17 | 4



Olentzero & CO! Musikaleko DVDa salgai

DVDaren prezioa: 13 €

Goiena Klubeko kideentzat prezio berezia:

10 €

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Erosi eta zure etxeko buzoian jasoko duzu Goiena klubeko kide bazara.

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 |
IRITZIA 7 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA
22 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 |
TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 |
JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

Gipuzkoako gaztelu garrantzitsuenak, Atxorrotzekoa

- ▶ Indusketen ondoren atera dute ondorio hori
- ▶ V. mendeko zeramika zatiak agertu dira
- ▶ Gazteluan 16 bat lagun biziko zirela uste dute

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Atxorrotz "sorpresa kutxa bat" dela dio Eskoriatzako ingurune estimatu horretan indusketa arkeologikoen lanak egiten dabilen Iñaki Sagredo: "Izugarrizko balioa du; indusketak egiten ditugun bakoitzean operari bat dago".

Atxorrotzeko historia argitzeko lanean dabilta joan den urtea ezker Nafarroako Larrate lantaldekoak. Maiatzean egindako esku-hartze arkeologikoen harira, Iñaki Sagredo eta Nahia Senper izan ziren joan den eguean Eskoriatzako Ibarraundi museoan, horien garapena eta emaitzak herritarrei helarazteko.

Erromatar garaikoa ote?

Emaitzak oso onak direla jakinarazi digu Sagredo. Horren harira, aipatu du berretsi egin direla gazteluaren okupazio

faseak. Behin betiko emaitzak jaso barik badaude ere, egindako zundaketek argitu dute XII. mendean gaztelua okupatuta zegoela. Sagredoren esanetan: "Erdi Aroko eta Erromatar Berantiar garaiko zeramika zatiak topatu ditugu. Erdi Aroko gaztelu batean ez dira beste inoiz topatu Erromatar garaiko elementuak; lehenengo aldia da. V. mende ingurukoak izan daitezke zati horiek, baina oraindik hori guztia aztertu egin behar da eta zuhurrak izan behar dugu. Ezin dugu esan Erromatar garaiko gaztelu bat denik, garai hartako arma edo txanponik ez dugu topatu-eta".

Argi geratu dena da Nafarroako Erreinuako gaztelu inportanteenaren artean izan zela. Sagredoren arabera, Leintz bailarak Gipuzkoako gaztelu garrantzitsuenak dira. Horren harira, azaldu du Euskal Herriaren eta, hortaz,

Nafarroaren historian Atxorrotz defentsa puntu garrantzitsua izan zela. Gaineratu du Euskal Herrian zehar bestelako gazteluak badaude ere (Trebiñu, Portilla, Untzuet eta Ereñokoa), beste inon agertu ez den materiala topatu izan dela Eskoriatzan.

Aljibe "perfektua"

Horren harira, aljibea (ura batzeko erabiltzen zuten putzua) nabarmendu nahi izan du. Sagredoren esanetan, "oso ederra da hori. Pazientzia handiko argia ibili zen han lanean, eta detaileetan ere pentsatu zuen, beheko izkinak borobildu zituen-eta zikinkeriarik ez sartzeko. Euskal Herriko zehar topatu ditugun gainerako aljibeak galduta edo hondatuta zeuden. Hemengoak perfektua da; gazteluaren hondarrak bisitatzerako joaten direnei erakusteko modukoa". Horren harira, azaldu du egurrez-



Indusketen bigarren fasea apirila eta maiatza bitartean egin zuten. Argazkian, bisitariak

ko hoditerien bidez teilatuetatik 20.000 litro ur jasotzeko aukera zuela aljibeak, eta gazteluaren bizi iraupena horren menpe zegoela; setio militar bat jasanez gero, ura izatea ezinbestekoa zelako.

Historialariak putzu horretatik ateratako materiala asko izan dela ere azpimarratu nahi izan du: "Material asko irten da handik. Esaterako, oso politak diren urre koloreko bitxiak topatu ditugu eta baita 1180. urte inguruko

txanpon bat ere, aljibeko zorura itsatsita. Nafarroako Santxo Jakintunaren txanpon bat da hori. Horrek esan nahi du aljibea garai hartan egin zela edo zaharberitu zela".

Horretaz gainera, Sagredo nabarmendu du kare-morteroari esker gaur arte mantendu den Erdi Aroko egurrezko lurzorua topatu dutela. Historialariaren arabera: "Egurrezko plaka bat atera dugu orain arte, baina

Erakusketa urtarrilaren 14ra arte

Atxorrotzen aurkitutako aztarnak ikusgai egongo dira datozen asteotan Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Aurkitutako eta zaharberitutako metalezko piezaz, zeramika zatiz eta margotutako hezurrez eta zorrotzarriz osatuta dago, besteak beste, erakusketa. Urtarrilaren 14ra arte egongo da zabalik honako ordutegian: 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

IÑAKI SAGREDO | HISTORIALARIA

"Asmoa da Gipuzkoa mailan gazteluen gaineko lehen museoa egitea Atxorrotzen"

Aurtengo apiriletik maiatzera bitartean egon ziren bigarren Larrate enpresakoak Atxorrotzen indusketa arkeologikoa egiten. Lanak hilabete inguru luzatu zirela eta ingurunean oraindik asko dagoela egiteko azaldu digu Iñaki Sagredo.

Maiatzetik hona zer egin duzue Atxorrotzen aurkitutako materialarekin?

Tokian bertan egindako lanaren ondorekin, han topatutakoak sakon aztertu eta materiala zaharberitu egin behar izan da. Diputazioak biltegi bat du horretarako.

Nola joan zen bigarren esku-hartzea?

Oso ondo. 2009an eraikinaren harresiaren inguruan egin genuen lan 20 metro koadroko

azaleran, eta aurrean, hori metro bat inguru zabal-tzeaz gain, beste zenbait puntu ere aztertu ditugu. Besteak beste, gazteluaren aljibearen (ura biltzeko erabiltzen zuten putzua) inguruan ibili gara. Azken horren harira, lehen fasean aljibearen hormak landuta zeudela igarri genuen; aljibe osoa atera dugu oraingoan.

Horretaz gain, sarrerako haitzetan dagoen irtengune baten egin dugu lan. Zaintza postua zela iruditzen zitzaigun, eta horrela izan zela esan dezakegu. Gainera, gaztelutik 100 metro ingurura dagoen haitzean ere indusketak egin ditugu. Bere garaian, ingurune hori gazteluaren defentsarako erabili zela eta, hortaz, hondakinak



Iñaki Sagredo, eguean. | ARGAZKILARIAXXX

azalduko zirela uste genuen. Bete-betean asmatu dugu. Besteak beste, zeramika eta iltzeak topatu ditugu; azken horiek erakusten dute han egurrezko eraikinak egon zirela. Oso garrantzitsua da indusketa horietan topatu duguna.

Dagoeneko bitan egin zarete han; baina oraindik lan asko dago han egiteko, ezta?

Bai, hala da. Ez dakigu zenbat egongo garen, baina lan handia dago oraindik han. Hasierako asmoa da bost fasetan egitea. Datorren urtean,

hirugarrenarekin lehenengo hasteko asmoa dugu; martxo aldean, hain justu. Hilabetetik gora eman nahi dugu lan lanean, aztertzeko azalera handitu egin nahi dugu-eta. Dena dela, eguraldiak izango du azken hitza.

Eta Atxorrotzeko indusketekin amaitu ondoren, zer?

Asmoa da Gipuzkoa mailan gazteluen gaineko lehen museoa egitea Atxorrotzen bertan. Baina, horretarako, indusketetan irteten diren elementu guztiak kontsolidatu egin behar dira lehenengo. Gipuzkoan eta baita beste hainbat tokitan ere, behin baino gehiagotan gertatu da indusketak egin direla eta gero, ateratzen den materiala galdu egin dela. Hortaz, hori kontsolidatu eta etorkizunari begira Atxorrotzen parke historikoa egin nahi da; baita parke natural bat ere.

Zenbat lagun ibili zarete indusketetan?

Lehenengo esku-hartzean hiru lagun izan ginen; bigarrenean, bost; eta hurrengoan, kopuru horrek nabarmen egingo du gora. Aztertu beharreko azalera handitzen doan heinean, langile gehiago beharko dira; 15 lagun inguru egongo gara aurreikusitako dugu.



indusketei begira. | IÑAKI SAGREDO

gaineko dokumentazioa kontuan izanda, Sagredok esan digu Atxorrotzeko gazteluak 15 soldadu inguru eta arduraduna izango zituela.

Hezurrekin egindako dadoak

Ingurunea kontrolatzeaz ardura-tuko zirela uste du Sagredok; artzainak kontrolatzea eta gaztelua guardian izatea. Horren harira, gogorarazi du Arabako lautada eta kostaldea elkartzen zituen bide garrantzitsua pasatzen zela handik, eta haien ardura izango litzatekeela bide horretatik pasatzen ziren merkantziak kontrolatzea.

Soldaduen bizimoduaren hainbat datu ere eskaini digu; esaterako, aspertzen zirenean, hezurrekin egindako dadoekin pasatzen zutela denbora. Historialariaren esanetan: "Dadoak egiteko moldatuta zegoen hezur bat topatu dugu; lau aurpegi zituen eta moztea bakarrik falta zen, dadoak lortzeko. Topatu diren bitxiak ere aditzera ematen dute garai hartako gizonak ere zaindu egiten zirela".

Kultura-ondasun

Sagredok dio orain arte Atxorrotzeko gazteluaz gera daitekeenaren %15 baino ez dela aztertu eta orain lan asko dagoela egiteko. Dena dela, inork ez du zalantzan jartzen horren garrantzia, eta ingurunea babesteko, Jaurilaritzan kultura-ondasun izendatzeko dokumentazioa aurkeztu dutela esan digu, azkenik, historialariak.

Orain arte topatu dituzten elementu esanguratsuenak

URRE KOLOREKO BITXIAK

- ▶ Atxorrotzen egindako bigarren esku-hartzean bitxi ederrak topatu dituzte gazteluaren aljibeetan.
- ▶ Erdi Arokoak dira guztiak.
- ▶ Kobrezkoak dira eta urre kolorea dute; ziurrenik, urre-xafla botako zieten gaintetik, distiratsua izateko.
- ▶ Gizonezkoenak; gazteluko arduradunak gerrikoaren belarri (hebilla) moduan erabili zituela uste dute adituek.
- ▶ Bitxi baten, hegazti baten irudia dago marraztuta. Santxo Jakitunaren ikurra arrano beltza zen, eta, Sagredoren ustez, bitxi horretako irudiak lortura izan dezake horrekin.



Nafarroako eta Gaztelako erreinuen eskuetan egon zela.

ARMA ZATIAK

- ▶ Askotariko armak azaldu dira Atxorrotz inguruan.
- ▶ XII eta XIII. mende artekoak dira gehienak. Iñaki Sagredo historialariaren esanetan, arinenak (balezta puntak, ziurrenik) XII. mendekoak izango lirakeke.
- ▶ 50 balezta puntatik gora atera dituzte indusketen bigarren fasean; horretaz gain, hiru lantza punta eta ezpata motz bat ere azaldu dira.



EGURREZKO ZORUA

- ▶ Erdi Arokoa da.
- ▶ Bost zentimetroko lodiera duen 40X40 zentimetro inguruko xafla bat da bigarren indusketetan atera dena. Dena dela, datozen esku-hartzeetan guztia lortzea espero dute.
- ▶ Etxebizitza baten zorua izan zitekeela uste dute.
- ▶ Horren azpian ikatza edo su-hondarrak agertu dira. Toki horretan etxe baten sutondoa zegoela interpreta daiteke, edo, agian, gazteluan suteren bat egon zela.

SANTXO JAKITUNAREN TXANPONA

- ▶ Erdi Aroko askotariko 20 txanpon agertu dira.
- ▶ Horietako hiruzpalau XII. mendeko Nafarroako Erdi Arokoak dira; Santxo Jakitunaren garaiokak, hain justu ere.
- ▶ Atxorrotzen aurkitutako gainerako txanpon guztiak Gaztelako Erreinuaren garaiokak dira: XIII, XIV eta XV. mendeetakoak topatu dira.
- ▶ Bi garaiotako txanponak topatzeak erakusten du ingurune hori



ZERAMIKA ZATIAK

- ▶ Erromatar Berantiar garaiko eta Erdi Aroko zeramika zatiak agertu dira azken esku-hartzean; lehenengoan, Erdi Arokoak bakarrik azaldu ziren.
- ▶ Ehunka zati irten dira.
- ▶ Erdi Arokoak XV. mendekoak izan daitezkeela uste da eta Erromatar Berantiar garaioak, oster, V. mendekoak.
- ▶ Sukaldean erabilitako tresnen



ERROTARRIA

- ▶ Oso ondo landutako errotarri bat topatu zuten indusketen lehen fasean.
- ▶ Erdi Arokoa da, XIV. mendekoa.
- ▶ Gauzak zorrotzeko balio zuen; garai hartan, ziurrenik, armak zorrotzeko.

HEZURRAK

- ▶ Lehen zein bigarren fasean, fauna aztarna asko agertu dira; tartean, jatekoen hezur asko aurkitu ditu Iñaki Sagredoren lantaldeak.

gehiago dago oraindik atera barik. Datozen esku-hartzeetan guztia atera eta etxebizitza baten zorua ote zen aztertuko dugu".

Indusketetatik ateratakoa eta Erdi Aroko bestelako gazteluen

GABON

ZURE HAUETAN

EROSKETAK GASTEIZEN

PARKINGETAN EGONALDIAK DOHAINIK

EROSKETETAN KALEKO GIROA

ZINEMA, PARKING, IZOTZ PISTA, PUZGARRIAK EROSTEN DUZUN BAKOITZEAN

INFORMAZIO PUNTUA ETA GORDELEKUA ARCA KALEAN

ADEITASUNEZKO EURITAKOAK

DIBERTSIOA GUZTIONTZAT!

WWW.GASTEIZON.COM/BICIXMAS
WWW.FACEBOOK.COM/CLUBGASTEIZON
BABESLEA:



2009 urtean egin zuten Korrika 16, Oñati zeharkatzen. | ARTXIBOA

Elgetatik sartu eta Leintz Gatzagatik aterako da Korrika 17 guretik, datorren apirilaren 14an

Urtarrilean hasiko dira herri batzordeak sortzen eta kilometroak saltzen

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Debagoieneko herri guztietatik pasako da Korrika 17, egun berean gainera, apirilaren 14an. Elorriotik Elgetara etorriko da eta bailarako herri guztiak antxintxika zeharkatu ostean, Leintz Gatzagara helduko da 14:00ak aldera. Araban sartuko da gero eta Gasteizerako bidea hartuko du. Guz-

tira zortzi ordu inguru egingo ditu gure bailaran eta 71 kilometro ofizial zapalduko ditu.

400 euro kilometroa

AEKko Gipuzkoako arduradun Oskar Elizbururen esanetan, datorren urtarrilean hasiko dira herri batzordeak osatzen. "Gipuzkoako Korrika arduradunen bile-

ra urtarrilean izango da, eta horren ostean hasiko gara herri batzordeak sortzen. Kilometroak saltzen ere orduan hasiko gara. 400 euro balio du bakoitzak eta erosteko bideak betikoak dira: AEKko euskaltegia deitu edo herri batzordeak egiten direnean arduradunari esatea", zehaztu du Elizburuk. "Batzorde horietan

erabakiko da herri bakoitzean zer eta nola egin, eta noski, laguntzaileak edozertarako onartuko ditugu: kartelak jartzeko, Korrika laguntzaileak egiteko..." jarraitu du Oskar Elizburuk.

Hain justu, Korrika laguntzaile kanpaina martxan da dagoeneko eta materiala ere salgai dago AEKko euskaltegietan. Mate-

NON ETA NOIZ

IBILBIDEA

06:00 2011ko apirilaren 14an sartuko da Korrika 17 Debagoienara. Elgetatik sartuko da (Elorriotik dator) 06:00etan. Gero pasako da: Angiozar, Bergara, Antzuola eta Deskargatik.

08:00 Deskarga. Gero: Udana, Oñati, Arrasate, Aramaio, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagatik.

14:00 Leintz Gatzaga. Handik Arabara joango da.

rialaren lehenengo multzoa da, "oso arropa erakargarria", Elizbururen esanetan. Santamas egunean, gainera, postu bat jarriko dute Arrasateko plazan, talogileen ondoan.

'Euskalakari'

Maitatu, ikasi, ari ... euskalakari lelopean abiatuko da Korrika 17 Trebiñutik 2011ko apirilaren 7an, eta Donostian bukatuko da apirilaren 17an, bi mila kilometrotik gora egin ostean. Aurten Euskaltzaindia omenduko du. "Bada garaia bere lana herri mugimenduak onartzeko", Edurne Brouarden esanetan.

Gehiegizko loditasuna duten 29 gaixo hilero, ospitalean

UBANE MADERA | ARRASATE

Joan den otsailean abiarazi zuten Loditasun Klinika Debagoieneko ospitalean, eta harrezkero, hilero 29 gaixo hartzen dituzte eta 150 kontsulta inguru egin dituzte, ume eta nerabeak tratatzen.

Loditasuna, ohikoena

Datuak deigarriak dira, hala ere, kontuan hartu beharra dago loditasuna dela "elikadura gaixotasun ohikoena ume eta nerabeen artean

herrialde garatuetan, eta etorkizunera begira gaixotasun kroniko eta bizi-kalitate urria izan ditzake ondorioztat", Osakidetza-aren esanetan. Horrexegatik erabaki zuten Arrasaten "elikadura arazoa paira dezakeen Debagoieneko haur populazioari arreta emateko" klinika sortzea.

Emaitza baikor eta positiboak

Lau adituk osatzen dute Loditasun Klinikako talde profesionala:

Jimenez-Villarreal doktoreak, Lissete Delgadok (haur gastroenteroelogoia), Cristina Letamendik (erizaina) eta Laura Alutizek (dietista). Pozik daude otsailetik hona lortu dituzten emaitzekin.

Gantza murriztea lortu dute

Izan ere, "gorputz-masa indizea eta gantz portzentajea murriztea lortu dute", Debagoieneko ospitaleko prentsa arduradunen esanetan.

Asimilazio prozesua behar da

"Gure profesionalak argi daukate emaitzak ez direla berehala lortzen, eta elikadura kontzientzia aldaketek eta jokaera moldaketek asimilazio prozesu oso bat jarraitzen dutela. Horregatik, emaitza positiboak lortzeko helburuarekin, kontrol zurrun bat daramate, elikadura osasuntsuari buruzko aholkuetan sakontzen dute eta familiariekin kontrol estua mantentzen dute, gaixoen desertzioak ekiditeko asmoz", gaineratu dute.

Iñaki Galdos oñatiarra Donostiako alkategai izan daiteke

Iñaki Galdos oñatiarra izan daiteke H1! alderdiaren alkategaia Donostiako Udalarako. Astelehenean, gaur beraz, hartuko dute erabaki ofiziala Donostiako H1!ek egingo duen batzarrean. Afiliatu batzuk proposatu dute, justu, alderdiko burua Donostiako alkate izateko. Gaur egun zinegotzi bakarra dauka H1!ek Donostian.

Mondragon Team Akademy, ekintzaile gazteen habia

Joan den egunean LEINN graduiko ikasleek euren proiektu berritzaileen berri eman zioten elkarri

LANDER MUÑAGORRI | BERGARA

Oñatiko Mondragon Team Akademy Enpresaritzako Fakultateak ikasturte honetan LEINN gradu berriari ekin dio, Bidasoako campusean iaz izan zuen harrera ona dela-eta. Ekintzaile eta berrikuntza lantzen dute bertan ikasleek, baina era ezohikoan. "Eginez ikasten filosofiarri jarraiki, gure ikasleek egiazko enpresa bat sortzen dute, eta hura kudeatu eta

aurrera eramateko gauza izan behar dute", dio Begoña Ugarte irakasleak. Ikasturtea hasi aurretik, gradu horretako ikasleak Finlandiara joaten dira, ekimen horren sorburua han baitago, eta bertako ikasleekin ikuspuntuak partekatzen dituzte.

Era horretan 80 gazte ekintzaile hasi dira lau urteko gradu hori egiten, eta joan den egunean denak elkartu ziren Oñatiko cam-

pusen, eta euren proiektuen berri eman zieten gainontzekoei. *LEINN Explosion* moduan izendatu zuten estreinakoz antolatu dituzten jardunaldiok. "Sortzen dituzten enpresa gehienek zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta horiek gehienetan teknologia berrietan edo sarean oinarritzen dira", zehazten du Ugartek. Gaur egun sei konpainia daude martxan, horietatik lau aurtengo ikasturtean sortutakoak.

Horrekin guztiarekin, gaur egungo gazteengan ekintzaile sena suspertu nahi dute Mondragon Team Akademy Enpresaritzako Fakultatean. Finlandian era horretako graduetan parte hartzen duten ikasleen %30ek euren enpresak sortzen dituzte, eta datu horietara inguratzea da asmoa.



Hainbat ikasle euren esperientzia gainerakoekin partekatzen. | ANDER MONEDERO



Arrasateko alderdi politiko eta alor askotariko eragileak Gabonetako egitaraua aurkezten. | ANDER MONEDERO

Presoen aldeko ekitaldi ugari antolatu dira Gabonetarako

Arrasateko hainbat alderdi politiko eta eragilek aurkeztu zuten udaletxeko osoko bilkuren aretoan

LANDER MUÑAGORRI | BERGARA

Arrasateko zenbait alderdi politiko, sindikatu, musika talde, euskalgintza, kultura eta kirol elkartetako hainbat kidek preso eskubideen defentsan Arrasaten Gabonetan egingo diren hainbat ekimenen berri eman zuten joan den egunean.

Udaletxeko osoko bilkura aretoan aurkeztu zituzten ekitaldiotan, Espainiako eta Frantziako espetxe politika salatu zuten alderdi eta eragile horiek guztiak. "Euskal jendarteak eta nazioarteko hainbat erakundek

hamaika aldiz deitoratu dute krudelkeria oinarri duen espetxe politika hau", zioten prentsaurrekoan. Era horretan, sakabanaketa politika, gaixotasun larriak dituzten presoak aske ez uztea, bizi osoko espetxe zigorrak, kondenaren hiru laurdenak beteta dituzten presoak kartzelan mantentzea eta elkartasunaren kriminalizazioa bukatzea eskatu zuten.

Gabonetako egitaraua

Aipatutako guztia salatzeke, eta elkartasuna helarazteko, Arra-

sateko osoko bilkura aretoan bildutako eragileek antolatu diren hainbat ekitaldien berri eman zuten: lehenengo ekitaldia abenduaren 25ean egingo da, Eguberri egunean. Arrasateko gaztetxean bertso saioa egingo da goizeko ordu batean hasita. Biharamunean, hilaren 26an, Martuteneko kartzelara martxa egingo dute. Urtezahar egunean, abenduaren 31n, 19:30ean urteko azken kontzentrazioa egingo da. Azkenik, urteko lehen kanpaikaden ondoren, goizeko ordu batean brindisa egingo da Seber Altuben.

Horiek Arrasaten antolatu diren ekitaldiak izango dira, baina dei egin zuten urtarrilaren 8an Bilbon *Euskal Presoak Euskal Herrira eskubide guztiekin. Egin dezagun urratsa* lelopean egingo den manifestazio nazionalera joateko.

Appaldeko presidente Felipe Antonio Igartua hil da

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Appalde, Debagoieneko aurre jubilatua, pentsiodun eta alargunen elkarteko presidente Felipe Antonio Igartua oñatiarra hil egin zen joan den egubakoitzean, Oñatin.

Aurre jubilatuen, pentsiodunen eta alargunen eskubideak defendatzen egin du lan azken urteetan Felipe Antonio Igartuak, Appalde elkartearen eskutik. Toledoko Hitzarmena sinatu zutenekin eta dagokion ordezkari politikoarekin bilerak egin ditu Igartuak, beti ere Appalde elkarteak ordezkatzen duen gizartearen zati horren interesak eta tokatzen zaizkion eskubideak defendatzeko. Haren



Felipe Antonio Igartua. | JARTXIBOAK

aldeko hileta elizkizuna zapa-tuan egin zuten Oñatiko Mikel Deunaren parrokian eta jendetzaren egon zen. Goienak ere bat egin du bere sendikoen saminarekin.

20 urteko kartzela zigorra ezarri dio Parisko Epaitegi Berezia Marixol Iparragirre eskoriatzarrari

Parisko Epaitegi Berezia 20 urteko zigorra ezarri dio Marixol Iparragirreri. 2004az geroztik dago Frantziako preso *Anboto* eskoriatzarra, beraz, sei urte kendu beharko dizkiote zigorrari. Behin zigorra beteta, ezin izango da Frantziako geratu. Fiskalak 30 urteko zigorra eskatu zuen Iparragirreren kontra, beraz, espero baino zigor txikiagoa ezarri diote preso eskoriatzarrari. Gaur egun Fresnesko espetxean dago, 2004ko urriaren 4an Ipar Euskal Herrian eta Biarnon atxilotu ostean. Epaiketa berean epaitu dute haren senarra den Mikel Albisu Iriarte, *Antza* gaitzizenaz ezagutzen dena; hari ere 20 urteko kartzela zigorra ezarri diote; eta beste zortzi euskal herritar ere epaitu dituzte.

Gernikako Akordioa sinatu zuten alderdietako ordezkariak euren mezua zabaldu zuten Arrasaten

Eguenetako pintxo-poteoa aprobetxatuz, Gernikako Akordioa sinatu duten alderdi eta eragileetako hainbat ordezkari *Bake bidean aterabide demokratikoen akordioa* herritarrei helarazi zieten. Seber Altuben panel informatibo bat jarri zuten, akordioak biltzen dituen zortzi puntuak adierazten zituen. Panelaren ondoan egon ziren adierazpena banatzen, eta jendearen aldetik harrera ona izan zuen. "Jende askok hartu zizkigun triptikoak, eta, itxuraz, interesatuta. Geneuzkan ia guztiak banatu genituen", adierazi du ekimeneko deitzaileetako batek. Aurrerantzean ere antzeko ekimen informatiboak egingo dituztela adierazi dute Gernikako Akordioa sinatzaileek.

PILDAIN JATETXEA

Udala AUZOA - ARRASATE - 943 79 11 65
ASTEARTETIK IGANDERA ZABALIK!

SANTAMASETAKO MENUAK

- 1) TXARRIBODA
- 2) BABA-JANA
- 3) MENU BEREZIA: 15 €-18 €
 - ENTREMESA
 - KONTSOMEA
 - OKELA / ARRAINA
 - POSTREA
 - EDARIA (URA EDO ARDOA)

ERRESERBAK: 943 79 11 65 / 943 77 18 67



Debagoieneko ezker abertzaleak giza kateak egin ditu asteburuan

Orain legalizazio lelopean Bergaran, Arrasaten, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan giza kateak egin dituzte. Bergaran geldialdia egin zuten Jose Luis Elkororen etxepean testua irakurri eta Monzonen *Batasuna* abestia kantatzeko. Elkororen bera balkoira irteten zen giza katea agurtzera.



ARRITXU BARRUSO

Marian Iriondo | Enpresagintzako irakaslea

"Talde bakoitzak dituen helburuak lortzen lagunduko duena da liderra"

- ▶ Lidergoari buruz berba egin du Marian Iriondok
- ▶ Lider on baten ezaugarriak azaldu ditu

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Oñatiko Enpresagintza Fakultateko irakaslea da Marian Iriondo. Duela sei urte Garapen Pertsonal eta Talde Lidergoan Aditu Programa jarri zuten abian MUn. Iriondo graduondoko arduraduna da. Liderra izatea zer den eta ze ezaugarri behar dituen azaldu digu.

Liderra eta nagusia figura bera dira?

Ez. Nagusia izan daiteke autoritate morala ematen zaionean bati; hau da, kolokatzan da postu baten eta nagusia dela esaten zaio. Liderak, ordea, autoritate morala dauka. Esan dezakegu nagusia izan daitekeela jarraitzailearik gabe; baina liderra dago jarraitzaileak dituelako. Ez dago liderrik jarraitzailearik gabe.

Zer da lider bat?

Liderra izango litzateke kasuan kasukoa. Hau da, talde bakoitzak behar dituen helburuak lortzen lagunduko dioena. Baina talde bakoitzak helburu ezberdinak izan ditzake. Enpresa proiektu bakoitzak ezaugarri jakin batzuk ditu, eta liderra izango litzateke

helburu horiek lortzen lagunduko duen pertsona. Bestalde, beti esaten dut liderrak denon zerbait daukala; hau da, liderrari begiratu eta denok ikusten dugu gustatzen zaigun zerbait.

Lider ona izateko ze ezaugarri bete behar dira?

Orain gutxira arte ikerketa asko egiten ziren ezaugarrien gainean, baina gaur egun nahiko baztertua dago teoria hori. Ez daude beti betetzen diren ezaugarri jakinak.

Hezkuntzan lan eginda ikusi dut ikasgela bateko liderra zenak ezaugarri jakin batzuk zituela; hurrengo urtean, beste talde batekin, oso ezaugarri ezberdinak zituen beste lider bat zegoen; hortaz, esan daiteke ez daudela ezaugarri jakinak. Hala ere, badaude beti ematen diren ezaugarri

"Ez dago liderrik jarraitzaile barik; nagusia jarraitzaile barik izan daiteke"

batzuk: entusiasmoa, ilusioa... emozionalki konektatzen laguntzen duten ezaugarriak dira.

Elkarrizketan oinarritutako lidergoa proposatzen duzue. Zer da zehazki hori?

Denboran atzera joan behar dugu hori ulertzeko. Elkarrizketan oinarritutako lidergoaren sorrera 80ko hamarkadako krisi garaian izan zen. Foku guztiak liderrarengan jarri ziren orduan.

Ikerketak egiten hasi ziren eta konturatu ziren liderrak egiten duenaren atzean (erabakiak hartu, koordinatu, taldea gidatu...) elkarrizketa dagoela. Elkarrizketa ez berba egin zentzuan, baizik eta era zabalago batean.

80ko hamarkadan pil-pilean zegoen lengoaiaren filosofia edo psikologia; batek eskaintzen zuen besteak behar zuena.

Gaur egungo enpresa antolamenduak uzten du elkarrizketan oinarritutako lidergorako lekurik?

Gero eta garbiago dago bertikal-tasunetik horizontaltasunera pasatzen dabilela antolamendua. Aldaketa horretan guk ikusten dugu atentzio berezia behar due-



Marian Iriondo. | GOIENA

la liderrak, gehiago sufritzen duelako. Liderra izan beharko litzateke probokatzailerako bideratzaile horizontaltasunerako bide horretan.

Horizontaltasun horretan nolakoak izan behar du liderra eta gainerakoen arteko harremanak?

"Errespetua, konfiantza eta entzutea dira garrantzitsuak"

Bi berba izugarri gustatzen zaizkigu: errespetua eta konfiantza. Errespetua denok garelako pertsonak. Egia da, gero erabakiak hartu behar dituela liderrak, azken hitza harena da. Baina ez da berdina erabakiak bakarrik hartzea edo besteei entzunda. Izan ere, entzutea oso konpetentzia garrantzitsua da. Taldearen nahiak eta helburuak bideratuko duen pertsona da liderra, eta denen nahiak batzeko gauza denak eta hori azken muturreraino eramaten duenak aurrerapauso handia eman dezake.

Oñatiko Soraluze ostatuak kalitatearen 'Q' ikurra jaso du

Eguaztenean egin zuen diplomaren banaketa Eusko Jaurlaritzak Barakaldoko BEC erakustazokan

A.E. | OÑATI

Kalitate turistikoaren ziurtagiriak duen Q saria eman zioten eguaztenean Oñatiko Soraluze ostaturari. Estela Mager ostatuak arduradunak hartu zuen saria eta oso pozik daudela azaldu zuen. Izan ere, egiten duten lanaren esker ona dela diploma hori adierazi du Magerrek.

Pilar Zorrilla Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo sailburuak, Isabel Muela Turismoko zuzendariak eta Ana Izagirre Basquetour Agentziako zuzendari nagusiak banatu zituzten kalitatearen ziurtagiriak BECen. Guztira, 36 komertzioak jaso zituzten ziurtagiriak.

Bete beharreko baldintzak

Q ikurra jasotzeko programa baten parte hartu behar da, eta

hainbat baldintza bete behar dira. Izan ere, hainbat gestio eta ebaluaketa egin ostean auditoria bat pasa behar izaten da.

"Adibidez, garbitasunari dagokionez dena erregistratuta egon behar du: ze produktu erabiltzen dugun, noiz pasa den garbitzailea, elikagaien iraungitze data, nork garraiatzen dituen... dena erregistratu behar dugu", azaldu du Magerrek. Gaineratu du auditoria oso luze eta gogorra izaten dela; baina, hala ere, emaitza onak aurrera begira gogor lan egiteko balioko duela.

Debagoieneko 'Q' ikurra

Gaur egun hiru turismo-estabimenduk dute Q ikurra Debagoieneko: Oñatiko Turismo Bulegoak, Etxe-Aundi jatetxeak eta Soraluze ostatuak.

Adrian Zelaia, Europako aholku batzordeko delegatu

EKAI Centerko presidente exekutiboa izan da azken urtean Adrian Zelaia bilbotarra

A.E. | ARRASATE

Adrian Zelaia, EKAI Centerko lehendakari exekutiboa, Industria Eraldaketarako Aholku Batzordeko delegatu izendatu dute hurrengo bost urteetarako. Batzorde hori Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen Industria Politikarako organoa da.

Industria aldaketaren aurrean Europako Batasunaren ekimenak izan behar dituen koordinazioa eta koherentzia sustatzen ditu CCMik, handitutako EBren testuinguruan. Bestalde, sozialki onargarria den aldaketaren beharra eta EBko industriaren oinarri lehiakorra mantentzearen arteko oreka ere ziurtatuko du Europa mailan jardungo duen batzordeak.

Kargu berri horrekin urtean sei bider, behintzat, bidaiatu

beharko du Adrian Zelaia Bruselara. Han, bileretan parte hartu beharko du.

Bilbotarra da Zelaia

Adrian Zelaia bilbotarra da eta urtebete darama EKAIko presidente exekutibo moduan. Aurrez, urte mordoan izan da EKAIko presidentea zuzendaritza batzordean.

Kargu berria hartu arren, Zelaia EKAIko presidente exekutibo karguan jarraituko du. "Batzorde honen jatorria ikatz eta altzairuaren batzordean dago. 2002an desegin egin zen batzorde hori, eta beste batzar berri hau sortu. Txostenak egin eta aztertzen ditugu, eta Europar Batasunean aurkeztu. Gero, ahal denean lege bihurtzen dituzte", azaldu du Zelaia kargu berriaren gainean.

Zortzi milioi eta erdiko aurrekontua onartu dute

A.E. | BERGARA

Debagoieneko Mankomunitateak 2011ko aurrekontua onartu du. 8.506.372,38 euroko aurrekontua da datorren urtean esku artean izango dutena.

Mankomunitateak aurreikusitako KPI igoko du gastu orokorretarako: %2,5.

Sailtan bereiztuta, zerbitsu orokorretarako 1.145.349,38 euro izango dituzte, iaz baino %4,25 puntu gutxiago.

Kiroletan ez dute igeriketa egokituko zerbitzurik eskainiko datorren ikasturtean. Turismoan, bestalde, aurrekontuaren erdia pertsonal gastuetarako izango da eta beste erdia Mundumira jaialdirako. 76.600 euro izango da Mundumirako aurrekontua.

ZABALIK



TXIPI ORMAETXEA
'http://goiena.net/iritzia/'

Gazteei pare bat aholku

Seguruenik izenburu desegokiena aukeratu dut gazteak idazki hau irakurtzera jar daitezten. Postura egingo nuke hau irakurriko duten apurretatik gehienak 50 urtetik gorakoak izan baietz.

Dibortziatu berri naiz, eta duela egun batzuk abokatuaren ordainsariak pagatu ditut. 1.200 eurotik gora. Lau paper egiteko ez da mozkin makala (eta lan itzel horietako bat izan zen nire emazte ohiari gutun bat idaztea, zeinetan esaten zitzaion ea prest zegoen paperak egiteko gastuak erdibana; erantzuna baiezkoa, baina dena nik ordaintzekotan. Egia esan, eta orain artekoak kontuan hartuta eta ezagututa, ez ninduen larregi harritu erantzun horrek). Ordaintzerakoan, idazkariari esan nion astero dibortziazten ez naizenez jakin nahi nuela ea prokuradoreari ere zerbait ordaindu behar nion, eta baietz (fakturaren zain nago; hain izen zatarreko ofizioa izateko oso emakume jatorra iruditu zitzaidan, baina auskalo zenbat digiturkin osatuko duen kontua). Badaezpada bigarren galdera egin nion: "Kobratu behar duen besterik bada?". Eta "Ez!", berak harridura erakutsiz, aurrean Santagedatik ihes egindako bat balu bezala. Eskerrak, bakarrrik abokatuak eta prokuradoreak kobratzen dute!

"Ez ezkondu, eta ikasi gogokoen duzuen, baina ikasi!"

Ondo pentsatuta, ez dakit zertan ibili nintzen Deustuko Unibertsitatean Filologia Erromanikoa ikasten, Zuzenbidea ikasteko aukera izanda (gainera, hola Xabier Arzallus bera izango nuen irakasle, artean han zebilen eta). Baina ez dezadan negarrik egin, fribolitate handia baita soldata duina duen batek negar egitea jakinik krisi garai hauetan jende mordoa dagoela hil azkenira iritsi ezinda.

Amaitzeko, horra nire aholkutzeko pareta gazteoi (gero gura duzuen egingo duzue, jakina): 1. Ez ezkondu. 2. Ikasi... (nue batez Zuzenbidea idaztera nindoan, baina ez!) ikasi gogokoen duzuen, baina ikasi!

USTEAK USTE

IKER BARANDIARAN | ibarandiaran@goiena.com

Hemengoa kanpotik ikusita

Joan den astean Los Angelesko (AEB) koadrila bat etorri zen Euskal Herrira. Ezagutzen dudun Gasteizko lagun batek Arrasateko gaztetxean izan zen flamenko ikuskizunera gonbidatu zituen, eta eguna Arrasaten pasa zuten.

Gasteiztarrak herriko hainbat txoko erakutsi zizkien: Erdi Aroko almendra, udaletxea, Santa Barbara parkea eta gazteluaren aztarnak, Monterron, Udala eta baita Garagartza ere. Amerikarrak liluratuta gelditu ziren, eta baita oso harrututa ere, horren guztia gaineke seinalez tapenik ez zegoelako. Eta arrazoia dute, Arrasateko kaleetan, Mankomunitateko gidetan eta errepideetan ez dago eta inongo informazioerik. Kanpokoek ohartarazi behar!

KALE INKESTA

Baduzu ohiturarik Gabonetako loterian jokatzeko?



MARIA FERNANDEZ
ARRASATE

"Krisia dela-eta diru gutxiago daukat, eta azken bi urte hauetan ez dut erosi. Gainera, jokatu izan dudanean ere ez zait tokatu, beraz..."



KONTXITA JAUREGI
ARRASATE

"Ez zait gehiegi gustatzen loterian jokatea. Urtero erosten dut, baina gehienbat konpromisoengatik erosten dut".



XABIER ARKAUZ
ARRASATE

"Ni ez naiz oso loteria zalea, ez zait gehiegi gustatzen. Urtero erosten dugu, baina ohikoa: familiarekin, enpresakoa, afari baten sortutako..."



EUGENIA ZUBIZARRETA
ARRASATE

"Ez dut sekula loteriarik erosten, baina orain arte etxean banuen loteria erosten zuenik. Hala ere, sekula ez da ezer tokatu etxean".

HANDIK ETA HEMENDIK

Zahartzaroko liberazioa

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatiño/

Errutina aldatzea, liberazioa ez ezik, aldrebeskoa ere izan daiteke zahartzaroan. Alegia, ezagutzen dut nik, alargundu beharrik gabe ere oheak eta erosketak egin, zapatak garbitu, etxea atondu, afaria prestatu eta harrikoaz arduratzeari ekin behar izan dion 65 urteko senarrik. Eta ez naiz inondikako merituz ari, errutina-haustez baizik. Auskalo honelakoetan ezelango liberaziorik ote den baina narratziorik, behintzat, nahi beste.

Zaharrak ditugu aspaldiotan hizpide.

Auskalo gero eta gehiago direlako ote den, lartxo irauten dutelako edota garesti ateratzen zaizkigulako.

Zer nahi delarik ere, bistan dago zahar bizirauteak gazterik hiltzek baino askoz ere arazo larriagoak sortarazten dituela.

Baita esperientzia eta ikuspegi berriak ere. Adin bakoitzari bere narrazioa dario.

Uxue Alberdi (*Aulki Jokoa*, 2009), Karmel Jaio (*Musika airean*, 2009) eta Arantxa Urretabizkaia (*3 Mariak*, 2010) idazleak zahartzarora hurreratu dira beraiek baino nabarmen edadetuagoak diren protagonisten ildotik.

Protagonista emeak, besteak beste, idazleak eurak zein beraien fikziozko pertsonaiak.

Zorioneko aldatetak eta --zahartzarora tarteko-- soziologia berriak emakume-aurpegia dute.

Segurutzin hala behar du izan. Baina bada besterik, bada bestelakorik.

Adierazgarria da gero emakumeak zein erraz ekin dion bere egoera berria kontatzeari eta gizonezkoa, aldiz, zein zuhur eta uzkur geratu den, isilik-misilik, zer esan jakinezta.

Arantxaren hiru Marietako batek --Maritxurik-- ezin hobeto auzaltzen dizkigu alargundu ondoko aldateta eta zenbait urte luzeko errutinak hautsi osteko liberazioa:

"Oraindik ere ez naiz ohitu. Bizitza osoan nik egindakoak beste norbaitek egiten dituenean, miraria iruditzen zait. Adibidez, erretiratzen naiz bazkalondoan kuluxka bat egitera eta, jaikitzean,

sukaldea guztiz txukun dago eta kafe usaina dator nire bila. Jartzen dut martxan garbigailua eta, konturatu naizenerako, arropa lehor dago eta tolestua."

Honelako hainbat pasarte adierazkor ditu bizitza osoa hil berri zaion senarari begira pasatu duen Maritxurik.

Erabat nator Arantxa Urretabizkaia idazlearekin zein Maritxuri protagonistarekin. Biek.

Arantxarekin, *"Nortasun agiriak ez du nire bizitza gobernaturiko"* esaten duenean.

Eta, Maritxurirekin, hainbat urteko errutina hausteak dakarkion aldatetak.

Gertatzen da, ordea, errutina aldatze hori aldrebeskoa ere izan daitekeela zahartzaroan.

Alegia, ezagutzen dut nik, alargundu beharrik gabe ere oheak eta erosketak egin, zapatak garbitu, etxea atondu, afaria prestatu eta harrikoaz arduratzeari ekin behar izan dion 65 urteko senarrik.

Ez naiz inondikako merituz ari, errutina-haustez baizik.

Auskalo honelakoetan ezelango liberaziorik ote den baina narratziorik, behintzat, nahi beste.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak eta Kultura), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Ubane Madera
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zigorza Martin, Edurne Gorosabel, Aintzane Muiamendiaraz
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA
BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 12
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Fax: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com


Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Fax: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 1697-3542
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

0/JD erakundeak ikuskatutako astekaria.

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eva De Miguel | Vicente Ferrer Fundazioko ordezkaria

"45.000 etxe egin ditu Ferrer Fundazioak Indiako hegoaldean, baztertutako jendearentzat"

- ▶ Izar Taupadak kanpainaren barruan, hitzaldia egin zuen De Miguelek Oñatin
- ▶ Ulma Fundazioa Vicente Ferrer Fundazioarekin elkarlanean dabil azken urteotan

EDU MENDIBIL | OÑATI

Izar Taupadak kanpainaren barruan, Eva De Miguelek (Bilbo, 1979) Vicente Ferrer Fundazioaren gaineko hitzaldia egin zuen egubakoitzean Elkar Hezi ikastetxean, Oñatin. Bereziki DBHko ikasleei zuzendutako ekitaldia izan zen. Pedagogian lizentziatutakoa da De Miguel eta duela sei hilabete hasi zen fundazioan, Euskadiko eta Kantabriako delegazioko teknikari lanetan. Egubakoitzeko hitzaldian Ulma Fundazioko Agurtzane Basterra izan zuen alboan.

Zein izan da hitzaldiaren helburua?

Alde batetik, Vicente Ferrer Fundazioaren [www.fundacionvicenteferrer.org] eta Ulma Fundazioaren arteko harremana azaldu nahi izan diegu ikasleei eta bestetik gure Fundazioan nortzuk ari diren, zer nolako lana egiten den eta ukitzen ditugun sektoreak zeintzuk diren azaldu. 1969tik dabil Fundazioa Indian lanean. Hegoaldeko tokirik pobreenetakoa da Anantapur eta hango komunitatearen arazoei aurre egiten ahalegintzen gara. Akzioaren filosofian oinarrituta, garapenerako gobernuz kanpoko erakunde da Fundazioa. Gaur egun, 144.000 kolaboratzaile ditugu Espainian eta beste 735 atzerrian. Modu ezberdinak daude Fundazioarekin kolaboratzeko.

Noiztik dabil Ulma Fundazioa zuekin elkarlanean?

Urteak daramatzate Indiako proiektuetan modu aktibo batean laguntzen: 2004an, elbarritu baten dako etxebizitza eraikitzen; 2006an Ganganpalli Thandako kolonian etxebizitza bat eginez; 2009an Jayasudha izeneko mutikoa babesean hartuta; edo aurten C. Bathalappalli herrian, hiru etxebizitza eraikiz.

Zertan datza akzioaren filosofia?

Izenak dioen bezala akzioak du garrantzia. Abian jarritako ekintza guztiek helburu positiboa daukate eta kooperazio modeloa beti ere jatorrizko biztanleendako jasagarria izatea da asmoa. Gaur egun, esaterako, 1.900 lagun dabilta Anantapur inguruan lanean eta %99 bertako biztanleria dira. Lau milioi biztanle inguru dira Anantapurren eta Fundazioaren lana 2 milioi lagunengana heltzen da gaur. Azken baten, zera bilatzen dugu: bertakoei erreminta egokiak eman eta haiek izan daitezela aurrera egiten dutenak. Akzioen filosofiak ez du etenik, lana etengabekoa eta, esan bezala, dagoeneko 40



Eva De Miguelek hitzaldia egin zuen egubakoitzean Elkar Hezi ikastetxean, Oñatin. | E.M.

urte egin ditu Fundazioak Indian.

Eta nolako proiektuak dira martxan gaur egun?

Uravakinda eskualdean, Kurnool distrituan lanean jarraitzen dugu. Hain zuzen ere, Sakibanda herrian 29 etxebizitzaren eraikuntza jarri dugu; bertako biztanleendako bizitza kalitatearen sekulako hobekuntza suposatzen du horrek. Bestetik zera azpimarratu beharra dago: etxe guztiak emakumeei zuzentzen zaizkiela, haien egonkortasuna eta segurtasuna ziurtatzea bilatzen baita.

Vicente eta Anna Ferreren seme-alabetako bat, Moncho, Indian dihardu lanean eta haren esanetan, aitarekin batera, hamar urtetan 30.000 etxe eraikiko zituztela aurreikusituta zuten. Baina aurreikuspen horiek gaintitu dira dagoeneko: 45.000 etxe egin dira dalit edo *ukituezinendako* (kastarik gabeko nekazariak, ia-ia guztiz marjinatuta daudenak), *backward cast* delako kideendako (marjinatuta eta pobrezian bizi den jende oso umila) eta

tribuendako. Bestetik, eskola ere abian jarri da Sakibandan aurten eta hango komunitatea erabat inplikatu da. 140 familia inguruk bat egin dute irakasleari soldata ordaindu ahal izateko eta oraingoz eskolak tenpluan badira ere, laster eskola eraikitzea da asmoa.

Kasten sistemak nolako indarra du gaurko Indian?

Kasta arrazoiengatik edozein bazterketa zigortzen du Indiako

"1.900 lagun dabilta Anantapurren, %99 bertakoak"

"Guztiok jasaten dugu krisia, baita gobernuz kanpoko erakundeok ere"

Konstituzioak 1950. urtetik, baina praktikan aldaketa oso geldoa da. Kontuan hartu mendetan jarraitu izan den sistema dela; kasta bateko edo besteko kide izateak pertsonen estatusa zehazten du eta hori dela eta gehien baztertutako pertsonen alde lan egiten du Fundazioak. Lehen aipatutako dalit edo *ukituezinak*, *backward* kastakoak, tribuak eta emakumeak orokorrean dira horietako batzuk.

Krisiak zer nolako eragina izan du Fundazioarengan eta bestelako gobernuz kanpoko erakundeengana?

Argi dago guztiok jasaten ari garela krisiaren ondorioak eta lan edo proiektu berdinarik egiteko diru laguntza gutxiago dagoela. Gainera, nolabaiteko *kompetentzia* ere badago GKEen artean, laguntzak eskuratzeko. Baina kolaboratzaile dezente ditugu eta jende berria hurbiltzen da oraindik Fundazioarengana. Zentzu horretan, Nobel sarietarako hautagaien artean egon da Fundazioa aurten eta horrek, zorionez, bul-

tzada eman dio Fundazioari. Anna Ferrer Vicenteren alarguna Espainian dabil egunotan eta gure lana ezagutzera emateko, eta komunikabideen bitartez jendearengana iristeko baliagarria izango zaigu hori.

Oñatira bidezko merkataritza ere ekarri duzue...

Bai, zapatuko azokan parte hartu genuen. Minusbaliotasun arazoak dituzten emakumeei laguntzeko helburua du gure proiektuak.

Bukatzeke, nola hasi zinen Fundazioan lanean?

Aspalditik jarraitu izan dut Fundazioaren lana. Izan ere, telebistan eta bestelako komunikabideetan oihartzun zabala izan du Vicente Ferrerrek egindako lana. Beti erakarri izan nau egitasmoak eta lanean orain dela sei hilabete hasi banintzen ere, bihotzean beti gertu sentitu izan dudana egitasmoa izan da. Benetan txalogarria da Fundazioaren lana eta argi dago Vicente Ferrer ameslari bat izan zela. Eta zorionez bizi dirau haren ametsak.

Saia zaitez sasoiari
egoten ez ezik,
zeure bizi-mailari
eusten ere: merezi du.



Kutxa Aurreikuspen Planak.
Etorkizun segurua **kutxaren**
kaudimenarekin.

Kutxa 2016 eta 2018 Aurreikuspen Plan berriek **jarritako kapitalaren %100 eta errentagarritasun handia** bermatzen dute.

Sar zaitez kutxa.net-en eta kalkulatu zenbatekoa izango den zure pentsioa erretiroa hartutakoan. Gero, zuk erabaki aldatu nahi duzun edo ez.

Kutxaren Aurreikuspen Planak Kutxa Bi BGAEra atxikita daude.



UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Pako Legorburu | Antzuolako alkatea (1979-1983)

- ▶ Agintaldi bakarra egin zuen alkate
- ▶ 10 zinegotzirekin osatu zuen udabaltzarra

"Demokraziako lehen udalbatzarra izanik ilusio handiarekin heldu ginen, eta lan egiteko gogoz"

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Pako Legorburu (Antzuola, 1933) demokrazia garaiko lehen alkatea izan zen Antzuolan. 1979tik 1983ra egon zen Udala zuzentzen. Guztira, 11 zinegotzi ziren: sei EAJkoak, hiru ezker abertzalekoak zinegotzi bat alderdi sozialistakoa eta beste bat LKIkkoa (Liga Komunista Iraultzailea). Politika egiteko era "asko aldatu" dela esan digu, baina politikarien "funtsa" betikoa dela: "lan egiteko gogoia eduki eta zintzo jokatzea".

Ze oroitzen dituzu alkate izan zineneko garaiaz?

Demokrazia garaiko lehen udalbatzarra osatu genuen. Hori horrela, ikusmin handia zuten herritarrek, eta baita guk ere. Lanerako gogoz sartu ginen. Ni ez nintzen EAJko afiliatu, baina, alderdiko eta lagunaren animoekin, hauteskundera aurkeztea erabaki nuen.

Guztiok ezagunak ginen, eta herrikoak, gainera. Nork bere politika egin genuen, baina istuetan eta haserrealdietan sartu barik. EAJkook gehiengo absolutua genuen, baina ez genuen guk nahi genuen guztia egin. Beste alderdien iritziak eta ekarpenak entzun eta aztertu genituen.

Dena den, ez dut uste orduko politika oraingoa bezalakoa zenik.

Gainera, oposizioarekin tratatu gertua izan genuen. Nik esango nuke lehen agintaldiarekin herria batu genuela, politikari dagokionez. Zinegotzien arteko hartu-eman ona izan bazen ere, arazoak izan genituen, baina konpontzeko gai izan ginen.

Zeintzuk dira agintaldi hartan egin-dako lanik aipagarrienak?


Antzuolan uholdeen arriskua izan dugu beti. Hori horrela, Errotaberriko presa bota egin genuen eta Herriko Plaza pasa arte erreka dragatu. Bestalde, herriko kaleak asfaltatu egin genituen eta estolderia lanak bukatu. Gainera, udaletxea berri egin genuen. Eraberritze lanok irauten zuten bitartean udaletxe-tik kanpo egin genuen lan.

Era berean, frontoia eraberritu egin genuen: komunak eta duxtak egin eta jarlekuak ipini genituen ikusleendako. Bestalde, medikuntzarako bulegotxo baxerik ez zegoen, eta anbulatorio berria eta egokia prestatu genuen.

Udalera heldu ginenean saihebidia eginda zegoen, baina herrirako sarrerak eta irteerak falta ziren; horiek ere egin genituen.

Agintaldia bukatu aurretik hirigintza-plana egin zenuen. Saria jaso zuen.

Bai. Guk osatu genuen, baina ezin izan genuen martxan ipini. Gure ondorengo udalbatzarrak egin zuen. Orduko alkateak, hil berri den Jose Mari Ugaldek, jaso zuen saria Espainiako Par-



Pako Legorburu, etxeko balkoian, udaletxea atzean duela. | MIREIA BIKUÑA

lamentuko presidente Gregorio Peces-Barbaren eskutik.

Agintaldi bakarra egin zenuen.

Oso garbi nuen. Orain, alkate asko liberatuta daude, baina orduan udaletxean eta Goizperren egiten nuen lan. Ordu asko lan-tegian eta baita politikan ere.

Lau urterako hartu nuen kargua, eta data heldu zenean, kargua utzi nuen.

Nola ikusten duzu Antzuola?

Xarma berezia du. Hirigintza arloa asko zaindu dute beti, eta horren emaitza da Antzuolak izan duen bilakaera. Herri txiki baina dotorea daukagu.

Eta gaur egungo politika?

Nire ustez, politikariek nork bere sentsibilizazioaren arabera agintaldia izaten dute. Gaur egungo gazteek ez diote kasu handirik egiten politikari. EAJn arazo handia izaten dute hauteskunderarako zerrendak osatzeko. Iruditzen zait zenbait herritan ezkerrekoak ez diren alderdiek ez dutela lehen beste-ko indarririk. Politika egiteko modua ere asko aldatu da, baina politikariek izan beharko luketen funtsa berbera da: lan egiteko gogoia eta zintzo jokatzea.

"Oposizioko alderdiekin hartu-eman gertua izan genuen"

"Gaur egungo gazteek ez diote kasu larregirik egiten politikari"



Lehen udalbatzarra: Mateo Aranguren, Jose Luis Ena, Tomas Jauregi, Pako Legorburu, Eliseo Gartzia, Jose Mari Kortabarria, Agustin Cabo, Fernando Lete, Jose Angel Zabalo, Jose Luis Arregi eta Jose Luis Zabalo. | GOIENA

SANTAMASAK

GOIENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA

EGUAZTENA, ABENDUAK 22, 19:45

BABESLEA: ARKAUZ ALTZARIAK



HERRIAK



Amagoia Irazabale bere amak, Kontxi Bolinagak, laguntzen dio ireki berri duen arrandegian; urte askotan Elgetako arrain-saltzailea izan zen Kontxi Bolinaga ere. | JULIO CALLEJA

Arrain fresko-freskoa iritsi da atzera ere Elgetara

- ▶ Amagoia Irazabalek amaren pausuak jarraituz arrandegia ireki du
- ▶ Urtebete pasatxoan hiru denda berri ireki dituzte Elgetan

ARRITXU BARRUSO | ELGETA

Badira bost urte Elgetan zegoen arrandegi bakarra itxi zela, eta ordutik atzera ere zabaltzeko saiakera bat edo beste izan bada ere, orain arte ez dute aurrera egin saiakerok. Bada, elgetarrek orain arrandegia dute atzera ere herrian bertan. Arrainaren negozioa umetatik bizi eta ezagutu izan duen Amagoia Irazabalek ireki du arrandegia. Bere amak, Kontxi Bolinagak, 40 urte eman zituen bere alabak ireki berri duen lokalean bertan arraina saltzen: "Herriko arrain-saltzailea izan naiz beti, bizi guztia eman dut horretan. Ezkondu nintzen egunean ere goizean arraina saltzera etorri nintzen, pentsa!", kontatu digu Kontxi Bolinagak.

Ama-alabak elkarrekin

Amagoia Irazabalek hortaz, oso ondo ezagutzen du arrandegi bat zer den eta nola lan egiten den, baina amaren laguntza ezinbes-

tekoa izan dela kontatu digu: "Etxean ikusitakoaz gain, beste arrandegi batzuetan ere ibilitakoa naiz, baina ez da berdina negozioa zeurea denean: merkatura joan, arrain ona erosi... Hasieran amak lagundu zidan lan horietan".

Astean hiru edo lau bider joaten da Irazabal Mercabilbora arraina erostera eta lehenengo asteetan amak erakutsi zion bidea. "Ni, arrandegia nuenean ere, hara joaten nintzen arraina erostera eta polita izan da atzera ere itzultzea. Lehenengo egunetan urduri xamar joaten nintzen, hura oso handia delako, baina berehala ohitu nintzen berriro ere merkaturako mugimendura", dio Bolinagak.

Amarengandik bidea eta merkaturako gorabeherak ikasi ostean, orain gizonarekin joaten da Irazabal merkatura: "Elurra zela eta amarekin beharrean gizonarekin joan nintzen behin eta

gustatu egin zitzaion, eta orain berak laguntzen dit Bilboko merkatura joan eta behar dudan arraina erosten".

Ohitura berriak hartzen

Aste honetan bete da hilabete negozioa ireki zuela eta Irazabal pozik dago herritarrek egin dioten harrerarekin: "Jendea ez dago ohituta arraina herrian

bertan erostera eta kontziente naiz berriro ere ohitu beharko dela. Dena dela, lehenengo hilabete honetan jendea ibili da, eta pozik nago. Gainera gehienek eskerrak ematen dizkirate, eta herrian arrandegia izatea beharrezkoa zela esaten didate. Poliki-poliki joango dira denak ere kanpora joan barik arraina herrian erosteko ohitura hartzen.

ESANAK

"Jendea hasi da arraina herrian erosteko ohitura hartzen. Pozik nago lehenengo hilabetean egin dugun lanarekin"

AMAGOIA IRAZABAL | ALABA

"Herria triste zegoen; orain, berriz, kalera irten eta jendea ikusten duzu kaleetan, eta hori behar genuen"

KONTXI BOLINAGA | AMA

„Ni urte askotarako geratzeko asmoarekin etorri naiz, beraz badute denbora ohitzen joateko”, dio irribarre batekin.

Herria bizirik atzera ere

Amagoiaren arrandegiarekin batera, urtebete pasatxoan beste hiru denda berri ireki dira Elgetan; Imanol Aspiazuren harategia, Dayami Baroken Erdiko Denda eta Markel denda, azken horrek ateak itxi berri dituen arren. Herritarrek gustura hartu dituzte negozio berriak, eta Kontxi Bolinagak herria alaitu dutela esan digu: "Saso batean bi arrandegi, bi harategi, hiru janari denda eta okindegia genituen herrian, eta poliki-poliki ixten joan ziren guztiak. Herria oso triste geratu zen, kalera irteteak ere tristura ematen zuen. Orain, berriz, giro polita ikusten da. Kalera irten eta jendea ikusten duzu kaleetan eta hori behar genuen. Ni oso pozik nago nire alabarekin batera beste batzuk ere Elgetan negozioa irekitzeko apustua egin dutelako". Irazabalek ere uste du jarraitu beharreko bidea hori izan behar dela: "Ni elgetarra naiz, hemen jaio nintzen eta hemen bizi izan naiz bizi guztian, eta herrian bertan dendak eta bizia izatea ezinbestekoa dela uste dut".

Aspaldiko partez, Elgetatik irten gabe etxeetako despentsak betetzeko arazorik ez da izango. Orain falta dena da herritarrek ere aspaldiko ohituetara itzultzea eta erosketak herriko denda txikietan egitea.

goienakluba™

Abantailaz betetako kluba!

ABENDUKO ZOKETA



Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | Kuota: 48 €.


UMEENTZAKO LIBURUA

Bidali KLUBA LIBURUA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



UMEENTZAKO IPUINA

Bidali KLUBA IPUINA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



UMEENTZAKO DVD-A

Bidali KLUBA DVD
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



UMEENTZAKO PUZZLEA

Bidali KLUBA PUZZLEA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zkra.



ERREMEIXUAK DVD-A

Bidali KLUBA ERREMEIXUAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



DANBAKAKO PACKA

Bidali KLUBA DANBAKA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

DANBAKA))))



SARI NAGUSIA AZAROA-URTARRILA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKKETATUKO DA

26 HAZBETEKO TELEBISTA

- 26"-ko TFT-LCD pantaila.
- Barneratutako TDT-a.
- HDMI.
- USB 2.0



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzue datuotari sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



Ume eta gurasoak jostailuak aukeratzen, atzoko Jostailu Truke Azokan. | JULIO CALLEJA

ARRASATE

Begiratu, ikusi, aukeratu... eta trukatu jostailuak, truke azokan

Guraso asko goizean goiz atean zain egon ziren, jostailu onenak hartzeko

UBANE MADERA | ARRASATE

Poltsa eskuan dutela, jostailu, puzzle edo panpinak di-da batean aukeratu eta poltsok beteta gusura geratu dira Txatxilipurdi elkartearen aurtengo Jostailu Truke Azokan parte hartu duten gurasoak: "Denetik dago. Oso ideia ona da, horrenbeste kontsumitu beharrean, eta jostailuak zaborrera bota beharrean aprobetxatu egiten ditugu", kontatu du guraso batek. "Zerbait topatu dut, bai. Puzzleak-eta halakoak, batez ere. Gauza handiak utzi nituen, eta txikiak hartu. Oso ideia ona da, umeek erabiltzen

ez dituzten jostailuak hemen utzi eta berriak hartzea. Praktiko da, gustura nago. Lehenengo aldiz etorri naiz aurten, dagoeneko bi mutiko ditugu etxean, eta etxea trastez betetzen hasita genuen... gauza gehiago ekarri behar nituen. Datorren urtean berriro!", kontatu du beste batek.

160 jostailu baino gehiago

Izan ere, Okendoko ludotekako mahaia puzzle, panpin, jostailu, patin, patinete eta bestelakoz beteta izan zen atzo, domeka, 10:00etatik 14:00etara: "160 txartel banatu ditugu, baina horiek bai-

no jostailu gehiago daude hemen, ze bost panpineko txartel bat eman dugu...", azaldu du Txatxilipurdiko begiraleak.

Balorazio positiboa

Beraz, gurasoak pozik, eta antolatzaileak ere bai; hala adierazi du Arantza Osorok, Txatxilipurdiko dinamizatzaileak: "Guraso asko guk atea zabaltzeko zain zeuden, eta etorri dira errepikatu dutenak ere bai. Mahaia husten hasi da, beti gelditzen da zertxobait, panpinen bat, puzzlearen bat, baina gehiena hustu egingo da".



BERGARA

OIHANA ELORTZA

Gaztainak erre artian ...

25 kilo gaztaina erre zituen egubakoitz iluntzean Jardun euskara elkarteak eta Bergarako frontoi aurrekaldean saldu zituzten, elkarte trikitilarien eta bertsolari gaztetxoekin konpainiarekin. Gaztainak danbolinean erretzeko plana zuten Jarduneko lagunek, baina eguraldi eskasagatik, Altsasu elkarte labean erre zituzten, eta kaxetan ekarri zituzten kalera, saltzeko.

BERGARA



Eguerdi partean jende dezente gerturatu zen Na...

ONATI

Elkartasun azoka egiteko Gabon bezpera sasoi ona dela ikusi da beste behin Oñatin

Elkartasuna etxetik adierazi daitekeela erakutsi gura izan du Elkar Hezi ikastetxeak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

"Askotan pentsatzen dugu elkartasuna adieraztera Indiara edo Afrikara joatea dela, baina ez. Elkartasuna etxetik, eskolatik, herritik adierazi daiteke, herritar aktibo izaten eta partaidetza zuzena izaten, eta horixe da azoka honekin zabaldu gura izan dugun helburu pedagogikoa", azaldu du Martin Jauregiartzok, zapatu goizean Oñatiko plazan egin zuten elkartasun azoka antolatu duen

Elkar Hezi ikastetxeko irakasleak. Guztira 50 lagun inguru ibili dira azoka antolatzen eta Euskal Herriko 14 GKE gonbidatu dituzte. "Mikroelkartasuna izan da mezua eta herriko taldeak ez ezik, bailarakoak ere gonbidatu ditugu", zehaztu du Jauregiartzok.

Matriuskak eta txokolatea

Nikaragua, Peru, Sahara, Boli Kosta edo Ukrainan dituzten proiektuak eta hainbat herrial-

detako beste mila produktu ekarri zituzten GKEek Oñatira. Horrela, Ukrainako caviarra edo matriuskak, Sahararen aldeko nikiak eta tea, Indiatic ekarritako oihalak, bidezko merkataritza azokako txokolatea, mermelada eta gailetak eta Peruko haziekin egindako lepokoak saldu zituzten, adibidez. Oñatiko Banoia Txernobileko lagunei, adibidez, amaitu egin zitzairen Ukrainatik ekarritako pastak.



AMAIA UGARTE
MISIO TALDEA ETA HARREMAN

"Urteen poderioz, jendeak gero eta gutxiago galdetzen du bidezko merkataritzaz, dagoeneko badakielako zer den. Gaur ere bezero fidel asko etorri dira. Gabon bezperan jendeak badu ohitura horrelako azoketara joateko eta produktuak erosteko, Gabon oparietarako, adibidez".



AMAIA GOITIA
BUBULUM

"Erostera etorri direnei Nikaraguan dugun proiektuaren inguruko informazioa jasotzen duen triptiko bana eman diegu, eurek etxean irakurtzeko. Nik ere egin ditut erosketak beste postu batzuetan, baina egia esan azkar ikusi dut azoka, jende asko ibili da eta lana izan dugu-eta".



AINHOA ARRIZABALAGA
HAURRALDE FUNDAZIOA

"Mahaiak muntatu eta goizeko hamaiketan hasi gara saltzen. Salmenta ona izan dugu, jende asko ibili da-eta. Arroza, pastak, zukuak, txokolatea eta bidezko merkataritza beste produktu batzuk izan ditugu. Mangoz egindako mermelada izan da produkturik salduena".



Bederatzigarren elkartasun azoka egin zuen Elkar Hezik zapatuan. | JULIO CALLEJA



Nafarroako produktuak erostera. | A.B.



Sukaldaritza lehiaketako irabazleak. | A.B.



Alaia abesbatzak emanaldia egin zuen. | A.B.

Nafarroako produktu asko eta txipiroiak patatekin, zapatuan San Antonion

IRATI GOITIA | BERGARA

Bergarako Gure Ametsa elkar-teak beste behin ere Nafarroako produktuak ekarri ditu San Antonio auzora: txorizoa, gazta, txokolatea, foie, barkilloa... Horiek guztiak eta gehiago dastatzeko eta erosteko aukera izan zen zapatuan egindako Nafar Ferian. Auzotarrendako egun garrantzitsua izaten da, baina Bergaratik ere gero eta jende gehiago gerturatzen da. Aurten ere eguerdi partean azokako postuak jendez beteta zeuden.

Jana, edana eta musika

Aurtengo Nafar Feriarako ere egitarau zabala prestatu zuten Gure Ametsa elkar-tekoek eta muskarik ez zen falta izan giroa berotzeko. Goiz guztian zehar DJ Angie-k alaitu zuen azoka;

txistulariak ere egon ziren, eta eguerdian Alaia abesbatzak emanaldia egin zuen.

Txipiroiak patatekin

Egitarauko hitzordu garrantzitsuena, baina, elkar-teen arteko sukaldaritza lehiaketa izaten da. Aurtengoa hirugarren edizioa izan da eta parte-hartzaileek txipiroiak patatekin prestatu behar zituzten. Bost elkar-tek hartu zuten parte: Umore Ona, San Migelpe, Artatse, Lasai Toki eta Gure Ametsak. Plater goxoenaren titulua Umore Ona elkar-teari eman zion epai-mahaiak; txapela eta Nafarbi-deak produktuekin osatutako saskia irabazi zuten.

Lehiaketarako elkar-teek prestatutako gutziak jateko bazkaria egin zuten gero.

Parkea bukatuta, zubia bakarrik falta da Zaldibarko oinezkoen ibilbidea osatzeko

Urtarrilaren 11n ekarriko dute zubia Burgostik, eguraldiak eragindako atzerapenarengatik

UBANE MADERA | ARRASATE

Iragarritako data bete (abendua- ren 15a), eta bukatu dituzte Zaldibarko oinezkoen ibilbideari dagozkion parkeko lanak.

Joan den egunean dagoene- ko trasteak batzen zebiltzan obra- ko langileak, eta lorezaintzakoak, berriz, bertako lorategietako zuhaitzak landatzen (gerezion- doak, gaztainondoak...).

Behin hori eginda, Nafarroa etorbideko zatiari dagozkion eginbeharreko guztiak bukatuta utziko dituzte.

Pergola eta skate parkea

Parkearen zatirik deigarriena, duda barik, egurrezko pergola da. Ondoko argazkiak erakusten duen moduan, parkea alborik albo zeharkatzen du.

Aterpe ederra eskaintzen du, gainera, pergola horrek ospitale edo INEM ingurura joan behar duten oinezkoendako.

Gazteendako, baina, seguru, zatirik erakargarriena skate parkea izango dela, parkearen bazter batean eraiki dutena, pergolaren ondoan. "Dagoeneko estreinatu dute, ezin izan dute itxaron", kontatu dute obrako langileek, oraindik hesituta dagoen parkea seinalatuz. 15x8 neurtzen du skate parkeak, eta Zut enpresa bizkaitarrak diseinatutakoa da.

Jarleku ugari eta aparkalekua

Arrasateko parke berri horretan ipini dituzten bestelako elemen- tuen artean, esaterako, jarlekuak ere badira: binakakoak, banaka- koak, taldekoak... baita iturria ere; eta jakina, aparkalekuak, inguru horretan horren preziatuak diren aparkalekuak.

Hain justu, Lantegi Eskolaren atzeko partean 22 aparkaleku egokitu dituzte, eta baita bizikle- ta eta motorrendako bi aparka- gune ere.



Langileak trasteak batzen eta lorategietako lanak egiten, joan den egunean. | UBANE MADERA

Izotza, zubiaren etsai

Burgosen dabilta eraikitzen Gelmako bizigunea Zaldibarrekin lotuko duen zubia, oinezkoendakoa. Berezia da, koloredun argiak izateaz gainera, ukitu modernoa duelako eta gainera zubiaren pieza nagusia, 22 metroko pasabidea osorik eraikitzen dabiltzalako.

Bada justu pieza horrek eragin du zubiaren entregan atzerapena. "Abenduaren 11n Burgosen izan

ginen eta abisatu ziguten aurreikusitako datak betetzeko arazoak dituztela. Adibidez, egunotan egin duen hotzarekin ezin izan dute hormigonatu. Hori batetik, eta bestetik Gabonetako oporrak tarteko, erabaki dugu urtarrilaren 11n ekartzea zubia. Batez ere, kontuan hartuta errepidea moztu egin beharko dugula hura Gelmaraingo ekartzeko. 180 tonako garabia erabiliko dugu zubiaren pieza nagusi hori ipintzeko", kontatu du Carlos Martin aparejadoreak.

Zubia faltan

Gauzak horrela, Zaldibarko oinez- koen ibilbide berri osoa bukatze- ko, Gelmako bizigunea Zaldiba-

rrekin lotuko duen zubia ipintzea faltako da. Obenerreka enpresa- ren esku dago hori, eta Carlos Martin aparejadoreak emandako

xehetasunen arabera, ustekabe- koek eraginda, atzeratu egin da zubiaren eraikuntza: urtarrilaren 11n ekarriko dute Arrasatera.

Naturaren samurrena, bortitzena eta ikusgarriena, Kulturaten

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Laugarren urtez jarri dute Kul- turaten Naturaren Argazkilariak izeneko erakusketa, eta bertan, nazioarteko lehiaketa garrantzi- tsu bateko argazkirik onenak jasotzen dira. Hilabetez egongo da ikusgai.

Denetik apur bat

Naturako animaliarik ikusga- rrienak, paisaia politenak, giza- kiak eta naturaren arteko harre- mana... Horiek guztiak ikus daitezke Kulturateko klaustroen bueltan ipini duten erakusketa horretan.

Nazioarteko lehiaketa

Veolia Environnement Wildlife Photographer of the Year lehiaketa argazkirik onenak agertzen dira, hain justu. 46 urte baino historia luzeagoa du lehiaketa horrek, eta Londresko Historia Naturalaren Museoak eta BBCren Wildlife Magazine aldizkariak antolatzen dute.

Arrasateko erakusketan ikus daitezkeen argazkiak 2009ko edi- zioakoak dira.

3.000 bisitari, iaz

Laugarren aldia da Naturaren Argazkilariak erakusketa Arrasatera etortzen dela, eta urte- tik urtera geroago eta interes handiagoa piztu izan du. Jon Garai kultura teknikariburu- ren arabera, iaz esaterako, ia 3.000 bisitari izan zituen. Bisi- tariak gainera, helduak eta gazteak, adin guztietakoak izan ziren.

Kutxaren Gizarte Ekintza- ren babesarekin heldu da era- kusketa Arrasatera. Aurretik, Bilbon, A Coruña eta Lleidan ere egon da. Urtarrilaren 17a arte ikus daitezke argazkiok.



Felinoak borrokan. | ANDY ROURSEN

Helduen Hezinetan Iraunkorretako lokalak esleitura

UBANE MADERA | ARRASATE

Adjudikatu dituzte lehengo IMIko lokalak eraberritzeko obrak, lokal horiek Helduen Heziketa Iraunkorretako erabil ditzaten obrak egin eta gero.

Adjudikazio hori, baina, behin-behinerakoa da. Izan ere, Arrasateko Udalak dirulaguntza eskatuta dauka obra hori egin ahal izateko. Eta berez, joan den abenduaren 15a zuen erantzuna jasotzeko azkeneko eguna.

Epea pasatuta, baina, oraindik ez dute dirulagun- tzaren gaineko erantzunik, eta egin duten adjudikazioa ezin da behin betikoa izan. "Baina, dirulaguntza emanaz gero, legearen arabera, obrak abenduaren 31 baino lehen hasi beharko genituzke, horre- gatik Udalak erabaki du aurre- ra egitea. Dirulaguntzarik ez badator, gero pentsatuko dugu zer egin", adierazi dute Obra Salletik.

652. euroko aurrekontua du Udalak aurreikusita era- berritze lan horiek egiteko.



Lanperna-musua elurretan. | JAN VERMEER

IBAI-GANE
janari denda



Gabonetarako
janari prestatu
bereziak!

Tel.: 943 77 20 33 Otarora 36 ARRASATE
www.ibai-gane.com

Urtea amaitzeko hainbat ekintza antolatu dituzte gazte txokoek

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Txatxilipurdiri eta Udaleko Gazteria Sailari esker herriko gaztetxoek ez dute aspertzeko astirik izango urtea amaitu arte. Egitarau zabala osatu dute; bost hitzordu antolatu dituzte hilaren 26tik 30era: areto futbol txapelketa, Gasteizko izotz pista irteera, Inuzente Eguneko ospakizuna, neguko jinkana eta urteko azken jaia. Izena emateko gazte txokotara edo Gazte Bulegora jo beharra dago.

Hilaren 26an areto futbol txapelketa egingo dute Musakolako kiroldegiko barruko kantxan. Sei kidez osatutako taldeak osatu behar dira eta derrigorrezkoa izango da taldea mistoa izatea. Nesken presentzia, beraz, ziurtatuta dago. Egunean bertan eman daiteke izena eta txapelketa 10:00etan hasi eta 13:00etan bukatuko da. Sariak, noski, ez dira faltako. Bestetik, hilaren 27an Gasteizko

izotz pista egingo dute irteera: 09:30ean elkartuko dira Garibaien. Bost euro ordaindu beharko da eta bidean bazkalduko dute; beraz, jatekoa etxetik eramatea gomendatu dute.

Azken jaia abenduaren 30ean

Abenduaren 28an Inuzente Eguneko ospakizun berezia egingo dute. Gaztetxoek eta hezitzaileek txantxak egingo dituzte eta, Lander Juaristi Txatxilipurdiko kideak jakinarazi duenez, herri osoa txantxa horiez ohartzen saiatuko dira. Hilaren 29an neguko jinkana egingo dute Kulturaten (17:00), eguraldi txarrera egokitutako probaz osatuta. Eta amaitzeko, abenduaren 30ean urteko azken jaia egingo dute Musakolako gazte txokoan. Musika izango da protagonista: gazte txokoetan sortu berri den RPL taldeak bi kantu joko ditu; punka egiten dute. Beste talde batek ere joko du, baina oraindik ez dute taldea lotu.



Maiatzean Zaldibarren egin zen futbito txapelketa; orain, Musakolan. | GAZTE TXOKOAK

Gaztegunea dirulaguntzen zain dago

Aste bukaeretan erdigunean gaztetoendako aisialdi eskaintza hobetuko duen Gaztegunearen proiektua dirulaguntzen zain dago oraindik. Udaleko Gazteria Sailak jakinarazi du Aldundiaren laguntza bidean dagoela, baina oraindik Jaurlaritzaren laguntzaren zain daude. 2010eko aurrekontuen barruan sartu zen proiektua, eta, beraz, erantzunak datozen egunetan heldu beharko luke.

'Frenetikodrome' birari amaiera emango dio Governors taldeak

Azken hamar hilabeteetan jo eta ke aritu ostean, urtarri-laren 8an Hatortxu Rock jaialdiko emanaldian amaituko da Governors taldearen *Frenetikodrome* diskoaren aurkezpen bira. Abenduaren 25ean Durangoko Plateruena Kafe Antzokian joko dute (22:30).

Kulturaniztasun Festa egingo du Ekinak abenduaren 26an

"Kalera irtengo gara, musikaz, kolorez eta usainez estaltzera Arrasateko alde zaharra. Ia dena prest eta lotuta dugu". Modu horretan egin du gonbitea Ekin Emakumeak Elkarrekin datorren abenduaren 26an egingo duten Kulturaniztasun Festarako. 17:00etan hasi eta 20:00ak arteko ekitaldiak antolatu dituzte.

Arrasateko punk-oi!-ak Berlin hartu zuen eguna

Abenduaren 11n jo zuten Berlinen Des-kontrol eta Never Surrender talde arrasatearrek, bertako Slamtilt! taldearekin batera. Clash aretoan jo zuten, hango lagun batzuek gonbidatuta. Gau berezia izan zen, Berlinen jo arren etxean moduan sentitu ziren-eta. Eurenkin batera Arrasateko hainbat lagun joan ziren, 30 inguru. Horren lekuko goiko irudia. *Express* irteera izan zen: egubakoitzean irten eta domekan bueltatu.



GOIENA

Urdangarinen ahots sakonak doinu landuekin egin zuen bat ikuslea ase zuen emanaldian

J.B. | ARRASATE

Mikel Urdangarin abeslaria izan zen protagonista *Kooltur ostegunak* ekimenaren azken saioan, joan den egunean.

Ohi duen moduan, zale asko batu zituen musikagile zornotza-

rrak; 160 sarrera inguru saldu ziren-eta. Hasierako kantuek *Zubia* azken diskoko piezekin tartekatu zituen Urdangarinek, eta haren ahots sakonak bat egin zuen atzean zituen goi mailako musikariek jarritako doinu lan-

duekin. Teknikoki ezin zaie gehiagorik eskatu.

Aipatzekoak izan ziren Rafa Ruedak gitarrarekin eginiko punteatzeak eta distorsio ekarpena eta Nika Bitschiashvili-ren biolinaren zorroztasuna.

'Feedback' eta guzti

Saio lasaia eta atsegina izan zen, baina ez ikuslea lokarraztekoa. *Feedback*-a izan zuen emanaldia izan zen; hau da, ikusleak erantzun egin zuen. Musikariak pozik, ikusleak ere bai, eta, beraz, zer esan antolatzaileen gainean. Bada, errubera aurrera doa, atzera bueltarik gabe.

NaizRoxa asteen eta gero, Fiachras

Egunean Pasaiaiko NaizRoxa taldeak joko du; euren zuzeneko bortitzak ez du inor axolagabe utziko. *Iqhataric* izeneko diskoa aurkeztuko dute. Hilaren 30ean, bestalde, Bergarako Fiachras taldea dator. Formazio eta errepertorio aldetik berritasunekin datoz Aldanondo, Artola eta konpainia: garagardotan bustitako doinuak; hori bai, NaizRoxa taldearenak baino epelagoak.

GARAIA
JATETXEA

Ondo pasa Santamasetan!
Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu.



EGUNERO
ZABALIK
abenduaren
25, 26 eta 31n ixita.

ORDUTEGIA:
KAFETEGIA: 07:45-19:00.
JANTOKIA: 12:30-15:30.

Goiru I Garaia Berrikuntza Gunea
ARRASATE Tel.: 943 71 02 28

Errekaldeko lorategia: XIX. mende bukaerako altxorra

- ▶ Udalak eskatuta lorategia ordenatzeko azterketa egin du Citerea enpresak
- ▶ XIX. mende bukaeran diseinatutako Gipuzkoako paisaia-lorategi bikainenetakoa dela dio txostenak

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Citerea (Consulting Internacional Tecnico en Recuperacion Ambiental SL) enpresak bukatu du Errekalde jauregiaren lorategia ordenatzeko Udalak eskatutako aurreproiektua, eta ondorio orokor garbia jasotzen du: arrazoi zerrenda luze bat tarteko, Errekaldeko lorategia balio handiko ondarea da eta hura mantendu egin behar da.

Azterketa sakona egin dute, Udaleko hainbat sailen laguntzarekin eta 1997. urtean Europako Kontseiluak onartutako metodologia zorrotza jarraituz. Izan ere, babestutako ondare guztiak, eta zehazki lorategi historikoei dago kienez, Florentziako Gutunak eta Ondare Historiko Espainiarraren Legeak diote metodologia zientifikoa garatu behar dela, lorategia sakonki ezagutzeko, lanok ondoren idatziko diren berreskuratze jarraibideen oinarria izango direlako.

Lorategi bikaina

Apirilean esleitu zion Udalak lan hori Citerea estudioari, lorategiaren balioaz jabetuta, eta Citearearen azterketa udal arduradunek uste zutena berretsi du: babestu eta aberastu behar den lorategia dela. Hain justu ere, halaxe dio enpresa horrek egingandako txostenean: "Multzoa degradatuta dagoen arren, berreskuratzearen emaitzak onak izango lirateke. Gunearen zabalera eta egitura interesgarriak, azpiegitura hidraulikoaren konplexutasunak, lorategi barruko bidexkak, dauden zuhaitz paregabeek eta oraindik mantentzen dituen elementu arkitektonikoen kalitate eta barietateak bihurtzen dute Errekalde jauregiko lorategia XIX. mende bukaeran diseinatutako Gipuzkoako paisaia-lorategi bikainenetariko bat. Euskal

nobleziaren XIX. mendeko lorategien adibide paregabea da Errekalde jauregiko lorategia.

Orain, exekuzio proiektua

Hori guztia kontuan izanda, orain proiektuaren idazketa esleitzea ere erabaki du Udalak eta enpresa berari esleitu diote, Naiara Corcuera Udaleko Ingurumen teknikariak azaldu duenez: "Udalak bat egin du Citereak azterlanean ondorioztatu duenarekin eta horregatik erabaki da lorategia eraberritzeko exekuzio proiektuaren idazketa ere hari esleitzea. Dena den, proiektua idazteak ez du esan nahi zaharberitzea orain egingo denik. Oraingo, ez da interbentziarik planteatzen. Baina egitea pentsatzen denerako, proiektua eginda egongo da eta lan guztiak proiektu horretan jasotzen denaren arabera egingo dira", azpimarratu du Ingurumen teknikariak.

Testuinguru oparoan sortuak

Bergararen aberastasun monumentalak bere historiaren bitartez azaltzen da. Hiria joan zen antolatzen ingurunearen geografiaren eta hidrologiaren arabera: bailaran kolonizazioa dentsuagoa izan zen eta maila altuagoetan sakabanatuagoa.

Burdina eraldatzeko tailerrek eta gari merkatuak merkataritza-gune bilakatu zuten herria XVI. mendean eta noble, aberats eta pertsonaia garrantzitsuek euren etxebizitza eta jauregiak eraiki zituzten. XIX. mendean barrena, paisaiarekin lotutako joera eta korrante berriak iritsiko dira eta lorategigintza publikoa asko garrantzitsuenak.

Eta horren lagungarri izan zen garaiko testuinguru sozio-ekonomikoa. Herriko noblezia

NAIARA CORCUERA | UDALEKO INGURUMEN TEKNIKARIA

"Mantentze-lan guztiak esleitu berri den proiektuaren arabera egingo dira"

Zergatik halako interesa Errotalderekin?

XIX. mendeko nobleziak egin zuen lorategien adibide delako eta eraldatzeko mantentzen delako; degradatuta dago, baina aldatzeko.

Proiektuaren idazketa esleitu du Udalak, baina, oraingo, ez da hobekuntzarik egingo; noiz egingo dira?

Ez, oraingo exekuzio proiektua idatzi bakarrik egingo da. Hobekuntza sakona dirua dagoenean egingo da. Hala ere, proiektua idaztea garrantzitsua da, aurrerantzean egingo diren mantentze-lanak proiektuan jasotakoaren arabera egingo direlako.



M.B.

inguruan bazutela egoteko leku bat, eta han beste pertsona batzuekin erlazionatzen zirela, gogoetarako leku zirela... Bestalde, oso ondo diseinatutako lekuak dira, modernoak, eta jauregiak besteko balioa dute.



Lorategiak inguratu egiten du Errekalde jauregia. | M.B.



Berotegia zenaren arrastoak. | N.C.



Ortu izandako parterre egiturak. | N.C.

goi-aristokraziarekin ahaidetu zen eta industrializazioak ere besteak beste, nekazaritzaren eta industriaren garapenean lagundu zuen.

Testuinguru oparo horretan, lorategia jauregi izaerako etxeko

arkitekturaren oinarriko elementu bilakatuko da eta horrek egingo du Bergarak gaur egun interes paisajistiko edo historiko handiko gune berdeen sistema orokorrean inskribatutako lau parke edukitzea.

Eta horrek bereiztu egiten du Bergara beste herrietatik. Garai hartatik nabarmentzekoak dira, baita ere, erdigunean dauden etxeko ortuak eta errenkadan eraikitako etxebizitzaren ostetako lorategi txikiak.

Villafrancako X. kondea egile

Villafrancako X. kondea har daiteke Errekalderen transformazio nagusitzat, hark egin zituelako finkaren historian egin diren proiektu eta obra nagusiak. Lekuari garaietara egokitutako aire berria eman nahi izan zion, eta, ondorioz, haren sensibilitate eta kezkek egin dute Errekalde jauregiak estilo ingeleseko lorategia izatea, garai hartan modan zegoen lorategien diseinua jarraituz.

1840 eta 1882. urte bitartean jauregiaren inguruetan aldaketa handiak egon ziren eta adituek uste dute Villafrancako X. kon-



Kotxe-tokia jauregiaren ostean dago. | NAIARA CORCUERA



60 metro inguruko ura hartzeko galeria sistemako bi irudi. | N.C.



Ura hartzeko 5 metroko galeria. | N.C.



Lourdesko Ama Birjina duen haitzulo faltsua. | N.C.

dea izan zela 1958a aurretik egindako goiko lorategien arduraduna eta baita ere 1869. urtea ezkerre egindako handitze eta edertze lanena. Mariano Jose de Laskurain arkitekto neoklasikoarekin harreman handia zuen eta elkarrekin hainbat proiektu egin zituzten. Hain justu, Mariano Jose de Laskurainek eta haren kolaboratzaile izan ziren Carlos Uriartek eta Jose Domingo de Jausorok egin zituzten XIX. mendeko bigarren erdialdeko hainbat lan lorategian.

Egindako lanetako batzuk obra garrantzitsuak izan ziren; sistema hidrauliko konplexua, esaterako. Sistema horretan aipatzekoa da, besteak beste, ureztatzeko azpiegitura –seguruenik XIX. mende bukaerakoa–; garai hartarako modernotasunaren adierazgarri azpimarragarria.

Lorategiko bestelako elementu arkitektonikoak ere –eskailek, bidexkak, hormak, hormatxoak...– kalitate handikoak dira. Elementuon artean azpimarratzekoa da Lourdesko Ama Birjinadun haitzulo faltsua; garai hartako lorategietan ezinbesteko apaingarri zena.

Lorategiko landaredia

Lorategiaren erdialdean landaredia dago. Zuhaiak eta tamaina txikiko beste hainbat landare gaur egun desagertuta dauden arren, XIX. mendeko azken herenean erabiltzen ziren espezieetako asko

oraindik ere han aurki daitezke. Horetako gehienak, gainera, garai bereko herriko beste lorategi batzuetan ere aurki daitezke, hala nola Irizar jauregiakoan eta Untzeta jauregiakoan. Citerea estudioak egindako azterketak jasotzen duenez, ondare-kalitate handiko zuhaitz multzo hori da lorategiaren bereizgarrietako bat, eta osotasun maila handia ematen dio multzoari.

23 espezieetako 100 zuhaitz daude lorategian; besteak beste, sekuoiak, Jupiter zuhaitzak, zedroak, altzifreak, eta pagoak. Zuhaiak kasuan, 12 espezieetako 62 daude, asko Japoniakoak.

Bukatzeko, dio 1868ko diseinu originalak urtetan barrena hainbat aldaketa izan dituen arren, seguruenik XX. mende hasieran, lorategiko hainbat elementuren desagertzeak –berotegia, urmaela, pergolak eta beste batzuk–, egindako azterketa arkeologikoen erakutsi dutela gutxi mugituta lursailak direla, eta lorategi originalean eraldaketa gutxi egon direla. Hain justu ere, urtetako belar eta landaredia pilaketaren azpian daudela dio azterketak.

Villafrancako X. kondeak egin zituen lorategiko proiektu eta obra nagusiak

Exekuzio proiektua ere esleitu dute, nahiz eta lanik oraindik ez duten egingo

Aldundiak ez du trukea aurreratuko

Hala adierazi zuen Kultura diputatu Aranburuk Batzar Nagusietan egindako agerraldian

M.B. | BERGARA

"Diputazioak ez du asmorik Seminario-Arrizuriaga trukearen inguruan Batzar Nagusiek agindutakoa betetzeko", aurreratu du Aralarrek eta kritikatu egin Hipuzkoako diputazioaren jokatzea auzi honetan.

Hain justu, ekainaren 24an Batzar Nagusiek ebazpen bat onartu zuten Seminarioaren eta Arrizuriagaren arteko trukearen aldeko erabakia 2010eko irailaren 10a aurretik har zezan Aldundiak, modu horretan, Bergarako UNEDen egoitza Arrizuriaga jauregian kokatu ahal izateko. Bergarako Udalaren eskaria aintzat hartuta bideratu zuten hori.

Ebazpen horren betearazpena zertan zen jakiteko agerraldia eskatu zuen Aralarrek Gipuzkoako Batzar Nagusietan, eta

Maria Jesus Aranburu Kultura eta Euskara diputatuak aurreko astean egin zuen agerraldia. Han, erabakia beteko zuen edo ez galdetu zion Aranbururi Aralarreko eledun Rebea Uberak, eta, hark esan duenez: "Batzordearen aurrean argi eta garbi utzi zuen Aranburuk Diputazioak ez duela inongo asmorik Batzar Nagusietan hartutako erabakia betetzeko". Eta gehitu du: "Aranburuk erantzunean nabarmendu zuen Seminarioan inbertsioak egin dituztela eta orain guztiak pozik daudela".

Horrekin, honakoa ere kritikatu du Uberak: "Permuta egiteko orduan eragozpen nagusia kostu ekonomikoa zela esan zitzaigun eta orain, aldez, milioi bat euro inguruko inbertsioa egiteko arazorik ez dute izan".

OHARRAK

GAZTETXOENDAKO TAILERRAK GABONETARAKO

Udaleko Gazteria Sailak antolatutako eta abenduaren 27an hasi eta urtarrilaren 7ra arte sei tailer egongo dira: sexologia, automakillajea, zirku teknikak, barreterapia, euskal dantzak eta dantza eta barreterapia. Doan izango dira Mubiben jarriko dute karpan, 17:00etatik 20:00etara. Izenematea zabalik dago kultura etxean.

UDALAK 2011KO EGUTEGIA KALERATU DU

Etxe, komertzio eta taberna guztietara bidaltzeko ahalegina egingo dute, baina jasotzen ez duenak Udaltzaingoa eska dezake.

HILAREN 25EAN ITXITA EGONGO DA AGORROSIN

Abenduan egun bakarrean itxiko dute: Gabon egunean, hain justu ere.

TXALOAK ETA TXISTUAK



MONIKA BELASTEGI

Kableak kentzeko eskaria

Irakurle batek Martoko auzoaren gaineko txistua helarazi digu. San Antonio eta Martoko arteko pasealekua oso txukun jarri dutela esan du, baina bi gunetan argiteria zaharraren kableak bistan laga dituztela. Hirigintza Zerbitzuan galdetuta, argindarrak ez dutela erantzun diote. "Bada, zergatik ez dituzte kentzen?", dio irakurleak. Hari, arrakatsa iruditzen zaizkio.

Dirulaguntza, azokan produktuak saltzen dituzten baserritarrendako

Postua ipintzen duten zapatu bakoitzeko 50 euro jasoko dituzte herriko baserritarrek

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Merkatu plazako azoka indartzeko eta lehen sektorea bultzatzeko eta laguntzeko helburuarekin baserritarrei dirulaguntzak emateko ordenantza onartu du Udalak. Hori horrela, ordenantzaren zehaztutako baldintzak betetzen dituzten baserritarrek 50 euroko laguntza jasoko dute produktuak saltzen dituzten zapatu bakoitzagatik. "Laguntza eskertuko dugu, bai horixe! Baina azoka berpizteko askoz gehiago egin beharko dugu, bestela...", diote zapatuetan postua ipintzen duten Nieves Izurrategi, Felix Azkargorta eta Jose Mari Lizarralde oñatiarrek.

Eskaera hiru hilean behin

Udalak emango duen laguntza zuzena jaso gura duten baserritarrek eskaera-orria bete beharko dute 2011 hasieran Nekazaritza Saileko bulegoan. Ondoren, hiru hilean behin, hau da, apirilean, uztailean, urrian eta urtarilean dirulaguntza eskaera zehatza aurkeztu beharko dute. Hain zuzen ere, udal ordezkariak zapatu bakoitzean sinatuko dieten agiria aurkeztu beharko dute. Agiri bakoitzeko, hau da, postua ipini duten zapatu bakoitzeko 50 euro jasoko dituzte.

Baldintzak

Dirulaguntza jaso gura dutenek bi baldintza bete beharko dituzte: alde batetik, eskaera egin baino lehen Oñatin erroldatua egon beharko dute eta nekazaritza-ustiatzaria Oñatin inskribatua izan beharko dute; beste alde batetik, ustiatzari bakoitzeko onuradun bakarrak egin ahalko du eskaera.



Bestalde, baserritarren betebeharrak hauek dira: fruta eta barazkietan, garaian garaiko hiru produktu saldu beharko dituzte. Bestelako produktuetan (gazta, ogia, ezti...) ez dago gutxienez. Gainera, hiruhileko bakoitzean, gutxienez, lau zapatutan egon beharko dute azokan.



Herritarrek bakailoa erosten merkatu plazako azokan hilaren 11n. | MIREIA BIKUÑA



ITXASO ELKORORIBE ETA NIEVES IZURRATEGI
BASERRITARRAK

"Etxeko ortuan landatzen ditudanek ekartzen ditugu. Urte asko dira merkatura gatozena, bezero fidelak ditugu, eta oso onak, gainera. Udalaren laguntza asko eskertuko dugu, baina merkaturako giroa hiltzen doa apurka, eta beste zerbait egin beharko genuke. Santa Marinaran ipintzen dituzten arropa saltokiak plazako frontoira ekarriko balituzte, agian. Bestela, jende gutxi ibiltzen da zapatuetan, eta neguak oso gogorrak dira hotzarekin".



FELIX AZKARGORTA
BASERRITARRA

"Eskertuko dugu dirulaguntza, baina merkaturako biziberritzeko erosleak behar ditugu. Orain beste ohitura batzuk ditugu erosketak egiteko orduan, eta azokak hiltzen doaz. Nik sagarrak ekartzen ditut".



JOSE MARI LIZARRALDE
BASERRITARRA

"Orain dela 25 urte hasi zen ama gazta saltzen, eta orain ni nator. Baina, batzuetan, ez du merezi azokara etortzerik. Gutxi saltzen dugu eta neguak oso gogorrak izaten dira. Erosleak behar ditugu, baina ohiturak asko aldatu dira".

Argazki onenak saritu dituzte

Aloña Mendiko mendi taldeak argazki lehiaketako sariak banatu zituen egubakoitzean. Josu Garaik, Jose Mari Lllavorik, Julian Gilek, Jose Ramon Txintxurretak, Iñaki Idigorasek, Jokin Astigarragak eta Javier Pedro Ferrerasesk jaso zuten saria. Ondoren erakusketa zabaldu zuten. Urtarrilaren 2ra arte ikus daiteke kultura etxean.



JULIO CALLEJA

OHARRAK

SALMENTA

Oñatiko Margo Taldeko ikasleek eurek egindako margolanak ipiniko dituzte salgai hilaren 23an, egunean, ACOES elkartearekin batera. Plazako arkupeetan egongo dira, 11:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

HITZALDIA

Exoplanetas, en busca de nuevos mundos delako hitzaldia egingo dute hilaren 28an kultura etxeko zinema-aretoan 19:00etan. Ilatzgi astronomia taldeak antolatutako hitzaldian, Institut De Ciencies I'Espaiko kide Ane Garces izango da hizlaria.



Otsaila irudikatzen jarri duten argazkia: Durana kalearen atzeko partea, elurtuta. | MANOLO URTUBI

ARETXABALETA

Manolo Urtubiren argazkiekin egin dute 2011ko udal egutegia

Aretxabaleako kaleak eta baserri inguruak dira protagonista

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Egunotan banatu dute 2011ko udal egutegia etxe guztietara –Arkupen ere badauzkate–. Argazki Artxiboak egiten duen egutegia da eta bertako kide Manolo Urtu-

biren argazkiekin osatu dute. Urtubik berak aukeratu ditu argazkiok eta protagonista Aretxabaleta izatea gura izan du. Hala, herriko bazterrak –kanpandorra, Herriko Plaza, kaleak...–

inguruko hainbat auzo –Galartza, Urkulu ingurua...– eta paisaia aukeratu ditu eta urtaroren arabera antolatu. Hori bai, abuztuan hondartzako argazkia sartu du "oso gustuko" duelako.

ARETXABALETA

Gernikako Akordioaren berri ematen

Gernikako Akordioari babesa eman dioten eragileak herritarrei argibideak ematen ibili ziren egubakoitz iluntzean, Durana kalean. Aurretik, martitzenean, batzarra egin zuten hainbat elkartetako ordezkari eta eragileekin, akordioak dioena sozializatzeko asmoarekin.



M.A.

ARETXABALETA

Aretxabaleta inguruko Topogida aurkeztuko dute eguenean

Naturgintza Fundazioak Aretxabaleta aisialdiko lehenengo Topogida egin du Udalak eskatuta. Datorren eguenean, hilak 23, aurkeztuko dute Arkupe kultura etxean (19:00). Herria ezagutzeko ezinbesteko tresna bihurtuko dela asteen aurkeztuko duten gida-liburuxka hori esan dute egileek: "Aretxabaleta inguruko bidezidorrak ezagutzeko, mendi bueltak egiteko, mendiko bizikle-

taz ibiltzeko edo BTT zirkuitua egiteko aukera paregabea eskaintzen duelako".

Topogidak ibilbideetako balio teknikoak eta norabidea zuzentzeko informazioa ematen du. Guztira oinez egiteko sei ibilbide, BTT zirkuitu bat eta zazpi mendi gailurretara igotzeko argibideak jaso dituzte. 2.200 ale jarriko dituzte salgai eta urtarilaren 7a arte debalde banatuko dituzte.

ARETXABALETA

Bilboko parkera eta izotz pistara joateko izenemateak bukatzeaz

Gazteria Zerbitzuak antolatuta, 7 eta 12 urte arteko gaztetxoek Bilboko jolasparkera joateko aukera dute hilaren 23an eta Gasteizko izotz pistara hilaren 28an. Izena emateko epea bihar, hilak 21, bukatuko da. Interesatuok Algara ludotekara jo dezatela. Irteera bakoitza 10 euro da.

4 eta 6 urte artekoak, ostera, Eskoriatzako parkera joango dira hilaren 29an.

Bizkaiko karate txapelketan hirugarrena izan da Oxel Vazquez

UDAKo karate taldeko kideak hainbat txapelketa jokatzeko dabilta azken asteotan eta Bizkaiko VIII. kopan hiru lagun izan ziren: Iker Hervas –kata, kadete mailan–, Odei Vazquez –kumite, helduen mailan– eta Oxel Vazquez –kumite, haurren mailan–. Azken horrek hirugarren postua eskuratu zuen.

Bestalde, egunotan Lezon jokatu dute Gabonetako txapelketan herriko hamaika karate jokalaririk izango dira.

Ezohiko osoko bilkura dago gaur, hiltegiaren gainean jarduteko

Zubillagako hiltegiaren gaineko erabakia hartuko du udalbatzak gaur (18:00). Horrekin batera, Tubos lantegia egondako alderdiaren aldaketa eta Kurtzebarri eskolaren handitze prozesua behin-behinean onartuko dituzte. Bestalde, Irurikoa baserria turismo kontuetarako esleitzeko oinarriak aztertuko dituzte, egindako deialdira ez delako inor agertu.

ESKORIATZA

Santa Marinako etxeak zozketatzeko oinarriak onartuko dituzte bihar

Gaztañaduiko bi lokal etxe bihurtu ostean emateko oinarriak ere onartuko ditu udalbatzak

M.A. | ESKORIATZA

Ezohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak bihar, hilak 21, (18:30). Gai zerrenda luzea dute eztabaidatzeko –hamaika puntu–, tartean etxebizitza kontuak. Batetik, Santa Marina auzoko etxe tasatuak esleitzeko oinarriak onartuko dituzte. Etxe tasatu horiek Visesa dabil erakitzen eta laster bukatuko dituzte lanok. 2007an egin zuten 32 etxeren zozketa, baina gero hainbat lagun atzera bota ziren eta herenak oraindik ez dauka jaberik. Etxebide eta Udalaren artean bideratuko dute esleipenaren kontua eta zozketa zelan egin onartuko dute bihar-ko bilkuran.

Bestetik, Gaztañadui kaleko 27. atarteko bi lokal –Promo-

ciones Gaztañadui sustatuta– etxe bihurtzea erabaki du Udalak. Etxe horiek ere tasatuak izango dira eta esleipenaren gaineko oinarriak onartuko dituzte bihar.

Hiltegiaren gaineko erabakia

Horiekin batera hiltegiaren gaineko erabakia eztabaidatu dute, Zubillaga Hiltegia SL eratzearen gainekoa. Etxerik etxe laguntza zerbitzua eta hainbat udal eraikin garbitzeko zerbitzua zeini eman ere erabakiko dute.

Gainera, espetxean senideren bat dutenendako garraiorako banakako dirulaguntzak arautzen dituen oinarrien gainean jardungo dute udalbatzako kideek.



Santa Marinaran egiten dabilten etxeak. | MIRIAN BITERI

OHARRAK

GABON MARRAZKIAK

Eguaztenean, hilak 22, Gabonetako marrazkiak egingo dituzte 4 eta 12 urte bitarteko umeek pilotalekuan (19:00). Jarraian, txokolate-jana egongo da partaide guztiendako.

TXISTORRA-JANA

Erretiratuek txistorra-jana izan-

go dute eguaztenean, hilak 22, Olazarren (18:30).

BILBOKO PARKERA IRTEERA

Gazteria Zerbitzuak antolatuta, Bilboko jolasparkera joango dira eguenean, hilaren 23an, 7 eta 12 urte artekoak. Izena aurrez eman behar da ludotekan, 10 euro ordainduta.

ELGETA

Eguenean jaitsiko da Olentzero herrira eta umeak 11:00etan irtengo dira bila

Lantalde berri baten ekimenez, ekintza ugari osatzen dute aurten Gabonetako egitaraua; umeen pilota txapelketa hasita dago

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udalak, ludotekako eta gaztelekuo hezitzaileek, jaioberria den Txirikil aisialdi taldeko kideek, Maala Guraso Elkarteak eta musika irakasleak osatzen dute aurten Gabonetako egitaraua prestatzen lagundu duen lantaldea.

Berrikuntzen artean, Mari Domingiren ipuin kontaketa, euskal dantzen tailerra, film emanaldia, txotxongilo ikuskizuna, gaztetxoendako disko festa eta sormen erakustaldia nabarmentzen dira.

Gabon egunean kantuan irteko entseguak ere egin dituzte egunotan. Eguenean egin zuten azkena, Adolfo Jainagarekin.



Olentzero, iaz, Herriko Plazan. | LZ

Musika ikasleen emanaldia
Lanpetuta dabilta herriko musika ikasleak. Olentzeroren etorraren aurretik Gabon kantuak

abestu behar dituzte plazan, eta hilaren 30ean emanaldia egingo dute Espaloian. 18 bat musika ikaslek egingo dute saioa.

GABONAK 2010 - EGITARAUA

ABENDUAK 23, EGUENA

11:00 Intxortara irteera. Mari Domingi eta Olentzeroren bila. Mari Domingiren eskutik ipuinak entzuteko aukera egongo da. Irteera Herriko Plazatik.

17:00 Txokolate-jana. Herriko musikari txikiaren Gabonetako kantuekin alaituta. Herriko Plazan.

18:30 Olentzeroren jaitsiera eta ongietorria.

ABENDUAK 24, BARIKUA

11:00 Gabon kantuak. Etxez etxe abestuko dituzte, Herriko Plazatik abiatuta.

12:30 Salda eta txorizoa, Herriko Plazan.

ABENDUAK 27, ASTELEHENA

11:00 Umeen Gabonetako pilota txapelketa.

16:00 Puzgarriak umeendako,

Udal Pilotalekuan. Sarrerak salgai Julianen kioskoan. Puzgarriak 19:00ak arte.

ABENDUAK 28, MARTITZENA

16:00 Jolasak eta tailerrak, Udal Pilotalekuan. 19:00ak arte.

ABENDUAK 29, EGUAZTENA

16:00 Euskal dantzak haurrendako eta helduendako. Udal Pilotalekuan, 19:00ak arte.

ABENDUAK 30, EGUENA

16:00 Film emanaldia, Espaloian. Haurrendako eta gaztetxoendako.

17:30 Txokolate-jana, Espaloian.

19:30 Musika ikasleen emanaldia, Espaloian.

21:00 Disko festa eta karaokea, gimnasioan. 10 urtetik gorako gazteendako.

ABENDUAK 31, BARIKUA

10:00 Umeen Gabonetako pilota txapelketa, frontoian. Finalak.

Egurdian Nagusien Gabonetako pilota txapelketa. Finalak. Ordua zehazteko dago.

17:00 Txotxongilo ikuskizuna, ludotekan. *Hiru, bi, zast... egizu jolas!* izeneko antzezlan. 3-8 urte bitarteko umeendako.

URTARRILAK 3, ASTELEHENA

11:00 Skate saioa. Erakustaldia eta ikastaroa. 5 urtetik gorako umeendako. Plaza mugatuak. Izena ematea ezinbestekoa da. Epea: abenduaren 23a. Eguraldi onarekin skate pista egingo da; txarrarekin, berriz, Espaloian.

URTARRILAK 5, EGUAZTENA

12:00 Sorkuntza tailerra, Espaloian. Gabonetan egindakoa erakutsiko dute haurrek eta gazteek.

ARAMAIO

Bainuetxeetara joateko izenematea urtarrilaren 17ra arte, udaletxean

Erretiratuen egonaldien lehenbiziko txanda otsail eta abuztu bitartean izango da

EDU MENDIBIL | ARAMAIO

Udalak aditzera eman duenez, bainuetxeetara joateko irteeren lehen txanda otsail eta abuztu bitartean izango da eta eskaerak aurkezteko epea urtarrilaren 17ra arte dago zabalik udaletxean. Erretiro eta ezintasuna dela eta pentsiodun direnek baldintzarik gabe joateko aukera dute. Alarguntza edo bestelakoengatik pentsiodun direnen kasuan, berriz, 60 urtetik gorakoak izatea derrigorrezkoa da. Eskaera egiteko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren udaletxeko bulegora jo besterik ez duzue. Argibide gehiago udaletxean, 945 44 50 16 zenbakian.

Bigarren txanda 2011ko irailetik abendura bitartean izango

da eta izenematea maiatzaren 16ra arte izango da zabalik.

Aramaixo Ekimena gaur

Gaur, astelehena, Aramaixo Ekimeneko batzarra izango da udaletxeko osoko bilkuren artoan, 19:00etan. Ekimenari egitura juridikoa ematea da helburua, eta, hori dela eta, gaurko batzarrean eragile eta talde guztiei parte hartzeko dei egin diete.

Alaiak: Gabonetako Loteria

Alaiak erretiratuen elkarteak aditzera eman duenez, abenduaren 22ko Gabonetako Loterian elkarte bakoitzak 3 euro jokatzeko dituzten zenbaki honekin: 66.304.



Bainuetxeetako egonaldien bigarren txanda 2011ko irailean hasiko da. | GOIENA

LEINTZ GATZAGA

Berbaldia, lehiaketa eta kantuak Gurelekin

Ekudortik etorritako Martzelok bizipenen berri emango die bihar umei eta gurasoei

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Berbaldia antolatu du Gurelekin elkarteak biharko, ludotekan (19:00). Ekuadortik etorritako bizilagun batek -Martzelok- bizitako esperientziaren gainean jardungo du herritarren aurrean: etorreraren arrazoiak, hemen egindako harrera... Lehenengo, aurkezpen txiki bat egingo du eta gero, galderei erantzungo die.

Olentzeroren etorrera

Eta hasita daude Gureleko kideak Gabonetako lantzen. Hala, aste osoan ibili dira ludotekan Gabon kantuak ikasten eta herriko bazterrak dotore apaindu dituzte euskal mitologiarekin zerikusia duten pertsonaiekin. Apaindu bakarrik ez, pertsonaia horien gaineko argibideak eman dizkiete ludo-

tekan, eta orain lehiaketa jarri dute abian. Bost galdera erantzun beharko dituzte herritarrek -erantzunen kutxa Labidea denda dago- eta erantzun zuzenean zozketa egingo dute Gabon egunean, Olentzero datorrenean.

Urtero legez, etxez etxe ibiliko dira kantuan abenduaren 24an Gureleko kideak. Gero, Toki Eder elkartearen bazkalduko dute eta bazkalostean Olentzero etorriko da umeen gutunak jasotzera.

Opor egunetako ekitaldiak

Gabonetako opor egunetan, osteran, hainbat ekintza egiteko asmoa dute: Gasteizera zinemara joan autobusean; guraso eta umeen arteko frontenis txapelketa; eta, elurra eginez gero, Valdezcarayra eskiatzera.

ANTZUOLA

Joskintza eta argazkilaritza ikastaroak antolatu dituzte

Joskintza ikastaroan izena emateko azken eguna urtarrilaren 4a izango da

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Oinarrizko joskintza ikastaroa eta argazkilaritza digital eta Photoshop ikastaroak antolatu dituzte urte berrirako. Antzuolako Udalak eta Bizikasik antolatu dituzte ikastaroak.

Joskintza ikastaroa konponketa txikiak egiten ikasi nahi dutenei zuzenduta dago: besteak beste, parte hartuko dutenek

ikasiko dute barrenak hartzen, kremaileak josten eta konponketak egiten...

Itsaso del Reyk emango du ikastaroa, eta urtarrilaren 10etik martxoaren 14ra izango da, astelehenera, 18:30etik 20:30era, Olaranen. Ikastaroaren prezioa 15 euro da eta izena emateko azken eguna urtarrilaren 4a izango da, martitzena.

Argazkilaritza digitala

Juanje Amasorain izango da argazkilaritza digital eta Photoshop ikastaroko irakaslea. Otsailaren 1etik apirilaren 12ra egingo dute ikastaroa, martitzenetan, Herri Eskolan. Martitzenetan 18:00etatik 20:00etara izango da ikastaroa.

Kultura Saileko arduradunek adierazi dute donori zuzendutako ikastaroa dela, baina izena emateko lehentasuna antzuolarrak izango dutela. Ikastaroaren prezioa da 15 euro da.

Argazkilaritza ikastaroan izena emateko azken eguna urtarrilaren 25a izango da. Informazio gehiago, 943 76 62 46 zenbakian edo kultura@antzuola.net helbidean.



PAULANER
Bierhaus

Zuretzako prestatu dugun
karta berria


Ikusi...

Maitatuko duzu!

Talde menu berriak
pertsonako 8,5 €-tik hasita

4 pertsonarentzako menua: alemaniar-taula zabala,
kartiffelsalat, 3 saldako Töstia, saltxitxa barietatea patata
frijituekin, aza entsalada, ukondo zaku txikiapatata
krema gainean duela.

Zure talde menuarekin
garagardo erronda 1
DOAN*



Paulaner Bierhaus
Aretxabaleta
Herriko Plaza, 8
20550 Aretxabaleta
Gipuzkoa

SANTAMAS KROSA

Beñat Arnaiz aretxabaletarra eta Estela Biain oñatiarra azkarrenak

162 nagusik eta 67 gaztetxok hartu dute parte Santamas krosean

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Bakarrrik egin zuen ia lasterketa guztia Beñat Arnaiz aretxabaletarrak. Berehala atera zien distantzia bigarren eta hirugarrenari, eta eroso irabazi zuen Santamas krosa. 21 minutu eta 49 segundotan egin zituen herri barruko zirkuituak zituen sei mila eta 400 metroak. Bigarrena 50 segundotara sartu zen, eta hirugarrena, 54ra.


Guztira 162 lagunek hartu zuten parte nagusien lasterketan, eta 152k bukatu zuten. Aurreko urteetan bezala, lagun giroan, koadrilan, egin zuten askok lasterketa, eta ez zuten animazio faltarik izan ibilbide osoan. Aste barruan udaltzain, administrari, publizista, irakasle edo kirol teknikari lanetan ibiltzen direnak ere korrika ikusi genituen domeka goizean. Garibain izan zen ezusteko bakarra. Autobus bat geralekutik ateratzen hasi zen, korrikalariak zetoze konturatu barik, eta lasterkariak eurek esan zioten gelditzeko, oihu eginez eta eskuekin autobusa kolpatuz.

'Eutsi korrikalari'

Estela Biain oñatiarra izan zen nagusien lasterketako lehen emakumea helmugan sartzen. Beteranoetako trofeoak, berriz, Jabier Irazabal eta Ane Zabalak irabazi zituzten. Eta koadrilendako sariak ere izan dira aurten. Mutilen kategorian, *Antxintxiketan*, *Korrikalari* eta *Beti Gazte* lagunarteek irabazi zituzten bildotsa, untxia eta oilaskoak, hurrenez hurren. Emakumeenetan, berriz, *Eutsi korrikalari*, *Beti Gazte* eta *Mabel* koadrilendako izan ziren sariak.



Beñat Arnaiz aretxabaletarra helmugan sartzen. | JULIO CALLEJA



BEÑAT ARNAIZ
ARETXABALETA

"Atzetik zetozen biak ezagutzen nituen eta jarraituko zidatela pentsatu dut, baina atzean gelditu direla ikusi dudanean nire martxa hartu dut eta bakarrrik egin dut ia lasterketa osoa. Jende askok hartu du parte eta giro ona egon da".



ESTELA BIAIN
OÑATI

"Beste neska baten ondoan egin ditut lehen hiru bueltak eta laugarrena gogorra egin zait. Ez dut kronometrorik ekarri eta ez dakit ze denbora egin dudana, baina topera ibili naiz eta gustura gelditu naiz egindakoarekin".



JON MIKEL LARRAÑAGA
OÑATI

"Ez nekien lasterketa hau zegoenik, goizean eman dit horren berri lagun batek eta konbentzitu egin nau. Biok etorri gara. Distantzia luzeagoko lasterketak egin izan ditut, eta hau oso azkarra iruditu zait, esplosiboa".



MARIJE VELASCO
ARRASATE

"Lasterketa azkarra izan da eta beste korrikalariak kutsatuta, ni ere azkar joan naiz hasieran, eta lehertu egin naiz. Hala ere gustura nago. Jende askok animatu nau, txalo asko entzun ditut, eta pozik nago".



DANIEL MARTINEZ
ARRASATE

"11-12 urtekoen lasterketan hartu dut nik parte. Hasieran hankarekin gaizki zapaldu dut, eta min hartu dut, baina aurrera egin dut eta lasterketa irabazi dut azkenean. Pozik nago. Gogorrena bukaerako esprinta izan da".



Abenduaren 2tik 2011ko urtarrilaren 5era arte

Oparitu Ametsak



EASYNOTE  **TJ66-AU 460SP**

- Barruko kolorea zuria eta kanpoko beltza
- Windows 7 Home
- Premiun 64 bit
- Intel T4500 prozesagailua
- Memoria: 4 GB
- Disko gogorra: 320 Gb
- Pantaila: 16,5"
- Webcamera
- Wi-fia

479€

ZIKLO-KROSA

Alex Aranburu, Sergio Sordo eta Mikel Aristi azkarrenak Oñatin

- ▶ Kadete, master eta gazte mailako lasterketak irabazi zituzten San Martingo zuhaitzian
- ▶ Zale mordoa batu zen ibilbidean zehar eta, batez ere, etxeko ziklistak animatu zituzten

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Alex Aranburu (kadete maila), Mikel Aristi (gazte maila) eta Sergio Sordo (master) izan ziren azkarrenak Oñatiko ziklo-krosean, zapatuan. Guztira, 72 ziklista ipini ziren bizikleta gainean, San Martingo ibilbideari aurre egiteko asmoz.

Lehenak, kadeteak

"Ibilbide teknikoak, gogorra eta lokaztua". Hiru adjektibo horiek erabili zituzten kadete, gazte eta master mailako irabazleek ibilbidea definitzeko. Erroka handia zuten aurretik, baina fin ibili ziren.

10:00etan puntuan abiatu zuten lehen lasterketa. 18 ziklista zeuden irteera puntuan 30 minutuko lasterketa egiteko gertu. Hasi eta segidan Alex Aranburu eta Patxi Aldanondo aurreratu ziren. Lehen metroak asfalto gainean egin ondoren, Murgialdai baserrira heldu aurretik zelaian sartu ziren. Lehenengo, aldapa behera -a ze abiadura hartzen zuten lehen aldapan- eta ondoren, bizikleta sorbaldan hartuta, aldapa gora. Azken metroak San Martin zuhaitzian egin zituzten. Bost itzuli egin zituzten kadeteek eta Beasaingo

bi ziklistek agindu zuten proba. Atzean hiruko talde bat (Iñaki Markinez, Gorka Uriarte eta Iker Alberdi oñatiarra) hirugarren postuagatik lehiatu zen. "Ibilbide polita da, teknikoak. Uste baino errazago irabazi dut. Oso pozik nago", esan zigun Alex Aranburuk helmugan.

Probarik parekatuena

Kadete mailako ziklistak lehiatu zeuden bitartean, beroketak egin zituzten gazte mailakoek. Irteeran 20 txirrindulari zeuden. Duda barik, eguneko karrerarik politena izan zen. Mikel Aristi bergararrak eta Jonathan Bilbaok egundoko lehia izan zuten. Asfalto utzi eta zelaian sartu orduko buruan jarri ziren, eta leku horietan mantendu ziren probak iraun zituen 40 minutuetan. Bizikleta gainean azkarragoa zen Aristi, baina, aldapa gora, korrika eta bizikleta sorbaldan, indar handiagoa erakutsi zuen Bilbaok. "Punta-puntako ziklistak dituk. A ze izterrak dituzten", esaten zuten ibilbidean zeuden ikusleek. Berdintasuna izan zen nagusi azken itzulira arte. Orduan, lokatza pilatu zitzaion Bilbaori aurreko erruberran, eta Aristik aurre-

SAILKAPENA

KADETEAK

1. Alex Aranburu
2. Patxi Aldanondo
3. Iñaki Markinez

GAZTEAK

1. Mikel Aristi
2. Jonathan Bilbao
3. Xabier Goikoetxea

MASTER 30

1. Sergio Sordo
2. Andoni Dominguez
3. Lander Peña

MASTER 40

1. Rafa Ruiz de Arkaute
2. Iban Santurde
3. Roberto Zugasti

MASTER 50

1. Ramon Gartzia

ITURRIA: ALOÑA MENDI TXIRRINDULARITZA



Jonathan Bilbao gazte mailako txirrindularia bizikleta sorbaldan duela. Atzetik, Mikel Aristi

ra egin zuen. Helmugan sartu zen 30 segundo aurretik. Bukar-ran Aristik aitortu zigun ez zuela irabaztea espero: "Niretzako denboraldiko lehen proba da, eta ezustekoa izan da. Gainerako txirrindulariak askoz hobeto egongo zirela uste nuen".

Masterretan Sergio Sordo

Azken proba master mailako ziklistek egin zuten. Elite mailako faltan, eurek ziren maila handiena erakutsi behar zutenak. 34 txirrindulari eman zuten izena; tartean, Euskadiko txapel-dun Xabier Mendaratz eta azpi txapel-dun Manuel Gutierrez Taler zeuden.

Ordurako oso lokaztua zegoen ibilbidea, eta eroriko batzuk egon ziren.

Master mailako lasterketa hasieratik bukaerara menderatu zuen Sergio Sordo kantabriarrak. Ez zuen areriorik izan. Rafa Ruiz

de Arkautek eta Iban Santurdek lehenengo itzulian jarraitu zuten Sordoren erritimoa. Dena den, kantabriarra oso erregularra izan zen, eta arazo barik irabazi zuen. "Ibilbide teknikoak da, eta hala-koetan hobe da aurreko postuetan joatea, erorikoak badaude ere", esan zigun Sergio Sordok sari banaketa hasi aurretik. Gustura jaso zuen master 30ekoena saria.

DATUA

72

ZIKLISTA

Txirrindulari horiek hartu zuten parte ziklo-krosean: 18k kadete mailan; 20k gazte mailan eta 34k master mailan.



IKER ALBERDI
KADETE OÑATIARRA

"Ibilbidea ezagutzen nuen, baina oso gogorra izan da. Lokatza zegoen, eta ibilbidea biguna. Dena den, bosgarren tokian bukatu dut, eta pozik nago. Bihar, domeka, Lezaman korrituko dut"



MIKEL ARISTI
GAZTE MAILAKO IRABAZLEA

"Urteko lehen proba izanik, ez nuen espero aurrean ibiltzea, Bilbao ziklista indartsua da-eta. Ibilbidea gogorra da, teknikoak, baina nahiko ondo moldatu naiz. Oso pozik nago"



AITOR UMEREZ-IKER ARKAUZ
GAZTE OÑATIARRAK

"Lokatza asko zegoen eta bizikletan pilatu egin zaigu. Ibilbidea gogorra da. Bizikleta sorbaldan hartuta aldapa gora korrika egitea izan da zailena. Bestela, oso gustura gaude"



ROBERTO ZUGASTI
MASTER MAILAKOIA

"Irteeran atzeratu egin naiz, eta lasterketa atzetik aurrera egin dut. Ibilbide teknikoak zen, batez ere, San Martineko zatia. Aldapa gora oso itogarria zen, baina etxean korritzea oso polita izan da"



IÑAKI BARRENA
MASTER MAILAKOIA

"%100 hustu naiz. Nuen guztia eman dut. Oso gustura nago. Master mailan parte hartu dutenek esperientzia handia dute, eta niretako lehen urtea da ziklo-krosean"



Julen Irizar bergararra. Lehia estua izan zuten proba osoan zehar. Amaieran Aristik irabazi zuen. | JULIO CALLEJA



Julen Irizar bergararra lokatza garbitzen tutu malguarekin. | JULIO CALLEJA



Iker Arkauz oñatiarra gazte mailako proban. | JULIO CALLEJA

Rafa Ruiz de Arkaute eta Ramon Gartzia izan ziren azkarrenak master 40 eta master 50 mailatan, hurrenez hurren. Gainera, Roberto Zugasti oñatiarra hirugarren izan zen master 40koen artean.

"Azkenean, etxean"

Baziren urte batzuk ziklo-krosik ez zegoela Oñatin, baina antolatzailerik nota onarekin gainditu zuten erronka. Etxeko ziklistek behintzat, asko eskertu zuten

proba etxean egitea. "Asko mugitzen gara, Kantabria eta Asturias aldera, besteak beste. Hori horrela, etxean proba izatea izugarria da", esan zigun lasterketa amaieran Roberto Zugastik. Ziklistek

azpimarratu zuten baita ere master mailako lasterketa ikusten egondako ikusle kopurua.

Antolatzaileak ere pozik zeuden. "Egia esan nahiko arduratuta geunden, astean zehar izan

dugun eguraldia kontutan hartuta. Eskerrak gaur ateri egon den, eta tarteka eguzkia ikusi dugun, ze egubakoitzeko eguraldia egin izan balu...", esan zigun Pedro Irurtzunek.

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

EMAITZAK

Berio-Zumaiaiko	2-1
Oiartzun-Roteta	1-1
Bergara-Trintxerpe	0-0
Tolosa-Hondarribia	0-1
Aretxabaleta-Aloña Mendi	1-0
Idiazabal-Mondra	2-3
Pasajes-Real Union	0-2
Hernani-Anaitasuna	1-1
Ordizia-Aurrera	1-0

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Hernani	33	15
2 Anaitasuna	32	15
3 Pasaia	31	15
4 Real Union	28	15
5 Oiartzun	26	15
6 Aretxabaleta	23	15
7 Trintxerpe	21	15
8 Mondra	21	15
9 Aurrera	21	15
10 Berio	20	15
11 Bergara	20	15
12 Tolosa	19	15
13 Hondarribia	18	15
14 Ordizia	15	15
15 Idiazabal	15	15
16 Aloña Mendi	12	15
17 Zumaiaiko	11	15
18 Roteria	9	15

HURRENGO JARDUNALDIA

Zumaiaiko-Oiartzun
Roteta-Bergara
Trintxerpe-Tolosa
Hondarribia-Aretxabaleta
Aloña Mendi-Idiazabal
Mondra-Pasajes
Real Union-Hernani
Anaitasuna-Ordizia
Berio-Aurrera

ERREGIONAL PREFERENTEA

Tolosa-Mondra B	3-1
Aretxabaleta-Euskalduna	3-0

1. ERREGIONALA

Eibartarrak-Bergara B	3-2
Aretxabaleta C-Gazteak	5-1

OHOREZKO GAZTEAK - IGOERA

Aloña Mendi-Oiartzun	2-4
Mondra-Hondarribia	0-4

LEHEN MAILAKO GAZTEAK - IGOERA

Arizmendi-Aretxabaleta B	2-1
--------------------------	-----

OHOREZKO KADETEAK - KOPA

Zumaiaiko-Bergara	2-1
Aretxabaleta Arizmendi-Billabona	3-2

KADETEEN LEHENENGO MAILA

Ilintxa-Bergara B	4-0
Arrasate-Arizmendi UDA	9-0
Aretxabaleta-Aloña Mendi	2-3
Aloña Mendi	atsedena

EMAKUMEZKOAK

Mondra-Arizmendi	4-1
------------------	-----

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Ford Mugarri A.-Deustu	28-32
Urduliz-Soraluze Bergara	26-26

PREFERENTEA, EMAKUMEA

Leizaran-Aloña Mendi	19-26
----------------------	-------

LEHEN TERRITORIALA

Amenabar-Arrasate	37-14
-------------------	-------

BIGARREN TERRITORIALA

Izarraitz Aloña Mendi	Atsedena
-----------------------	----------

GAZTEAK, GIZONEZKOAK

Arrate-Bergara	34-25
Beristain-Aloña Mendi	25-40

GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK

Soraluze Bergara-Ereintza	28-48
Aloña Mendi-Leizaran	14-12

KADETEAK, EMAKUMEZKOAK

Leizaran-Aloña Mendi A	26-11
Aloña Mendi B-Bartolo Jatetxea	12-25

SASKIBALOIA

LEHEN MAILA NAZIONALA

Ardoi-Sustrai Aloña	57-71
La Salle-MU	60-55

SENIOR GIZONEZKOAK

MU-Take Ordela taberna	81-68
------------------------	-------

SENIOR GIZONEZ., 2. MAILA

Kostkas-Sustrai Aloña	69-57
Soraluze Bergara-Aluminios	50-54

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Tecnun-Eskoriatza	48-28
-------------------	-------

GAZTE GIZONEZKOAK, PARTA.

MU-Easo Haizea	70-77
Aloña Mendi-Ganbara	61-45

GAZTE EMAKUMEZKOAK, PART

Aloña Mendi-Santo Tomas	45-37
-------------------------	-------

KADETE GIZONEZ. ERRENDI.

MU-BKL	78-70
--------	-------

KADETE GIZONEZ. PARTAID.

Soraluze Bergara-Aloña Mendi	35-59
MU-Bide Bide Take	48-62

KADETE EMAKUMEZ. ERREND.

Eskoriatza-Orioko	51-43
-------------------	-------

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Aurrera Gasteiz-Eskoriatza	1-4
----------------------------	-----

GIPUZKOAKO BIGARREN M.

Laskorain-Aretxabaleta	0-7
------------------------	-----

GIPUZKOAKO HIRUGARREN M.

Aloña Mendi-Orixe Tolosa	3-3
--------------------------	-----

ERRUGBIA

SENIOR EUSKADIKO TXAPEL.

Kanpanzar ART-Kantabriako Uni.r	3-30
---------------------------------	------

GURE KIROLA

GOIENA TELEBISTA HARMAILATIK ASTELEHENERO, 21:25EAN

goiena

FUTBOLA

Luzapenean egin zuen gola Aretxabaletak eta derbia irabazi zuen Aloñaren kontra

Kerman Azkarragak sorbaldarekin egin zuen gola kórner erdiraketa errematatu ondoren

EMAITZA

UDA
1-0
ALOÑA MENDI

FITXA TEKNIKOA

UDA: Iker, Andoni, Alain, Kerman, Beñat, Etxeberria, Perez, Haritz (Orueta, 84.min.), Barbero (Pastri, 73.min.), Jokin (Oinatz 66.min.) eta Akaitz (Julen 60.min.)

Aloña Mendi: Aginagalde, Mikel, Garmendia (Josu, 58.min.), Iker, Olalde, Zubia, Palacios, Igartua, Xabi (Gorka 74.min.), Unai (Mendoza 73.min.) eta Roberto (Iñigo 80.min.)

Epailea: Casanova jaunak zuzendu zuen lehia, Mundin eta Zorroza marrazainekin.

MIREIA BIKUÑA | ARETXABALETA

Luzapenean irabazi zuen atzo Aretxabaletak Aloñaren kontra derbia. Kerman Azkarragak egindako gola baliatuta, hiru puntuak poltsikoratu zituen UDAk, atzelariak sorbaldarekin

errematatu zuen kórnerari erdiraketari esker. "Ezustean harrrapatu nau. Baloia etorri da niregana eta sorbaldan jo ondoren ate barrura sartu da", esan zigun bukaeran Azkarragak.

Aloñako jokalariek eta zaleek -oñatiar asko egon zen atzo Ibarrran-, burumakur bukatu zuten klasikoa. Izan ere, Aloñarendako puntuak ezinbestekoak ziren sailkapeneko zulotik irteteko eta arnasa hartzeko. Taldeak lan ona egin zuen, baina golak behar dira puntuak batzeko, eta Aloña ez zen fin ibili ate aurrean. UDAk gola egin aurretik, bi aukera oso garbiak izan zituzten oñatiarrek: 75. minutuan Idigorasek ez zuen asmatu Iker atezaina gainditu ondoren, eta 86. minutuan Arregik kanpora bidali zuen area kanpoko jaurtiketa. "Bigarren zatian hobeto jokatu dugu, baina ez dugu asmatu, eta horrelakoe-tan ordaindu egiten da. Egia esan, tonto aurpegiarekin bukatu dugu, Aretxabaleta ez delako gu baino gehiago izan", esan zigun Aloñako jokalaria Iker Olalde.

Joko eskasa

Oro har, partidu eskasa jokatu zuten bi taldeek. Azken minutue-



Xabi Agirre (ezkerrean) eta Alain Gomez (eskuinean) baloia kontrolatu nahian. | JULIO CALLEJA

tan, Aloñak egindako presioari esker, giroa apur bat berotu zen. Baina ikusleendako lehia aspergarria izan zen.

Lehen zatian zelai erdiko jokoa izan zen nagusi. Ez Aretxabaletak ezta Aloñak ere ez zuten joko onik egin. Balo luzeak erabili zituzten biek ala biek aurrelarien bila, baina aukera garbiak sortu barik. Bigarrena lehena bezain eskasa izan zen.

Azken jardunaldia

Gabonetako oporrak hartu aurretik, azken jardunaldia jokatu dute UDAk eta Aloñak. Rafa Barrutiaren taldeak Hondarribiaren zelaian jokatu du.

Oñatiarrak aldiz hiru puntuak batzen saiaturko dira Azkoagainen. Sailkapenean arerio zuzena den Idiazabalen kontra jokatu dute egubakoitzean.



KERMAN AZKARRAGA
UDAKO JOKALARIA

"Txirripaz egin dugu gola, eta luzapenean, gainera. Oraingoan guk izan dugu zortea alde, baina beste batzuetan kontra izan dugu. Partidua lehiatua izan da, baina ikusleendako oso txarra".



IKER OLALDE
ALOÑAKO JOKALARIA

"Lur jota gaude. Aste osoan lana ondo egin dugu, eta bigarrenen partidua menderatu dugu, baina puntuak batzeko golak egin behar dira. Puntua ona zen, baina guk hirunaka batu behar ditugu".

ESKUBALOIA

Bigarren zatiaren hasierako errentarekin erabaki zuen partidua Ford Mugarrik

Garaipenarekin arrasatearrek lehen postuan jarraitzen dute sailkapenean

EMAITZA

FORD MUGARRI
37-29
DEUSTU



Xabier Altzelai arrasatearra baloia jaurtitzeko gertu. | JULIO CALLEJA

M.B. | ARRASATE

Ford Mugarrik lehenengo tokian hartu ditu Gabonetako oporrak -urtarrilera arte ez dute lehia gehiago jokatu-. Atzo, Deustuko Unibertsitate menderatu zuen Iturripen, batez ere, bigarren zatian egindako lanari esker. Lehen zatia oso parekatua izan zen (minuturik gehienetan berdinketa izan zen nagusi markagailuan), baina bigarrenaren hasieran, defentsako lana sendotuz, tartea zabaldu zuen Ford Mugarrik (23-17, zazpigarren

minutuan). Minutu haietan 6-1eko partziala egin zuen Edu Orga-zen taldeak. Bazirudien partidua erabakita zuela Ford Mugarrik, baina epaileen lanak asko nahastu zuen lehia. Josu Herrero arrasatearri txartel gorria erakutsi

zioten, bi minutuko hiru kalera-tze izan ondoren. Etxekoak gauza izan ziren errenta handitzeko (34-24, 24. minutuan), baina bukaeran sufritu egin zuten Deustuk estutu egin zuelako. Dena den, merezita irabazi zuten.

FUTBOLA

Mondrak irabazi eta Bergarak berdindu

M.B. | ARRASATE

Bergarak berdindu egin zuen Agorrosinen Trintxerperen kontra (0-0), eta Mondrak sufrirituta, baina irabazi egin zuen Idiazabalen (2-3).

Bergarak eta Trintxerpek partidu parekatua jokatu zuten. Biek ala biek gol aukerak egin zituzten, baina ez ziren fin ibili ate aurrean. Bukaeran ontzat eman zuten berdinketa.

Mondrak aldiz, sufrirituz irabazi zuen Idiazabalen. Defentsan egindako bi akatsei esker 2-0 aurreratu zen Idiazabal. Dena den, arrasatearrak gauza izan ziren emaitzari buelta emateko. Azken 20 minutuetan egin zituzten hiru golak. Murua, Lopez eta Iregi izan ziren golegileak. Azkena 90. minutuan egin zuten.

SASKIBALOIA

Aloñarendako bi puntu gehiago, eta Mondrak galdu

M.B. | ARRASATE

Oso bestelako emaitzekin bukatu dute Sustrai Aloña Mendik eta MUK urtea. Oñatiarrek irabazi egin zuten Ardoiren kantxan (57-71), eta arrasatearrek galdu egin zuten La Sallerekin (60-55).

Sustrai Aloñak lehen tokian jarraitzen du zapatuan irabazi ostean. Lehia guztian zehar aurretik egon ziren, gutxieneko errenta mantenduz. Barruko jokoan eta errebotean arazoak izan zituzten, baina fin ibili ziren hiruko jaurtiketetan: 14 egin zituzten.

Bestalde, MUK galdu egin zuen La Salleren kontra. Josu Larreategiren taldeak bigarren partidua jarraian galdu zuen. Hori horrela, sailkapeneko seigarren tokian daude 15 punturekin.

ALPINISMOA

Horia Colibasenu | Mendizalea

"Annapurna tontorrean ez nuen negarrik egin nahi; Iñakik zioen moduan, ez deshidratatzeko"

- ▶ Colibasenuk lau egun egin zituen Iñaki Otxoa de Oltzaren ondoan, 7.400 metrora
- ▶ Mendizale errumaniarrak amaiera bikaina eman dio Aloña Mendiko hamabostaldiari

XABIER URTZELAI | OÑATI

Maila goreneko kirolak joera makurra hartu du azken bolada luzean: dopin kasuak, enpresa bilakatu diren kirol taldeak, zaleen arteko istiluak... Baina, tarteka, istorio hunkigarriak iristen zaizkigu, epikoak, munduko txapelketako garaikur handienari itzal egingo lioketenak. Eta Horia Colibasenurena da istorio horietako bat, 2008an Annapurnan hilzorian zegoen Iñaki Otxoa de Oltzaren ondoan egin zueneko istorioa. Lau egun lagunaren ondoan, haren biziaren alde ezer gutxi egin ahal zuela jakinda ere. Eguaztenean Oñatin izan zen. **Bi urte igaro dira Iñaki Otxoa de Oltza hil zela; ze oroitzen duzu lagunaren ondoan egin zenituen**

"Lagun bat benetan maite duzunean ezin da haren heriotza gainditu"

"Iñakiren gainean berba eginez haren ametsek bizirik jarraitzen dute"



Oñatiko kultura etxeko zinema aretoa goraino bete zen, joan den eguaztenean, Horia Colibasenu mendizalearen filma ikusteko. | XABIER URTZELAI

lau egun haietaz?

Egun haietaz, konkretuki, orduko oroitzen bera dut, ez da ezer aldatu, ez zait ezer ahaztu. Oso gogorra izan zen Iñakiren heriotza; aldatu den gauza bakarra da Annapurna eskalatze gogo itzuli zitzaizkidan.

Gertaera haren gainean jendaurrean berba egitea Iñaki bizirik mantentzeko modua izan daiteke. Baina baita zauria zabalik mantentzeko ere.

Nik uste dut lagun bat benetan maite duzunean, oso gertukoa denean, inoiz ezin dela haren heriotza gainditu. Hutsune horrekin bizi izaten ikasi behar da eta haren ametsak eta proiektuak aurrera ateratzea Iñaki bera gure artean bizirik mantentzeko modua da.

Pentsatzen dut lotura estua izango duzula haren senitartekoekin. Bai, aldiro egoten naiz Pablorekin [Iñakiren anaia, eta elkarriketa egiten lagundu ziguna] eta baita gainerako familiakideekin ere. Iñaki hil zenetik urtero etorri izan naiz Iruñera.

Mendian lagunak galtzen direnean zailagoa da berriro benetako lagunak egitea? Beste istripu baten aurrean horrenbeste ez sufritzeko modua izan daiteke.

Badakit zer esan nahi duzun, baina mendian benetako lagun onak behar dira. Alde horretatik, ezin dira hesiak ezarri. Hori bai, benetako lagun onak aukeratzeko tentu handiagoa izaten duzu. Izan ere, sekulako zorrea izan nuen Iñaki moduko tipo jator eta

indartsu bat ezagutu nuelako.

Gaur egun gertaera bera pasatuz gero, berdin jokatu zenuke, zure bizitza horrenbeste arriskatu zenuke?

Badakit Iñaki nik bakarrik ateratzea ezinezkoa zela, mendizale askok esan didate gutxienez sei lagun beharko zirela lan hura egiteko. Baina nire buruari sarritan egiten diodan galdera da hori. Bestalde, Iñakik bihotzekoa izan zuenean lau egun egin nituen

kanpin dendan, 7.400 metrora. Guztira, baina, sei egun neramatzan garaiera horretan, eta zazpigarrenari ez niokeen eutsiko. Arriskatu egin nintzen, baina ezin nuen Iñaki han utzi; berdin jokatu nuke, bai.

Annapurnara itzuli zara aurten.

Annapurna niretako ez da kirol erronka, beste erronka moduko bat da. Iñakiren omenez igo nahi nuen gora, eta igoera osoan gauza bat nuen buruan: ez negarrik

egin. Orain dela urte batzuk, K2ko gailurrera Iñaki ni baino ordu erdi lehenago iritsi zen, eta negarrez egon zen, lagun bat han ezin zuela negar gehiagorik egin, bestela deshidratatu egingo zela, eta gailurrean Iñakiren berba horiek izan nituen gogoan.

Estilo alpinoaren aldekoa

Iñaki Otxoa de Oltza Segin (Iruñea, Nafarroa, 1967ko maiatzaren 29a) eskaladako eta alpinismoko irakaslea eta mendi-gidaria zen. Guztira, 15 alditan egon zen zortzi mila metrora, eta Annapurna eta Kangchenjunga falta zitzaizkion munduko 14 zortzimilakoak egiteko; baina ez zegoen horrekin itsututa, gailurrera iritea baino bidea egitea zelako harendako sari. Hala, eskalada garbiaren aldekoa zen (Oñatiko Mendi Astean egondakoa zen), ez zitzaion oxigenorik erabiltzea gustatzen, eta Horia Colibasenu ere iritzi berekoa da: "Mendira oxigenoarekin joatea tranpa egitea da; gure gorputzak garaiera horietan zela moldatzen den neurtu nahi izaten dugu, eta oxigenoarekin mendiari metroak kentzen dizkiogu. Iñakik ondo esaten zuen moduan, mendian oxigenoa erabiltzea Frantziako Tourra motor txiki batekin egitea bezala da".



Horia Colibasenu eta Iñaki Otxoa de Oltza. | GOIENA

Haurren eskubideen zerrendatxo bat egiteko proposamena

'Guraso.com' atariko kolaboratzaile Itziar Bartolomek egin du proposamena

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

"Ezinbestekoa da gurasoen, haurren eta hezitzaileen arteko komunikazioa eta elkarlana berreskuratzea. Badaukat, gero eta gehiago, iparra galdu dugun sententzia". Itziar Bartolome psikologoak hausnarketarako abiapuntu polita proposatu digu asteon *guraso.com* webgunean. "Indibidualtasunerako joerak inkomunikazioa ere eragin du, haurren kalterako", diosku.

Haurren eta gazteen heziketan parte hartzen duten hiru eremu nagusi ezberdintzen ditu Bartolomek artikuluan: eskola edo hezkuntza formala, eskolaz kanpoko jarduerak edo hezkuntza ez formala eta eremu informala. Familiak eta lagunarteak osatzen dute, gehienbat, hirugarren eremu hori. "Afektiboki espaziorik esanguratsuenaren denez, bertan ikasitakoak pisu handia hartzen

du pertsonaren heziketan, baina gero eta denbora tarte laburragoa du", dio Bartolomek. Kezkatuta dago beste bi eremuak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari direlako eta orain garrantzi handiena eskolari ematen diogulako. "Lan bat izateko, kulturaduna izateko, pertsona bezala hezteko...", dio. Eskolaz kanpoko jarduerak ere gorakada nabarmena izan dutela agerikoa da. "Gero eta gehiago dira agenda beteta dutelako jolasteko eta aspertzeko denborarik ez duten haurrak eta nagusiak".

Haurren eskubideak oinarri

Horrek ondorio batzuk dituela uste du hark. "Egungo guraso askok bizi duten lan erritmoa dela-eta, haurren heziketan hainbat eragilek parte hartzen dute modu sistematikoan; aita-amamek, eskolak, telebistak,

eskolaz kanpoko jarduerak... Haurrek denetarik daukatela esaten da, baina funtsean oinarritzko eskubide batzuk galtzen ari dira", adierazi du Bartolomek, eta ardurak konpartitzea proposatzen du. "Uste dut gurasoei eta hezitzaile guztioi dagokigula hausnartzea eta ekintzara pasatzea. Gaia konplexua da eta guztien parte-hartzea eskatzen du. Ditzosozko kontziliazioaren izenean egin dezagun haurren eskubideen zerrendatxo bat eta has gaitzen ardurak betetzeko behar dugun denbora bilatzen. Lantokian, familian, eskolan, aisialdian, auzoan..."

Familia da, Bartolomek esanetan, haurra hezteko oinarritzko esparrua. "Guraso, haur, irakasle zein begiraleen arteko komunikaziorako tarteak, jarrera eta denbora sumatzen dira faltan".



Umeak jostailuekin jolasean. | IRATI GOITIA

Ez ahaztu jostailua aukeratzeko heziketarako tresna garrantzitsua dela

Jolasa izango dute hizpide hilaren 22an, eguaztena, Goiena Telebistako guraso tertulian

L.Z. | ARRASATE

Seme-alabek jostailuak eskatzen dizkigute, eta, batzuetan, askorik pentsatu barik eskatzen duten hori erosten diegu. Jakin badakigu publizitatearen presioa oso handia dela gaur egungo gizartean, baina denbora faltagatik edo buru-hausteak ebartzeko eskatutako hori erosten diegu.

Jostailu eskaintza, gaur egun, ikaragarria da eta onartu beharra dugu galduta ikusten dugula gure burua behin baino gehiagotan. Badira gure inguruan aukeraketa hori egiten laguntzeko hainbat gomen dio egiten dituzten erakundeak; besteak beste, Bizkaiko Urtxintza Eskola. "Jostailuak berez ez dira onak edo txarrak. Ego-kitasuna ematen diegun erabileraren arabera izango da", diote Urtxintzan. "Jolasa era askean eta berez sortzen da eta gozamenaren eragiten du. Ezagutzarako, ikasketarako eta adierazpenerako bide nagusia da".

Jolasaren bitartez haurrek jostailuek indartzen dituzten gaitasunak eta balioak bereganatzen dituztela ziurtatzen dute. "Jostailua heziketarako tresna garrantzitsua den unetik, ezinbestekoa da eskaintzen edo indartzen ari garen ereduaren analisi kritikoa egitea".

Jostailuak aukeratzeko

Urtxintxatik ondorengo ezau-garriak dituzten jostailuak aholkatzen dituzte: jostailu seguruak, helduen eta haurren arteko elkarrekintza bultzatzen dutenak, sexu edo rol estereotipoak errepikatzen ez dituztenak, haurren adina eta gaitasunak kontuan hartzen dituztenak eta umeen ekintzak, irudimena eta gaitasunak sustatzen dituztenak. Gaian gehiago sakonduko dute Goiena Telebistan hilaren 22an 20:45ean hasita egingo duten guraso tertulian. Ane Labiano, Iñaki Kasares eta Itsaso Pagoaga izango dira saioan.

Banandutako gurasoek beste bikotekide bat dutenean eta umeek onartzen ez dutenean

Umeek gurasoen babesa eta bizi duten egoera ulertzea behar dute batez ere

L.Z. | ARRASATE

Banatu ostean beste bikote bat osatzea ez da erraza. Are zailagoa gerta liteke harreman berri horretara aurreko bikote bateko seme-alabak ekartzen badira; lehenengo momentuan haur gehienek joera kide berria baztertzea izan ohi da. Etxadi orientazio zentroko psikologoek ohartarazten dute ez dela inor presiopean sentitu behar; ez bikotekide berria, ez seme-alabak. "Denbora eta ulertkortasuna beharrezkoak dira", azaltzen dute. "Nagusienak bikote-bizitza berregituratzea zaila bada, prozesu horretan haurrak dira ahulenak eta sentikorrenak. Euren errealitatea presente izatea funtsezkoa da". Konturatu behar dugu harreman berriak guraso biologikoen haustura konfirmatzen duela umeendako eta konfirmazio horrek sufrimendua eta segurtasunik eza sor ditzakeela. Hala, jarrera ezkorak ohikoak izaten dira. "Ez dugu probokazio horietan erori behar, eta argi eduki behar dugu ez garela sekula falta den amaren edo aitaren lekuan jarriko. Oso argi utzi behar diegu betiko ama eta aita biologikoak izaten jarraituko dutela, eta ez da batere komenigarria konparaketak egitea". Haurraren bizi ez den amaren edo aitaren presentzia errespetatu egin behar dela diote



Aita, alabarekin. | SHAVAR ROSS

adituek. "Leku eta espazio bat eman behar zaio solasaldietan, argazkietan edo oroitzapenen bidez".

Arau berriak

Bananduta egon arren, haurren heziketaren inguruko erabaki garrantzitsuenak guraso biologikoen esku egon beharko luke-

te, baina umei azaldu behar zaie familia berriaren arauak ere bete beharko dituztela. "Momentu horretan seme-alabek behar dutena gurasoen babesa da eta bizi duten egoera ulertzea". Umeenganako errukia, gehiegizko permisibitatea edo errudun sentitzea saihestu beharreko jarrerak dira.

Egungo neskatoei lehenago iristen zaie hilekoa, batez beste 12 urte eta erdirekin iristen zaie

Ez diote datuari garrantzirik ematen eta uste dute ez dela inolako ardurarik izan behar, baina Gurutzeetako Ospitaleko pediatria endokrinok orain hilekoa lehenago iristen dela baieztatu dute. Euskadi Irratirako erreportaje baten izan dugu albistearren berri. Ikerketa zientifikoek erakusten dute hilekoa "orain dela hiru hamarkada baino sei hilabete lehenago" iristen dela. Alderaketa XIX. mendearekin egiten bada, datuek erakusten dutenez "16-17 urterekin hasten zen hilekoa orduan". Amaya Rodriguez endokrinok Euskadi Irratiari adierazi dionez, loditasunak eta hileko goiztiarrak "harreman zuzena dute; frogatuta dago". Horregatik, aktibitate fisikoa eta elikadura garrantzizkoak dira.

KULTURA



The Kubers taldeko kideak, musika erritmoan erabat barneratuta, burua astintzen, Espaloia antzokiaren taula gainean. | JULIO CALLEJA

Jarrera erakutsi dute eta finalean izango ditugu

- ▶ Xarma, Lord Witch eta Desprezio taldeek joko dute urtarrilaren 14ko finalean
- ▶ Barikuan izan zen final aurreko azken saioa Dark Code, The Kubers eta Asfikziarekin

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Agertoki gaineko jarrera izan da aurtengo giltza, epaimahaiko kideek gehien errepikatu duten ezaugarria da hori, bederen. Horretaz gain, Despreziokoen freskotasuna, Lord Witchekoen bertuosismoa eta Xarmakoen kantutak. Horiexek finaleko taldeen bazak. Gailentzea zeintzuk lortuko ote duten urtarrilaren 14an jakingo dugu.

Gitarren guda egubakoitzean

Finala baino gertuago baina, egubakoitzean finalaurreko emaldia izan genuen Dark Code, The Kubers eta Asfikzia taldeekin. Nobedade gutxi, metalik bortitzenetik, rockik egoskorrenera, gitarra gihartsuak izan ohi dira jaun eta jabe Espaloian. Guda oster, egubakoitzekoan, biren artekoa izan zen: Dark Code,

infernutik bertatik letaginak erakutsiz, versus Asfikzia, tema-ti, irmo eta jarrera handiarekin, amorrutaz aurre egiten. Tartean The Kubersekoak izan genituen, emakume ahots bikainarekin baina gudaren erdi erdian.

Dark Code, oineztuak

Bergararren dunbal bikoitzak gerturatu gintuen infernuko atetara gitarren trumoi eta leize ilunetik, ahots dardara-eragileak. Eta zaleak, lehen lerroan pilatuta, lehen unetik elkarri bultzaka, tximak astinduta eta izerdia botatzen ibili ziren. Bejon degiela. Amesgaiztoetako eztandak atse-denerako une gutxi izan zituen. Momentu melodiko hunkiberagoekin eta punteo luzeekin baretu zuten apur bat zilindroa baina ez larregi. Gaztetxoak izanik ere metalik zorrotzenak laztutako

nerbioa ekarri zuten. Eta, ikusleek saririk balute, Dark Codekoen lagunei txapel guztiak, ze borroka koreografiatuak eta guzti eskaini zituzten.

The Kubers, atsegin

Lan nekeza izan zen Kubersekoentzat aurrekoek askaturiko deabru guztiak antzokitik bidaltzea. Monicaren ahotsa izan zen exorzitzailea hein handi batean, goxotasunez, hasieran, indarra neurtuz, hazten joateko, gero. Pop-rockak berak eraman zaitzakeen biderik ezagun eta bisitatu-tenetatik dabilta, halere, hauek. Nirvana, Muse edota The Cramberries aitatzen dituzte gustukoaren artean baina hauen bidea lauagoa begitandu zitzaigun. Monikak du taldean ostu ezin zaion protagonismoa eta akustikoarekin bakarrik aretoaz jabetu zenean garbi

geratu zen hori. Baina esan moduan, taldeak osotasunean aitzakia gutxi du eta beroketa lanak bikain eginda etorri ziren Espaloira. Bukaeran bai ezustekoa: etxafuegoekin. Bitxia.

Asfikzia, amorrugartsua

Berehala etorri zitzaizkigun gogorra euskal metalaren labeldun talderik ezagunenak, ahotsa bai eta planteamendua ere bai. Deigarria baina bateriaren tinkotasun zeharo fisikoa, zakarra sarri. Bestela, espero bezala deskarga sekulakoa, Dark Codekoendako gerra deklarazio garbia. Hauek melodia dute aldeko; eta gitarra zorrotz zorrotzak. Grina, amorrua eta indarra. Hor irabazi dute, Latzen eta Su ta Gar taldeetatik asko edanda, itotzeko adina. . Gazte baina ideia argiekin eta bide luzea egiteko.

Bakoitzak berea finalean

Finalak ere garbi utziko du Danbakan rockak, metalak eta punkak balio duela. Estiloari fidelitasunak eta jarrerak eroan ditu taldeak finalera. Oso talde diferenteak dira hirurak eta berriz ere izango da ezinezkoa konparazioak egitea. Bakoitzak berea, estiloan onenak balira bezala jardun beharko dute. Lord Witchekoek teknika zanpatzaile eta zuzeneko deuseztatzailea dute. Xarmakoen presentzia eta kantua onak, txapeldunen ikur izan ohi dena eta Despreziokoen dagoeneko erabat higitutako estiloa defendatzera etorrita ere, punkaren garrantzitsuen berreskuratutako dute, jarrera.



JULIO CALLEJA

Dark Code | Bergara

ADITUAK ESANA | IMANOL SORIANO

"Azkarak eta bortitzak, labur esateko hitz horiek aukeratuko nituzke. Gogor jo dute eta ondo, ze ez dute zertan biek batera joan. Asko gustatu zaizkit eta ikusi da oso prest zeukatela guztia".

ENTZULEAK ESANA | MIKEL ALVAREZ

"Gaztetasun horrekin hain ondo jotzea oso zaila da. Kristoren meritua daukate eta nabarmentzekoa da gauza oso-oso zailak jotzen ausartzen direla. Sekulako maila duten piezak nahi dituzte jo eta horrek asko eskatzen du. Perfektu joko balute zalantza barik txapeldunak izango liriteke. Lan ona egin dute".

KAZETARIAK ESANA | JON BEREZIBAR

"Muturreko metal taldeek sekulako maila erakutsi ohi dute Danbakan. Agian estiloa bera oso exijintea delako. Ba gazteak izanik ere, azterketa oso ondo gainditu dute eta dena eman dute oholtzan. Onak dira eta izango dira hobeak, gainera".

TALDEKIDEAK ESANA | AITOR ETXANIZ

"Guztia eman dugu ze gu horretara etorri gara. Barrutik behintzat itxura ematen zuen soinu ona izan dugula eta gustura geratu gara. Gure lagunak hor ibili dira *bolloa* egiten. Haiek bai merezi dutela saria! Metala ez dago modan baina gaur ez zuen ematen".



JULIO CALLEJA

The Kubers | Arrasate

ADITUAK ESANA | IMANOL SORIANO

"Denok pentsatzen genuen pop talde arin baten aurrean geundela baina sekulako presentzia izan dute azkenean. Bizitasun handia daukatela ikusi da eta hori asko gustatu zait. Gitarren lanak du pisu handia emaitza horretan".

ENTZULEAK ESANA | MIKEL ALVAREZ

"Kontzertu ona izan da eta alde erritmikoa nabarmenduko nuke. Melodiak ondo eta ahotsa perfektu. Entzulearentzat entzuteko erraza den estiloa da baina horrek ez die zertan meriturik kendu. Danbakan sailkatu barik ere ikusten da etorkizun handia izan dezakeen taldea dela".

KAZETARIAK ESANA | JON BEREZIBAR

"Gustu kontua bada ere, arreta gutxiegi ematen diote ahotsari eta alde akustikoa oso gutxi esplotatzen dute. Emaiza laua iruditu zait. Beste konbinazio batekin agian emaitza ederragoa izan daiteke, buelta pare bat falta zaie".

TALDEKIDEAK ESANA | MONICA DURAN

"Jotzeko sekulako gogoekin etorri gara eta primerakoa izan da. Izugarri gustatu zait agertokia, oso neurri polita dauka gozatzeko. Guk oso ondo pasatu dugu eta espero behean ere ikusleek gozatu izana. Hori bai, bost abesti dira eta oso-oso labur geratzen da emanaldia".



JULIO CALLEJA

Asfikzia | Oñati

ADITUAK ESANA | IMANOL SORIANO

"Soinu arazoak tarteko, azkenean emaitza ez da nahi besteko ona izan. Behintzat itxura hori hartu diot. Espresuki haiek ikustera etorri naiz aurreko baten gustatu zitzaizkidalako eta azkenean ez naute hainbeste konbentzitu. Gustatu zaizkit baina ez naute erabat bete".

ENTZULEAK ESANA | MIKEL ALVAREZ

"Exekuzioa ona da baina Latzen taldearen soinu larregi imitatzen dute eta hori ez da ona, influentzia Metallica eta Megadeth direla badiote ere; Latzenek ere horiek ziren. Bilaketa lan gehiago egin beharko lukete euren estiloa aurkitzeko".

KAZETARIAK ESANA | JON BEREZIBAR

"Latzenekoen ondorengo leialak direla garbi erakutsi dute. Luzimenduan agian, tarte instrumentala luzeetan, denbora larregi egin dute eta kontzertua aprobetxatu beharko lukete estilotik desmarkatzeko, deigarri suertatzeko".

TALDEKIDEAK ESANA | ARRIET AIALA

"Hau oso motz geratzen da baina gustura irten gara egindakoarekin. Guk konfiantza handia hartu diogu dagoeneko oholtza gainekoari baina hortik kalitatezko emanaldi batera, oraindik badago. Hogeita hamar minutuko emanaldi batek ematen duena ematen du. Gu gustura".

Epaimahaiaren berbak

DESPREZIO

- Jarrera. Egiten duten horretan sinisten dute eta mezua heltzen da, komunikatzen dute. Nahiz eta teknikoki oso onak ez izan, egiten dutena egiten duten moduan egiteak handiagoak egiten ditu.
- Freskotasuna. Horixe daukate eta kontzertu dibertigarriak egiten dituzte. Ditzuten baliabide gutxiekin moldatzen dira bestelakorik behar gabe. Nahi dutena egiten dute, gustatzen zaiena.
- 'Do it yourself'. Bada ordua XXI. mendean *Do It Yourself* edo 'egizu zuk zeuk' errebindikatzeko. Naturaltasun handia dute. Koherenteak dira. Punka oraindik bizirik egotea poztekoa da.

XARMA

- Jarrera soberan. Guztia kontra izan zuten, ehunka arazo tekniko, eta oztopo horiek guztiak erraztasunez eta soltuz gainditu zituzten, animu handiz eta emanaldia bertan behera utzi gabe, ezertan eragin gabe.
- Dena. Gauzak ondo egiten dakite eta ondo pasatzen dute. Guztia ematen dute. Teknikoki oso ondo.
- Mezua daukate. Kantu onak dituzte, garapen eta aldaketa nabariek. Asko transmititzen dute. Indarra daukate. Presentzia eszeniko indartsua. Benetan xarma daukate.

LORD WITCH

- Sinetsiak. Erabat sinisten dute egiten dutena eta hala bizi dute. Horregatik, asko transmititzen dute, ikusle-entzuleari heltzen zaio egiten dutena.
- Estiloa muturreraino. Euren estiloa, heavya, muturreraino defendatzen dute. Koherenteak dira. Birtuosoak dira, oso ondo jotzen dute.
- Taldea. Taldea dira, oso konpenetratuta daude. Taularatze oso zaindua, detaileak asko zainduta. Zuzenean asko irabazten dute eta ikuskizuna ematen dute, ikuskizuna dira.



Asfikzia taldeko kideak.




The Kubers taldeko kideak, lerrokatuta.



Dark Code taldeko bateria-jolea.



Dark Codeko abeslaria.



The Kubers taldea.



The Kubers.



Asfikziako bateria.



Dark Code.



Ikusleak gogotsu, Dark Coderen kontzertuan.



The Kubers taldeko Monika.

IXILPEKOAK

ELGETAKO
GIRO HOTZA
BEROTUZMAIDER
ARREGI

Danbakako azken final aurrekoan, metalaren eta thrasharen jarraitzaileak, guztietan fidelenak direla garbi gelditu zen. **Dark Code** taldearen zaleak lehen riff gogorrekin saltoka, bultzaka eta oihuka ikusi genituen. Harritu ninduen, lehen ilaran neska talde bat horren sutsu, dena ematen ikustea izan zen. Bejondeiola koadrilari!

Eta muturreko doinu bortitzetatik, **Kubers** taldearen goxotasunera. **Nirvana** edota **Muse** talde handien jarraitzaileak direla kontatu ziguten, eta igarri zen taldearen pop-rock eta indie doinuetan. Arrasate eta Soroluzetik datorren taldea gustura entzun genuen. Abeslariak, tarteka, **Russian Red** ere gogorarazi zigun. Bukaera ikusgarria eskaini ziguten piroteknia eta guzti!

Gaueko sorpresa **Asfikzia**; *punteo* landu eta indartsuekin, gogoz atera ziren oholza gainera. Bateria jotzaile berriarekin lehen zuzenekoan bikain aritu ziren **txantxikuak**. Danimarkatik propio etorri zen gainera bateria-jotzaile ohia, taldea ikustera. %100 heavy-metal intentsua, **Latzenen** hasierako garaia ekarri zizkiguten gogora. Heavyaren grina berezkoa dute; nola ez, iturri onetik edan dute-eta oñatiarrek.

HURRENGO
KONTZERTUA

Desprezio

Xarma

Lord Witch

Athom Rumba

FRAN GALAN
ARRASATE

"Hemen sekulako giroa egon da. Dark Codekoak ikustera etorri nahiz bateria jotzailea lehengusu dut-eta. Ikaragarri ondo egin dute. Lehen aldia izan da Danbakan eta itzuliko naiz seguru Dark Code sailkatzen bada".

XABIER ETXEBARRIA
OÑATI

"Kubersekoak ez nituen ezagutzen eta asko gustatu zaizkit itxura baino egur gehiago eman dutelako. Asfikzia ikustera etorri bagara ere hauek asko gustatu zaizkigu. Kontraste handia egoten da Danbakan eta gustuko dut hori".

IRATXE ARREGI
BERGARA

"Harrituta nago gerturatu den jende mordoaz. Giro ederra egon da. Zaila da baloratzea eta talde bakoitzak gustuko duena ahalik eta ondoen egiten du eta hor ez dago sartzerik. Ni gustura egon naiz, hori bai".

IÑAKI BITERI
ARRASATE

"Taldea guztiak gustatu zaizkit eta batez ere The Kubers. Talde oso diferenteak dira eta oso zaila da elkarren arteko konparaketa egitea. Dark Codeko gitarra joleak gaztea izanik ere oso ondo jo du. Harritu egin nau".

MIRARI LARRAÑAGA
BERGARA

"Sarri pentsatu ohi dut talde gazteetan zarata ateratzea, besterik ez dutela egiten. Talde honekin konturatu naiz ezetz. Gurasoek sarriago etorri beharko genuke halakoetara. Badakite ondo zer egiten duten".



Doke antzerki taldeko aktoreak zapatuan *Iragana iragan* antzezlanaren estreinaldian. | JULIO CALLEJA

KRONIKA

Mondrautarrak eta arrasatearrak

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE
Mondragon ala Arrasate? Binomio gatazkatsua izan ohi da eta horixe da Doke antzerki taldearen antzezlan berriak planteatzen duen dilema. Mondragon hiria sortu zeneko 750 urteurrena umore kutsuarekin ospatu nahi izan dute Dokekoek *Iragana iragan*

antzezlanarekin. Identitateaz hitz egiten digu Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzitako eta Itziar Rekaldek zuzendutako antzezlanak; herrien eta herritarren identitateaz, besteak beste.

Bada, Doke antzerki taldeak zapatu iluntzean estreinatutako *Iragana iragan* antzezlanaren Arra-

sateko Amaia antzokian eta bertaratutako en barre algarak ateratzea lortu zuten. Aktoreek lan bikaina egin zuten eta antzezle profesionali inbidiarik ez edukitzeko moduko emanaldia egin zuten.

Ordubeteko emanaldiaren ostean, taula gainean jardundako

hamabi aktoreek ikusleen esker on zintzoa jaso zuten. Txalo zaparrada itzela izan zen, eta baita muxu eta besarkadak ere. Zapatuko estreinaldiaren ostean, domekan *Iragana iragan* antzezlanaren bigarren emanaldia egin zuten Doke taldekoek.

Debagoiengan bira txikia

Arrasateko estreinaldiaren ostean, herritik kanpo ere taularatuko dute antzezlan berria Gabonetan; hain justu ere, Doke antzerki taldekoak Aramaioko kultura etxean izango dira abenduaren

26 eta Aretxabaletako Arkupen, berriz, abenduaren 30ean. Bi herrietan ere emanaldiak 20:00etan izango dira.

FITXA

ANTZERKIA	_____
'IRAGANA IRAGAN'	_____
Taldea:	_____
Doke antzerki taldea.	_____
Non:	_____
Amaia Udal Antzokian.	_____
Eguna:	_____
Zapatua, abenduak 18.	_____
Iraupena:	_____
Ordubete.	_____

goienakluba

Abantailaz betetako kluba!

Opari ederrak zure esku!

Zozketa bereziak 2011n

goienakluba 2011

BAZKIDEA: _____

BAZKIDE ZENBAKIA: _____

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Bazkideentzako informazioa: 943 05 05


Gabonetan oparitu txartela

- ▶ Gabonetarako opariren bat falta bazaizu, aukera paregabea duzu: oparitu Goiena Klubeko txartela.
- ▶ Urtean 48 euro ordainduta askotariko abantailak izango dituzu.



Irabaz itzazu 350 €

- ▶ 2011rako oparien artean 350 euro zozketatuko ditugu.
- ▶ Otsailaren 28a baino lehen bazkide egiten direnen artean egingo dugu zozketa.



Home Cinema zuretako

- ▶ 2011n bazkide izaten jarraitzen dutenen fidelotasuna sarituko dugu.
- ▶ Otsailaren 14an Home Cinema bat zozketatuko dugu bazkide izaten jarraitzeko erabakia hartzen dutenen artean.
- ▶ Ezaugarriak dira: Panasonic SC-PT350W DVD Home Theater Sound system.

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | 2011 urteko bazkidetza: 48 euro.

www.goienakluba.com

Herrietako banda eta abesbatzek Gabon giroa ekarri dute asteburuan

Bergarako pilotalekua goraino bete zen Gabonetako kontzertua ikusteko

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Bergararrek Udal Pilotalekua bete egin zuten zapatu gauean Gabonetako kontzertua ikusteko. Herriko abeslari eta musikariek, beste behin ere, aho zabalik utzi zituzten ikusleak. Udal Musika Bandak Jacob de Haan konposatzailearen *Virginia* obrarekin

ireki zuen kontzertua. Abesbatzen txanda etorri zen gero; Imanol Urtzelairen zuzendaritzapean Aritzeta abesbatza eta Aitor Biainek zuzenduta Bergarako Orfeoia.

Kontzertua amaitzeko, urtero moduan guztiak elkarrekin aritu ziren Orkestra Sinfonikoarekin

batera. Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariak *Avatar* filmaren soinu banda aukeratu zuen aurtengo kontzertua bukatzeko. Amaiera ezin hobea, zirrargarria izan zen, eta Ainara Ortega bakar-lariaren ahotsak, momentu batean, beste mundu batera eroan zituen pilotalekuko ikusleak.

Gonzalez Chirlaquek egindako James Hornen konposatzailearen obraren moldaketa lehen aldiz entzuteko aukera izan zen zapatuan Bergaran. *Avatar* abestia amaitu ostean txalo zaparrada amaiezina izan zen.

Ohitura den moduan Gabonetako kontzertua *Hator Hator* eta *Adeste Fideles* abestiekin amaitu zuten.

Gabon giroa aste bukaeran

Bergarakoa baina ez da izan asteburuan Debagoienean egin den kontzertu bakarra. Atzo Oñatiko parrokiaren herriko musikari eta abesbatza guztiak batu ziren. Udal Musika Bandak, Oñati Abesbatzak,

Parrokiako Koruak, Ganbarak, Ganbara Txikik eta Txantxiku ikastolako abesbatzak Gabon giroa ekarri zuten herrira.

Egubakoitzean, berriz, herrietako musika eskoletako gaztetxoentxanda izan zen. Kontzertuak egin zituzten Bergaran, Eskoriatzan eta Arrasaten. Antzuolan gaur arratsaldean egingo dute emanaldia, 18:30ean Torresoroan.

Bestalde, Bergarako Orfeoia kontzertua eskainiko du abenduaren 23an Mariaren Lagundiako elizan, 20:00etan. Kontzertua urtean zehar hil diren orfeoikideei eskainiko zaie, bereziki Migel Moñux, Jose Mari Juldain eta Jesus Berroyari.



Avatar filmaren soinu bandarekin amaitu zuten Bergarako Gabonetako kontzertua. | J.C.



Oñatin Gabonetako kontzertua egin zuten atzo iluntzean parrokiaren. | JULIO CALLEJA

Zu gure
Gabonetako
 espiritua zara

Zeu zara gure tailerren eta animazioen espiritua: Informatu eta parte hartu zuretzat antolatu ditugun jardueretan. Eta lagundu gaitzazu gure zuhaitza apaintzen.

Zorionak!

Ilusioz beteta. ZUTAZ beteta.

www.el-boulevard.com • www.tublogelboulevard.com • f • Bezeroarenganako Arreta: 945 155 440

el Boulevard
 de Vitoria-Gasteiz

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Altasu. Etxe adosatua salgai. Hiru solairu, lorategia eta garajea. Erdi jantzi eta berrikuntza. Deitu 616 92 44 70 edo 676 85 51 70 telefonora.

Aramaio. Aukera paregabea. 2001eko etxebizitza salgai. 70 metro koadro. Garaje itxia. Garbata. Zuzenean bizitzera sartzeko moduan. Aita Gabirel kalean. 177.300 euro. 656 73 13 21

Arrasate. Erguin kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komuna. 205.000 €. 606 86 71 97

Bilbo. Etxe handia eta eguzkitsua salgai bilboko basurtu auzoan. Ospitaletik gertu eta tren geltokiaren ondoan. Basurtuko beheko partean dago, indautxu ondoan. 180.000 euro. Aukera paregabea! Deitu 635 72 79 37 telefonora.

Durango. Etxea salgai Andra Maria kalean. Bilogela, egongela, sukaldia eta komuna. Etxe guztiak kanpoaldera ematen du; oso argitsua. Pisu altua, 30 m2 ko terrazarekin. Deitu 696 25 50 83 telefonora arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

Durango. Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altxariz hornitua. 2 logela. Egongela. Sukaldia. Komun bat. Guztiz berri zutua. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailereta teitlatua. Barrutik (2007): parketa (elondoa), sukaldia (fagor elektrotresnak eta junkers galdera), gres, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihok, ate blindatua. Berehalaz bizitzera joateko aukera. 215.000 euro. 607 71 53 53

Durango. Atiko zoragarria salgai durangoko alde zaharrean. Duela urte eta erdi erabat berri zutua. Erabat jantzia. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Kapritxosoa. Etorrikustera! 659 42 58 90

Durango. Sasikoa kalean. 71 m2 kopisua. 3 logela, komuna, egongela jangeleta sukaldia. 2 balkoi. Kafekaxia ere badauka. Kamarotea eta garajea. Prezio oso ona. 679 38 23 69. Sorkunde.

Durango. Kalebarrian, 74 m2. 3 logela, despentsa, saloia, sukaldia eta komuna. Erreformaturata, oso polita. Kamarotea. Ikusi gura badozu deitu konpromezu barik: 696 39 73 87

Etxarri aranatz. Etxea errentan edo salgai. 654 23 41 02.

Etxarri aranatz. Pisu alokagai edo salgai. 84 m2, 3 logela eta berri zutua (berogailua, leihok). Alokatzeko 360 euro, eta salmentaren prezioa 108.000 euro. Hots egin 654 23 41 02 telefonora.

Eskoriatza. 47 metro koadroko apartamentua salgai. Logelabat. Sukaldia jantzia. Garajearekin. Hiru urteko eraikuntza. 21:00etatik aurrera deitu, mesedez. 650 95 56 44

Iurreta. Etxea salgai askondo kalean. 210.000 euro. 78 m2, 3 logela, sukaldia, egongela eta komuna. Iggogailua badago. Garajea ere bai, gura bada. 94 681 19 48.

Oñati. 67 m2ko etxebizitza salgai Bakardadeko Ama kalean. Sukaldia, egongela, bilogela eta komun bat. 264.000 euro. Garaje itxia aukeran, 35 m2, argi eta ur instalazioarekin. 66.000 euroan. 659 72 06 64

Oñati. 60 m2ko apartamentua salgai erdigunean. Hiru logela, komun bat eta sukaldia egongela. Nahiko berria eta jantzia. 651 70 90 53

Oñati. 60 m2ko etxebizitza salgai San Lorentzon. Bi logela, komun bat eta sukaldia egongela. Jantzia eta berri zutua. 192.000 euro. Deitu 20:00ak eta 22:00ak artean, mesedez. 699 78 47 49

Oñati. Etxaluzen etxebizitza salgai. Sukaldia, jangela egongela, lau logela, bi bainugela, bi balkoi, trastelekua ganbara eta garajea. 647 24 80 02

103. ERRENTAN EMAN

Aramaio. Etxebizitza bi ematen diran errentan. Bata, handixeageoa, Pedro Ignazio Barrutia kalean. Bestea, txixixageoa. 647 22 09 38

Arrasate. Altamiran, Jose Luis Iñarra kalean, hirur logelako etxebizitza ematen da errentan. Berri zutua. Berokuntzarekin. Jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. Eguzkitsua eta kanpoaldera begira. 617 17 18 23

Arrasate. Erguin kalean hirur logelako etxebizitza ematen da errentan. Berri zutua. Berokuntzarekin. Jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. Eguzkitsua eta kanpoaldera begira. 617 17 18 23

Arrasate. Zarugalde kalean etxebizitza ematen da errentan. Sukaldia, egongela, bi komun eta bi logela. Berokuntza eta igogailuarekin. 656 75 00 94

Atxondo. Atxondon bi logela alokatzen dira, komunarekin eta sukaldia eskubidearekin. 666 82 95 10

Beasain. Beasaingo erdialdean etxebizitza bat alokatzen da. 686 80 14 12.

Durango. Durangon pisua konpartitzeko laguna behar da. 679 62 04 47

Etxarri Aranatz. Pisu alokagai edo salgai. 654 23 41 02.

Etxarri Aranatz. Pisu alokatzen da. 615 83 40 28

Etxarri aranatz. Pisu bat alokatzen da. Merkea. 607 31 76 67.

Oñati. San Lorentzon etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldia. 650 56 62 06

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Pertsona arduratsua etxebizitza txikia hartuko luke errentan. Presazkoa da. 666 21 88 95

Arrasate. Arrasatear neska langile eta arduratsua naiz, eta etxea hartuko nuke errentan arrasate erdialdean. 500 euro arte ordainduko nuke. Mila esker. Iraia. 606 74 42 37.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 450 500 euro ordain ditzaket hilean. 699 66 33 63

Bergara. Bikote batek etxebizitza behar du errentan. 610 62 65 04

Eibar. Bikote bat gara eta pisua (12 logela) edo apartamentua alokatu nahi genduke eibarren. 600 euro inguru ordaintzeko prest gaude. Deitu 645 72 86 73.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Lau logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Bertan langileak bizi dira. 653 71 44 57

Arrasate. Irakasle ikasketak egiten hasiko garen bi ikasle gara, enara eta amaia, eta hirur logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu. Etxea egoera onean dago. 200 euro izango lirake pertsonako (gastuak aparte). Etxeak bainugela, sukaldia eta 3 logela ditu, indibidualak eta bakoitza bere idazmahaiarekin. Deitu 695 71 92 38 telefonora

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 20,50 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 21 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 28 € (+BEZ).

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: **iragarkilaburrak.com**

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. Deitu 630 71 35 83 telefono zenbakira.

Arrasate. Logela ematen da errentan. Interesatuok deitu 619 78 63 41 telefono zenbakira

Arrasate. Logela bat ematen da errentan erdigunean, ikasleentzat edo beste edozeinentzat. Deitu 648 86 05 49 edo 666 68 00 04 telefono zenbakietara.

Arrasate. Erdigunean pisua osatzeko pertsona bat behar dugu. Hilean 200 euro, gastuak barne. Iñaki. Interesatuok deitu 608 49 89 93 telefono zenbakira.

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu alokagai Arrasate. Interesatuok deitu zenbakira. 630 71 35 83.

Arrasate. Ikasleendako logela ematen dut errentan, komun partikularrekin. Unibertsitate-

tik gertu, erquin auzoan. 648 19 10 38

Bergara. Logela ematen da errentan. Emakume batentzat, nahiago. Sukaldia erabiltzeko eskubidearekin. 650 62 12 94

Donostia. Bi neska langile pisukide bila gabiltza: urtarilaren 1etik aurrera sartzeko eta denbora luzerako nahi genduke. Hobe langilea bada; hirur logelako pisu Ametzaginan dago egia kaletik gertu. Deitu 615 71 71 55 telefonora arratsaldeko 18:30etatik aurrera

Oñati. Pertsona baten bilanabil etxea osatzeko. 606 15 11 47

Oñati. Logela bat alokatuko nuke. 606 15 11 47

Oñati. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errenta emateko errekaldean. Deitu 18:00etatik aurrera. 653 74 87 51 edo 699 46 76 11.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Arretxabaleta. Garaje itxia salgai Santakruz 25 27an. Interesatuok deitu zenbakira honetara: 630 46 36 71

Berriz. Garajea saltzen denez berriz. Itxia. Argia eta ura (azpiegitura berriak). Ate automatikoa, bainua, txoko eta bodega txiki bat. 41m2. 2 edo 3 kotxe. 615 75 21 36

Durango. Garajea (marrak) alokatzen dut Durango erdian, landako 7 kalean (madalena autobus geltokia dagoen tokian), 625 92 10 57

Etxarri aranatz. Garaje partzela alokatzen da plaza aldean. 652 26 28 18.

202. ERRENTAN HARTU

Oñati. Garajea hartuko nuke errentan san Juan kale inguruan.

Berdin da itxia izan ala ez. 627 62 12 55

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje itxia ematen da errentan Ibargarai etorbidean. Deitu 679 74 00 61 telefono zenbakira

3. LOKALAK

301. SALDU

Etxarri aranatz. Plazako lokal bat eskualdatzen da. 948 46 03 12 edo 619 96 80 41.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Debagoiena. Emakume eskualdu bat behar da emakume heldu bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 696 46 03 85

BERGARA

Azpeitxi jatetxean zerbitzaria behar da. 943 76 55 00

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakumea gertu orduka zein etxean bertan bizi izanda nagusiak edo umeak zaintzeko, baita garbitasun lanak egiteko ere. 680 30 24 64

Arrasate. Neska gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo elkarrekin garbitzeko. Esperientzia daukat. Ordu egiteko. Dorleta. 618 00 08 28 edo 943 79 82 43

Arrasate. Enkafratze lanetan aritutako lehen mailako ofiziala lanerako gertu. Bestelako lanak ere egingo nituzke. Deitu 673 03 09 60 telefonora.

Arrasate. Emakumea gertu sukaldari lanak egiteko asteburuetan edo nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanerako. Interesatuok deitu telefono zenbakira honetara: 619 78 63 41

Arrasate. Neska gertu zerbitzari edo garbiketara lanerako. 679 04 42 68

Arrasate. Neska boliviarra lanerako gertu. Etxean bizitzaren edo asteburuetan. Legezko dokumentu guztiak. Interesatuok deitu telefono zenbakira honetara: 618 14 71 34

Arrasate. Hemengo neska bat, lanerako prest: etxeak garbitzeko, umeak zaintzeko edo edozein lanerako prest nago, orduka ere bai. 659 55 27 16.

Arrasate. Emakume eskualdu gertu, orduka plantxa zein garbiketara lanak egiteko edo umea eta nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbakira honetara: 699 54 17 27.

Arrasate. Nagusi zein umeak zaintzen eta garbiketara lanak egingo nituzke. Gaez zein egunez. 618 14 71 34

Arrasate. Asteburu eta jaiegunetan lan egiteko gertu: garbitasun lanak, nagusiak edo umeak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbakira honetara: 682 31 97 37

Arrasate. Umeak zainduko nituzke. Eskolara bila joateko aukera ere bai. Aisialdi titulua daukat. 661 35 49 28

Arrasate. Arrasateko neska gazte eskualduna goizetan etxeak garbitzeko prest. Esperientziaduna. 618 41 24 79

Arrasate. Gazte bolibiarra lan bila dabil, edozertarako gertu. Deitu telefono honetara: 689 64 32 15

Arrasate. Emakume arduratsua gertu nagusiak zaintzeko. 635 00 58 17

Arrasate. Neska eskualduna, esperientzia handikoa umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. 659 81 59 15.

Arrasate. Neska eskualduna, haur hezkuntza ikasketak burututakoa, umeak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbakira honetara: 615 76 19 82

Bergara. Umeak zaintzeko, garbitasun lanekin edo nagusiak zaintzeko (azken honetan esperientziaduna) gertu nago. Ordu egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbakira honetara: 676 89 50 13

Bergara. Emakumea gertu etxeak garbitzeko eta baita sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko ere. Interesatuok deitu

telefono zenbakira honetara: 665 75 41 32

Bergara. Umeak zaindu eta etxeko lanak egiten lan egingo nuke. 665 75 41 32

Bergara. Bergaran lana egingo nuke. Administrazioan 18 urte baino esperientzia gehiago. Seriotasuna. 615 71 99 39

Bergara. Emakume bat gertu goiz eta arratsalde umeak edo nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbakira honetara: 610 34 97 88.

Bergara. Emakume gaztea haurrak zaintzeko gertu. Ordu egiteko aldetik arazorik ez. Interesatuok deitu telefono zenbakira honetara: 673 22 38 00

Bergara. Haurrak zaintzeko gertu nago, orduka zein egun osorako. Esperientzia handia daukat. 686 11 24 66

Bergara. Esperientziadun neska umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 665 75 41 32.

Bergara. Emakume eskualduna gertu, umeak zaintzeko. Hautzaintza titulua eta esperientzia daukat. 688 65 30 62 (Arantzazu).

Bergara. Esperientziadun neska umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 665 75 41 32

Bergara. Bergaran haur heziketa ikasi duen emakume eskualduna gertu, umeak zaintzeko gertu. Egunguztien. 943 53 42 54 edo 688 65 30 62

Debagoiena. Neska esperientziaduna gertu zerbitzari edo garbiketara lanetan jarduteko. 679 04 42 68

Debagoiena. Esperientziadun emakumea gertu sukaldari jarduteko. Garbiketaren erarituko nintzateke. 619 78 63 41

Durango. Neska eskualduna, etxeko lanak, portakal zein tabernak garbitzeko prest. Durangaldean. Kotxea dut. 946 81 71 74

Debagoiena. Bertako neska esperientziaduna gertu asteburuetan nagusiak zaintzeko.

IXORRIERRI Inmobiliaria

www.inmobiliariari.com Justo Añuri 2 • Sondika (Bizkaia) 94-4711282/94-4711811

ETXEAK
LOI: 312.620 €. 30 m2 etxe zoragarria, 2 logela, hormako armairua, egongela-terrazza, sukaldia, 2 bainugela, garajea, trastelekua.
LOI: 438.800 €. 100 m2ko behaldea, 500 m2 lorategia, 3 logela, egongela, sukaldia, bi bainugela.
SONDIKA: 154.500 €. Berri zutua, 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela, terraza.
SONDIKA: 210.354 €. Berokuntza sistema, 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela.
SONDIKA: 245.200 €. Iggogailua, 3 logela, hormako armairua, egongela, sukaldia, bainugela.
SONDIKA: 381.700 €. Berria, 3 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua.
ERANDIOGOIKOA: 148.000 €. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela, terraza, berokuntza, berri zutua.
DERIO: 190.000 €. Berri zutua, 2 logela, egongela, sukaldia, jantzia, bainugela, terraza, banakako berokuntza.
DERIO: 229.502 €. Berri zutua, 3 logela, egongela, sukaldia, jantzia, bainugela, terraza, banakako berokuntza.
DERIO: 300.506 €. Berria, 3 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, garajea, trastelekua.
DERIO: 342.570 €. Behaldea lorategiarekin, 3 logela, egongela, 2 bainugela, trastelekua.
ZAMUDIO: 188.094 €. Berokuntza sistema, 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela, terraza.
ZAMUDIO: 230.000 €. Berri zutua, 2 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, terraza, banakako berokuntza.
LEZAMA: 530.000 €. Iggogailua, altxariz jantzia, 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela, terraza.
LEZAMA: 309.500 €. Berria, 2 logela, egongela, sukaldia, esekitokia, bi bainugela, 2 terraza, banakako berokuntza, garajea eta trastelekua.
LEZAMA: 300.000 €. Berria, Hornitua, 120 m2, 3 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, garajea.
LARRABETZU: 210.400 €. Berria, 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela, banakako berokuntza.
LARRABETZU: 239.000 €. Berria, 2 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, banakako berokuntza, garajea eta trastelekua.
ALGORTA: 234.390 €. Villamonte inguruan, 65 m2, 3 logela, egongela, terraza, bi sukaldia, balkoi, bainugela, Berri zutua dago.
ALGORTA: 450.750 €. 112 m2, 3 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, terraza, banakako berokuntza.
SONDIA: 526.500 €. 4tik gorra, bi familiarentzako, berria, inguru zoragarria.
SONDIA: 552.930 €. 240 m2 etxe atxikia, bi salerria, 100 m2ko terraza.
SONDIA: 746.000 €. 240 m2 etxe, familia bakarentzako, 500 m2 terraza.
ARTZANDI: 951.846 €. Bi familiarentzako biserria, 237 m2, erabat apalatsua, 1.900 m2.
LEZAMA: 330.000 €. Bakoitzak, 3 etxe atxiki, erakizten, 210 m2.
DERIO: 557.138 €. Berri erakitziko etxe atxiki hornitua.
ERANDIO: Unibertsitatean. 750.000 €. 2 adosatuok familia bakarentzako etxe, 14.000 m2 terraza.
LAUIKIZ: 1.030.000 €. Familia bakarentzako etxe, inguru zoragarria, 900 m2 eta 3.700 m2ko terrazoa, igelakarekin eta zuhaitzekin.
MARTIARTU: 343.300 €. Bi familiarentzako etxe, 220 m2 bakarreko, berria, inguru zoragarria.
DERIO: 390.000 €. Familia bakarentzako familia zoratuta, 200 m2 eta soltoa.
BAKIO: 825.000 €. 200 m2ko taberna, inguru zoragarria, informazio paraiso nazionala.
ALOKAIRUAK
ASUA: 800 €. 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela, banakako berokuntza, igogailua.
SONDIKA: 700 €. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela, banakako berokuntza, igogailua.
DERIO: 850 €. 3 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, banakako berokuntza, garajea eta trastelekua.
LOI: 900 €. 3 logela, egongela, sukaldia, esekitokia, 2 bainugela, banakako berokuntza, terraza.
SONDIKA: 1.800 €. Bi familiarentzako 280 m2ko etxe eta 150 m2ko terrazoa.

Deitu telefono honetara: 63718 0723

Debagoiena. Erizain laguntzaile gertu nagusiak zaintzeko. Ordugegi malgua. Gauze ere bai. Autoa daukat. 622 05 21 74

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzen, nagusi laguntzen edo orduka garbiketa lanetan jarduteko. Deitu eguerdian, 16:00ak arte, telefono finakora, edo gaudetan. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

Debagoiena. Neska euskalduna gertu goizez etxeko lanak egiteko. 616 68 02 18

Debagoiena. Frantses eskolak emango dizkidan norbait behar dut. 617 93 83 39

Debagoiena. 7 urtetako mutiko atzerriar bati, euskarazko klaseak emango dion norbait behar dugu astean 2 orduz komunikatzeko gaitasuna lortzeko helburuarekin. 673 93 76 94 tutar,

Debagoiena. Emakume euskaldun bat behar da emakume heldu bat zainduta etxeko lanak egiteko. 696 46 03 85

Debagoiena. Neska bat etxeko lanak egiteko prest, orduka, interna edo ez; edozein modutan. Tabernetan ere lan egingo nuke. Esperientzia daukat sukaldetan. Eta garbiketa lanak ere egiteko prest nago. Erreferentziak dauzkatzat, baita paper guztiak behar bezala ere. 943 53 36 72 edo 677 73 79 59

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetan jarduteko. Etxean bizi izaten edo bestela. Erreferentziak onak ditut. 638 93 11 48

Debagoiena. Emakumea gertu goizetan nagusiak zaindu edo garbiketarako. 626 78 22 95

Debagoiena. Esperientziadun emakume gazte batek hainbat lan egingo lituzke: etxeko lanak, etxeak garbitu, sukaldari laguntzaile, zerbitzari... 663 46 93 60 edo 943 08 11 07

Debagoiena. Mutil gaztea askotariko lanak egiteko gertu. 654 98 69 14

Debagoiena. Neska gertu garbiketa lanak egiteko edo etxean bizi izaten zein bestela nagusiak zaintzeko. 610 60 62 29

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 671 15 96 97

Debagoiena. Neska gertu etxeko lanak egiteko, garbiketa lanetarako, laguntzaile jarduteko eta nagusi edo umeak zaintzeko. Legezko paperak dauzkat. Telefonoak: 648 01 40 94 edo 943 08 20 79

Debagoiena. Ile apaintzaile edo makillatzaile lanetan jardungo nuke. Baita nagusiak zaintzen ere. 666 21 88 95

Debagoiena. Emakumea eskaintzen da asteburutan lan egiteko, garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzen. 699 09 46 26

Debagoiena. Mutila gertu asteburuetan edozelako lanak egiteko. 654 98 69 14

Debagoiena. Mutila gertu garbiketa edo bestelakolanerlan jarduteko. 689 88 80 23

Debagoiena. Paperak dituen emakumea gertu etxeak garbitzeko, sukaldari laguntzaile edo garbitzaile gisa lan egiteko. 645 69 36 51

Debagoiena. Musikari jartzen dut ezkontza ta festetan Prezio interesgarriak. Idatzi helbide honetara: nahiz13@gmail.com edo deitu. 663 72 78 23

Debagoiena. Emakumea gertu manikura eta pedicura egiteko. 12 euro. Telefonoa: 654 79 07 58

Debagoiena. Edozein lanetarako gertu nengoke. Ordugegi malgua. Beatriz. Telefonoa: 610 99 70 46

Debagoiena. Esperientziadun emakume gazte batek hainbat lan egingo lituzke: etxeko lanak, etxeak garbitu, sukaldari laguntzaile, zerbitzari... 663 46 93 60

Debagoiena. Askotariko obrak egiteko gertu gaude; besteak beste, denetariko margotzeak, parke flotatzaileak, harrizko harresiak eta pladurrezko sabaia. Prezio merkeak. 675 70 00 02665 70 10 57

Debagoiena. Lokal, baserri eta denetariko egoitzak garbitzeko prest gaude. 675 70 00 02665 70 10 57

Debagoiena. Emakume batek garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zainduko lituzke asteburuetan. 699 09 46 26

Debagoiena. Gizona gertu edozein lan egiteko. Telefonoa: 646 27 70 46

Debagoiena. Bergara edo arrasate. Mutila gertu sukaldari laguntzaile, zerbitzari, garbiketa edo nagusiak zaintzen jarduteko. Esperientziaduna eta legezko paperekin. Telefonoa: 634 84 41 94

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest nago. 638 89 98 60

Debagoiena. Neska gaztea gertu lan hauetarako: zerbitzari (hiru urte eta erdiko esperientzia), garbiketa lanak (etxeak, atariak eta abar) edota ume zaintzaile. 664 37 49 85

Debagoiena. Neska gertu etxeko lanak egiteko, garbiketa lanetarako, laguntzaile jarduteko eta nagusi edo umeak zaintzeko. Legezko paperak dauzkat. 648 01 40 94943 08 20 79

Debagoiena. Neska gaztea, lanerako gogo handiz, gertu etxeko lanak egiteko, ume edo nagusiak zaindu edota bestelako lanetan jarduteko. Ana maria. 943 79 90 21 620 83 59 50

Debagoiena. Emakumea gertu ile apaintze lan egiteko edo garbiketa zein nagusien zainkarako. 619 23 37 30

Debagoiena. Gizona gertu eraikitzaile jarduteko (erakuntza ofiziala naiz) edota garbiketa lanetarako. 639 41 68 38

Debagoiena. Mutila gertu

gabonetan zehar edozelako lanetan jarduteko. Telefonoa: 654 98 69 14

Debagoiena. Arrasate edo bergara. Neska gertu nagusiak zaindu, garbiketa, sukaldari laguntzaile. Legezko paperak eta informeak dauzkat. Esperientziaduna. 659 37 41 95

Debagoiena. Geriatria laguntzailea, pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Baita gaixok ospitalean zaintzeko ere, gauak barne. 08:00etatik 15:00etara edo 20:00etatik goizeko 08:00etara egingo nuke lan. Mirian. 646 05 58 88 / 943 79 79 49

Durango. Goizez umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. 665 71 74 58 edo mai egidazu@hotmail.com

Durango. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen lan egingo nuke, interna edo externa modura. Baita sukaldari moduan ere, jate txetean. 628 00 22 17

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Gitarra eskolak. jasoko nituzke Arrasaten. 657 71 74 82.

502. EMAN

Andoain. Lehen hezkuntzako irakasleak klase partikularrik emango lituzke andoainean edo inguruko herrietan. 675 70 04 57943 30 03 56. Xabier.

Arrasate. Debagoienean matematikako eskola partikularrik ematen dira. Udan eta kurtsuan zehar. Dbh eta batxilergo mailak. 696 38 10 07

Arrasate. Eskola partikularrik ematen ditut. DBH eta batxilergo mailak barne. Itsaso. 699 39 20 20 edo 943 79 78 96

Arrasate. Ingeleseko eskolak ematen ditut. Maila guztiak, sei urtetik aurrera. Arantxa. 688 64 12 56

Arrasate. Ikasgai guztietan eskola partikularrik ematen

ditut. Lehen hezkuntza, DBH... Aisialdi titulua daukat. 661 35 49 28

Arrasate. Neska euskalduna LHko eskola partikularrik emateko gertu. 615 76 19 82

Arrasate. Neska gazte euskalduna. Lehen hezkuntzako ikasleei ikasketetan laguntza emateko prest. 616 32 73 08.

Arrasate. Neska euskalduna, ekonomian lizentziaduna, eskola partikularrik emateko gertu. 679 97 76 46.

Azpeitia. EGAko azterketarako zein beste hizkuntza eskakizunetako azterketetarako jendea prestatzen ditut. Euskararen irakaskuntzan esperientzia dut. Euskaltzagi irakaslea naiz. Gipuzkoan barrena mugitzeko prest nago. 4. H. E. daukat. 645 71 85 78

Azpeitia. Euskarako klase partikularrik ematen ditut, besteak beste, behar hauek dituztenentzat: ega edo hizkuntza eskakizun bat atera nahi duenari, bere euskara maila idatzia edo ahozkoa hobetu nahi duenari, eskolan euskara ikasgaia gaituzteko arazoak dituenari, eta abar. Majisteritza eta 4. H. E. dauzkat, eta euskaltzagi irakaslea naiz. Gipuzkoan osoan mugitzeko prest. Kontakua, 645 71 85 78

Bergara. DBHko eskola partikularrik ematen ditut. 20:00etatik aurrera deitu. 943 76 03 75 edo 605 26 24 62

Bergara. Bergaran ingeleseko elkarriketa lantzeko eskola partikularrik ematen ditut. 654 94 87 26

Bergara. Irakasle esperientziadun batek lh eta dbhko lehen zikloko eskola partikularrik ematen ditu. Ingeleseko first ziurtagiria du. 636 16 30 10

Bergara. Neska euskalduna, haur hezkuntzan diplomaduna, lehen hezkuntzako eskola partikularrik emateko prest. 676 41 12 58

Bergara. Goizez etxera joanda ingeleseko eskolak ematen ditut. Gurasoei zuzendutako eskolak, ohiko maila lortzeko. Pazientzia handia daukat. Telefonoa: 679 74 00 61

Bergara. Ingeleseko eskola partikularrik ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak gertatzeko ere bai. 618 91 32 89

Bilbo. psikopedagogian lizentziatua den neska klase partikularrik ematen ditu bilbon. 639 52 86 79

Donostia. Panderoa, kainabera eta txaramelak. Asteazken goizetan, Donostiako Arrano Beltza eskaltokian (katzakalea, 10) informazio gehiago: arrano-koikastaroak@gmail.com

Donostia. Klase partikularrik lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzat. Esperientzia handiko irakaslea, heziketa berezian diplomaduna eta gizarte eta kultur antropologian lizentziaduna. Behar izanez gero, jarri nirekin harremanetan: 628 04 15 26.

Durango. 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espesialitate matematika klaseetan. Telefonoa: 635 74 61 76

Öñati. Irailetik aurrera klase partikularrik ematen dira. Esperientziadun irakaslea naiz eta banaka edo talde txikiak hartzen ditut. L. H., D. B. H. eta batxilergo mailetan. Ikaslearen edo irakaslearen etxean. Deitu telefono honetara: 649 27 63 50 edo 943 53 28 15

6. MOTORRA

601. SALDU

Ondo zaindutako Volswag polo autoa. Jabe bakarra izandakoa. Bati garajean gordetako. 626 23 93 98.

Opel vectra. 2.2 dti, 16v gts autoa salgai. 2004koa. 105.000km. lat eta errebisioak eguneratuta. 7.500 euro, negoziagarri. Xabier. 647 51 52 54

Mercedes viano. Cdi 2.2 ambiente. 150 zp. 7 lagundeko eserlekuak. Olio azterketa 2010eko urrian egingia. 2008ko urrian matrikulatua. 30.500 km. la berria. 688 65 21 19

Opel vivaro. Lo egiteko prestatuta dagoen Opel Vivaro furgoneta salgai. Gutxi erabilia eta extraugaririk (berokuntza, 2. Bateria, toldoa, bizikletak eramateko, isotermaok, 3 pertsonendako ohea, eserleku giratorioa, komuna,...). Kontaktatzeko telefonoa: 665 70 75 35

Vw multivan 2500 tdi salgai. Vw multivan 2500 tdi salgai. 15.000 euro negoziagarriak. 647 91 93 56

Vw transporter furgoneta salgai. Vw transporter furgoneta salgai. 1.9 turbo diesela. 6 plaza. 2000ko abenduan matrikulatua. Udaleko zerga 2011ko ekainera arte ordainduta. lat (ITV) otsailera arte. 180.000 km. 6.590 euro. Telefonoa: 678 30 42 02

Yamaha jog scooter bat salgai. Yamaha jog motorra salgai. 2.000 km. lata pasatuta. Ezer aldatu barik, dena originala. Bati egon da garajean. strato-kaster@gmail.com. Telefonoa: 650 17 22 85

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Indioilarrak. Bi indioilar ekologiko salgai. 18-20 kilokoak. 200 euro. Deitu 669 41 69 46 telefono zorbakira

Zaldiak. Zaldi arabiarra eta moxal emea salgai, euren dokumentazioarekin. 675 70 85 74

Oilgorretako txarkurra salgai. Oilgorretarako txarkur emea, setterra. 7 urtekoa. 350 eurotan saltzen ditut. Interesatuek, deitu 943 01 65 78 telefono zorbakira.

703. EMAN

Artzai txakurra opari. Gorteko eskola artzai txakur kuma emeak oparitzen ditut, mustur baltza eta gorputza kanela kolorekoa. Ama oso trebea asto eta zaldiekin, eta aita ardiekin. Lemoan daude, ikusteko inongo pega barik. Azaroaren 14an jaiak. Ainhoa: 646 21 19 71

Artzain txakurra oparitzen da. 4 urte dituen artzain txakurra oparitzen da, ezin dugulako zaindu. 615 73 22 89

Katuak Gasteiztik. Katu abandonatuak kale gorritik atera, zaindu eta pertsona arduratsuei bakarrik ematen dizkiegu. Benetan maitagarriak eta ondo hezitua; bizitza ezituzko dituzte, dudu barik. Gasteizen gaude, baina beste lekuetara ere eramateko ditugu. Gure jarduerazagutuzko sartu www.esperanzafelina.com webgunean edo deitu 650 80 76 72 telefonora.

801. SALDU

Erepedeko bizikleta saltzen dut. Orbea onix. 2009koa. Karbonozko tijaduna, 54 neurri-

koa. Shimano 105 aldagailuarekin eta compact sistemarekin. 645 00 56 81.

Eskiatzeko botak salgai. Estreinatzeke. Nordica etxekoa, easy move sx modeloa, neskendako, 24,5 neurrikoak. Prezio interesgarria. 626 64 63 34

Pingongo mahai profesionala salgai. Antzuolan. Egoera oso onean, berri dago. Prezioa, adosteko. 660 52 11 48.

Snow taula salgai. Snow taula salgai. Atomic tika modeloa, neskena. 1.44 neurrikoa. Behin bakarrik erabilia. Egoera oso onean. 679 09 33 34

Surf taula saltzen ditut. Mini malibu (7,3) taula berria da, bic markakoa. 270 euroan. (grip+killak+leash+nylonetako funda) arrazoiak: beste bat erosi nahi dudalako. 605 73 07 77

Ekonomika. Lakuntza klasik markako ekonomika. Egoera onean eta oso gutxi erabilia. 649 51 09 41

Hozkailu txikia salgai. Egokia gazte lokaletarako. Oso egoera onean, 2009ko maiatzean erosia. A klaseko eragin kortasun energetikoa dauka. Bala etxekoa. Prezioa: 300 euro. 653 74 23 17.

Izozkailu bertikala salgai. Izozkailu bertikala salgai. 125 euro. 679 38 23 69

Logelako altzari berriak salgai. 1,35eko forjako ohea, 2 gau mahai, 2 lanpara, nordikoa, izarak, koltxoia, somierra... Dena estreinatzeke, oso oso polita da. Etorri ikustera konpromisorik gabe. Furgonetarik ez badaukazu, galde egidazu! Telefonoa: 606 21 37 18

Gurpildun aulki elektriko salgai. Egoera paregabea. 1.500 euro. 677 38 85 64

Gabonetarako kapoiak salgai Elorrion. Gabonetarako kapoiak salgai, 4 kg bitartekoak. Labarako prest. 626 76 10 10 edo 686 81 02 03

Home cinema salgai. 943 79 60 89

Olympus e510. Argazkikamera salgai. Bi objektibo (14 42mm eta 40 150mm. Bateria, kargadore bat, kableak, Lowepro poltsa eta tripodea. XD txartel 1GB eta 2GB. Guztiak 450 eurotan baina beti ere merketu ahal da. 687 56 07 09 Jon

Emisore termikoa. 10 elemento (1.300w). Berria. Programatu daitekeen termostato digitala. 696 26 71 65

Ordenagailua eta home cinema. Packard bell ordenagailua eta home cinema, philips etxekoa, salgai. Telefonoa: 943 79 60 89

Invacare dragon gurpil aulki elektriko salgai. Invacare dragon gurpil aulki elektriko salgai. Bi hilabetean erabilia; garantzia dauka (2012 7), eta oso ondo zainduta. Estreintu barik dagoen duxtarako aulkia opari (tolesgarria eta 120 euro balio du). Prezioa: 1.500 euro. Telefonoa: 656 773 604 (arratsalde). E posta: oscrudlar@yahoo.es

Mahaiko ordenagailu salgai. Asus P5Gc mx/1333 E2140 2Gb 400GbE mahaiko ordenagailua saltzen ditut. Guztiz ekipaturik (plasmako pantaila, altabozak...). 2 urte eta erdi ditute oso egoera onean dago. Prezioa 230 euro. Telefonoa: 670 52 58 74

Kotzeko lau gurpil salgai. 185/60r14 82h. G. Grip, erdi prezioan. 1000km. Telefonoa: 627 10 25 12

Llantak eta erruberak salgai. 16 pulgadako llantak salgai eta euren gurpilak. 195x50x16. Aukerazkoa llantak bakarrik edo gurpil osoa erostea. Deitu honako telefono zorbakira honetara: 600 04 40 23

Play estacion salgai. Play estacion 2 saltzen dit, bimando, multitap, lau jokalarrialdi berean jolasteko, play stationa gordetako maleta orijinala, eta jako sorta, proevolution soccer 2010, originala, fifa 2003 originala, -moto gp 4, 3, 2, originalak, snk arkade clasic vol1 originala, colin macrae rally 2004 originala, formula one 2005, 2006 originalak. Gero joko pirata joko batzuk era badituzte, gehiagorakin nahi baduzue deitu telefono honetara. 687 56 07 09 Jon

802. EROSI

Elurretako erraketak. Bigarren eskuko elurretako erraketak erosiko nituzke. 628 51 22 78.

Inkubadora. Bigarren eskuko inkubadora bila nabil, txitak eta galeperrak ateratzeko. Deitu honako telefono zorbakira honetara: 686 50 06 92.

806. GALDU

Irakurtzeko betaurrekoak. Abenduaren 9an, eguena, galdu nituen Bergarako industrialdeetik kiroldegirako bidean. Aurkitu badituzu, deitu zorbakira honetara, mesedez. 943 76 28 35.

Pultsera. Joan zen azaroaren 25ean perla urdindun urrezko pultsera galdu nuen Kontzezino eta Erquin artean. Norbaitek aurkituko badu deitu mesedez zorbakira hauetara: 675 71 75 14 edo 943 79 42 65.

Urrezko katea. Bergarako Domingo Irala kalea eta Telesforo Aranzadi artean urrezko katea eta zintzilakia galdu nuen. Norbaitek aurkitu baditu, mesedez deitu. Ordainsaria egongo da. Teresa. Deitu honako telefono zorbakira hauetara: 649 63 23 24 edo 696 38 10 07

707. AURKITU

Laruzko txaketa beltz bat aurkitu nuen larunbat gauean Bergaran. Laruzko txaketa beltz bat aurkitu nuen larunbat gauean Bergaran, Simon Arrietako aldapan. Deitu 660 68 68 41 telefonora

808. BESTELAKOAK

Bergara. Azaroaren 29an etxeko atetik bizikleta hartu ziguten, Zubiaurren. Eraman baduzue ondo nabil ikusi, deitu, mesedez. Laranja kolorekoa da, mota zuriekin. la berria da. Deitu honako telefono zorbakira honetara: 943 76 01 30.

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Gasteizera joateko autoa konpartitu nuke. Egunero Gasteizera automobileran joaten naiz. 9:00etan Gasteizen egoten naiz eta 13:00ean bueltatzen naiz. Bakarrik joateko, edo bueltatzeko aukera. Deitu honako telefono zorbakira honetara: 690 19 82 79

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL

ALDIBATEKO LANA
Senpere, 7 (zentru komertziala) • BEASAIN
943-16 20 48
Ikusi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak

Bizkaia kalea 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 / Mug.: 665-71 8596
www.inmosalbide.com

Aia. Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.

Aizarnazabal. 89m2-ko BERRITUTAKO etxea. 3 logela, 2 bainugela, trastelekua, igogailua eta gasa. Oso etxe ederra. 36.000.000 pezeta.

Aizarnazabal. AUKERA ONA. Etxebizitza eraiki berria. 2 logela. 30.000.000 pezeta.

Getaria. Herrerietako kalea. 3

"Urteko pertsona" izendatu du 'Times'-ek Facebooken sortzailea

2010eko "urteko pertsona" Facebook sare sozialaren sortzaile Mark Zuckerberg izendatu du *Times* aldizkariak. Pertsonen artean erlazionatzeko modua aldatu egin dela dio aldizkariak eta azpimarratu dute hori guztia ekarri dutena Facebook eta Mark Zuckerberg izan direla.



M. Zuckerberg. | TIMES ALDIZKARIA

Julian Assangeren bideojokoak sekulako arrakasta lortu du


Wikileaks: *The Game* bideojokoaren bitartez milioi bat erabiltzaile baino gehiago saiatu dira Julian Assangeren ekintzak errepikatzen. Jokoa helburua da Barack Obama lo dagoen bitartean ordenagailutik filtratutako dokumentuak lapurtzea.



Bideojokoaren irudia. | WWW.EITB.COM

Google Body Browser: gizakiaren anatomia hiru dimentsiotan

Google maps eta *Google earth* erremintan ostean *Google*-ekoak orain gizakiaren gorputzaren barrura begira jarri dira eta Google Body Browser egin dute. Erreminta horren bidez giza gorputzaren hiru dimentsioko modelo birtual baten zehar esploratu ahal izango dugu.



Google Body Browser. | GOIENA.NET

Iraupen mugarik gabeko bideoak igotzeko aukera dago Youtuben

Oraingoz, zerbitzu berria probatzen ari dira eta erabiltzaile batzuek bakarrik igo ditzakete iraupen luzeko bideoak webgunera

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE
Joan den uztailan, Youtubek hamabost minutuko bideoak igotzeko baimena eman zuen. Bada, orain, haratago joan da eta iraupen mugarik gabeko bideoak igotzeko aukera izango dute erabiltzaileek. Dena dela, zerbitzu berria probatzen ari dira oraindik eta erabiltzaile bakar batzuek dute bideo luzeak webgunera igo

ahal izateko aukera. Youtubek berak bere blogean azaldu duenez, "komunitateko arauak eta copyrightaren legeak" betetzen dituzten erabiltzaileei eman diete, oraingoz, zerbitzu berriarekin aritzeko aukera.

Zerbitzu berria martxan ipini ahal izateko edukia identifikatzeko, teknologia handiko sisteman etengabe aurrerapenak

egin behar izan dituzte, eta, bestetik, egile-eskubideen jabeentzat gaitasun handiko tresnak jarri.

Youtubek iraupen luzeko bideoak igo ahal izateko gonbidapena egin die, besteak beste, AEBetako zinema-estudio nagusien eta diskografia famatuenei.


Bideo luzeak igotzeko

Iraupen luzeko bideoak igo ahal izateko konpainiak berak bere blogean gomendatu du aurretik igo nahi izan diren bideoak borratzeko eta prozesua berriro ere hasteko, betiere horretarako baimena izanez gero.

Zerbitzu berriaren gaineko informazioa, Youtuben, blogean: youtube-global.blogspot.com.



Antoni Dodsonen bideoa izan da ikusiena Youtuben. | WWW.YOUTUBE.COM



Justin Bieber, musikari ikusiena.

2010eko bideo ikusienak Google-en BIDEOKLIPAK EZ DIRENAK

1. *Bed intruder song !!!*: Antoni Dodson bere arreba erasotu zutela agertu zen telebistan eta berba egiteko duen erarekin abestia ere egin zioten.
2. *Tik Tok Kesha Parody*: Kesha abeslariaren Tik Tok abestiaren parodia zoroa da.
3. *Grayson Chance Singing Paparazzi*: Chancek piano emanaldi ikaragarria egin zuen Lady Gagaren *Paparazzi* abesten.
4. *Annoying Orange Wazzup*: Fruitu desberdinen arteko elkarrizeta dibertigarria.
5. *Old Spice*: Izen horretako bainurako produktuen iragarkian agertzen den gizon beltzaranak sekulako arrakasta izan du.

MUSIKARIEN BIDEOKLIPAK

1. Justin Bieber, *Baby ft. Ludacris*
2. Shakira, *Waka Waka*
3. Eminem, *Love The Way You Lie*
4. Eminem, *Not Afraid*
5. Rihanna, *Rude Boy*
6. Justin Bieber, *Never Say Never*
7. Justin Bieber, *Never Let You Go*
8. Lady Gaga, *Alejandro*
9. Justin Bieber, *Somebody to Love ft. Usher*
10. Lady Gaga, *Telephone ft. Beyonce*

Internetarako lehenengo espainolezko estilo liburua argitaratuko da 2011n

Fundeu BBVak finantzatu du eta Mario Tascon kazetariak zuzenduko du

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE
Internetek bere hizkuntza eta bere idazteko modu propioa du, gauzak kontatzeko bere modua. Desberdin irakurtzen den moduan, desberdin idazten da sarean, eta horixe zehaztuko du datorren urtean argitaratuko den Internetarako estilo liburua: nola idatzi Interneten, sare sozialetan edo edozein tresna elektronikotan.

Fundeu BBVA fundazioak finantzatu du estilo liburua eta Mario Tascon kazetariak jarraituko du zuzendari lanetan.

"Urte asko daramatzagu proiektu hau errealitate bihurtu nahian, eta 2011n, azkenean ere, argia ikusiko du. Hizkuntzak gero eta azkarrago garatzen eta aldatzen ari diren garai honetan, tresna bat sortu nahi dugu espainol hiztunak adi egon daitezela aldaketa horietara guztietara. Etorri-

zuneko hizkuntzaren zati garrantzitsu bat Interneten sortzen ari da", azaldu du Joaquin Muller Fundeu BBVako zuzendariak.

Gai elektronikoetan erabilgarri

Mario Tascon kazetariak azaldu du "espainolean interesa duen jende guztia" gonbidatuta dagoe-

la proiektu horretan parte hartzera: "Webgune bat izango da eta bertan, sarean idazteko sortzen diren arazo eta kezak argitzen ahaleginduko gara. Webgune hori, gainera, edozein gailu elektronikotik kontsultatu ahal da: sakelakoak, Ipadak...", adierazi du Tasconek.

Interneti begira egindako gida izan arren, papererako ere balioko duela azaldu dute.



Goienako kazetaria www.goiena.net webgunea elikatzen. | GOIENKARIA

TELE-BEGI

AMAIA PAVON
twitter.com/#!/amaiapavon'



Audientzia itsuak

Telebistaren etorkizunaz hitz egin zen *WebTV* mintegian EHU astekoaren. Hainbat adituk gaur egungo testuinguru aldakorra marraztu ziguten; horien artean, telebista-enpresetako ordezkariak beren estrategia berriez hitz egin zuten. Mezua argia zen: "Ikus-entzunezko produktuak dibertsifikatu behar ditugu pantaila eta erabilera berrietara, audientzia jada ez dago eta etxeko sofán jarrita guri begira".

Bideo, software, aplikazio eta izen modernoan artean Kantar Mediakok (lehen Sofres zena) egon ziren, ikus-entzunezko kontsumoa nola neurtzen duten azaltzeko. Jaso nuen informazioak ez zuen ezer berririk: "Audimetro gutxi batzuek *zapping* egiten dagoen audientziaren informazioa batzen dute, berririk ez". Audientzia ikerkuntza ez da aldatu 80ko hamarkadatik, eta, gezurra badirudi ere, egun ere telebista saioen arrakasta eta porrota (milaka euroz ari gara) audientzia emaitza horiei lotuta dago. Kantarren mezua ere argia zen: "Ez dago gure emaitzak zalantzan jarriko dituen kompetentziarik".

Horra hor bi errealitate kontrajarri, bata bestearren menpe bizi direnak.

ASTEA GOIENAN

GOENA TELEBISTA

ASTELEHENA 20



'Harmailatik' Xabi Urtelairekin
20:45

Oñatiko ziklo-krosa, santamasetako krosa eta UDA-Aloña Mendi derbia izango ditu berbagai Urtelairekin *Harmailatik* saioan.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Berbetan
14:45 Berriak
15:15 Tertulia
16:15 Ikusmira
16:45 Berriak
17:10 Marrazki bizidunak
17:45 28. klip
18:15 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Harmailatik
21:30 Goiena Magazinea
22:30 Harmailatik
23:15 Gipuzkoa kultura
23:45 Goiena Magazinea

MARTITZENA 21



Agurne Barrusori elkarrizketa
19:45

Goiena magazinea-n Agurne Barrusori Bergarako alkatea elkarrizketatuko dute Eneko Azkaratek eta Arritxu Barrusok.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Oinein
14:45 Berriak
15:15 Harmailatik
16:00 Kulturzulo
16:30 Haurrekin jolasean
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Iragana gogoratu
18:15 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Danbaka
21:15 Goiena Magazinea
22:15 Iragana gogoratu
23:15 Goiena Magazinea

EGUAZTENA 22



'Tertulia' saioan jostailuak
20:45

Larraitz Zeberio kazetariak gidatuta, Iñaki Casares, Itsaso Pagoaga eta Ane Labiano izango dira tertuliatikideak.

13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:00 Harmailatik
14:45 Berriak
15:10 Iragana gogoratu
15:45 Oinein
16:15 28. Klip
16:45 Berriak
17:10 Marrazki bizidunak
17:35 Harmailatik
18:20 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Tertulia
21:45 Goiena Magazinea
22:45 Tertulia
23:45 Nire herria

EGUENA 23



Arrikruz erakutsiko dute
22:15

Gipuzkoa kultura saioan Arrikruzeko kobak erakutsiko dituzte. Bertatik bertara lur azpiko sekretuak ikusteko aukera.

13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:15 Oinein
14:45 Berriak
15:15 28. Klip
15:45 Haurrekin jolasean
16:15 Ur eta lur
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Ipupomamua
18:15 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Danbaka
21:15 Goiena Magazinea
22:15 Gipuzkoa kultura
22:45 Nafarroako Euskal Kantu txapelketa
23:15 Goiena Magazinea

EGUBAKOITZA 24



'Olentzero & Co.' musikala
20:55

Aste bukaeran Arrasateko Amaia Udaltzokian grabatutako *Olentzero & Co.* musikala eskainiko dute.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Oinein
14:45 Antzerki Topaketak
15:15 Ur eta lur
15:45 Kulturzulo
16:15 Klik
16:45 Berbetan
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Gipuzkoa Kultura
18:15 Ipupomamua
18:45 Danbaka
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Danbaka
21:55 Kantari
20:25 Oinein
20:55 Olentzero & Co. musikala
22:40 Ainhoa Garmendia sopranoa
23:35 Gipuzkoa Kultura

ARRASATE IRRATIA

Bertso jaialdirako sarrerak dituzte Arrasate Irratian

Eguaztenez, Santamas egunean, egingo duten bertso txapelketarako sarrerak zozketatuko dituzte irratian. Eguaztenez bertan zozketatuko dituzte. Emanaldia Uarkape pilotalekuan izango da eta bertsolari gazteak eta beterranoak igoko dira taula gainera.

Gospel kontzerturako sarrerak eskura daitezke irratian

Abenduaren 23an izango da kontzertua, Amaia antzokian, 20:00etan. AEBetako Joshua Nelsonek eskainiko du kontzertua; gospeleko izar diren guztiekin jardun du Nelsonek. Kontzertura joan gura duenak aukera bikaina dauka: sarrerak zozketatuko dituzte irratian.

Santamas giroa jasoko dute irratian eguaztenez

Irratsaio berezia egingo dute eguaztenez Arrasate Irratian. Santamas giroa jasoko dute, eta, horretarako, ordu aldaketa izango du *Igo autobusera* saioak: 10:30etik 12:30era izango da irratsaioa. Protagonistek elkarrizketak egingo dizkiete eta herritarren iritzia jasoko dituzte, zuzenean.

TELE-ALBISTEAK

'Goiena magazineak' Gabon kutsua izango du asteen, dekorazio bereziarekin

Eguaztenez, Santamas jaiari tarte berezia eskainiko diote telebistan

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Gabonen atarian gauden honetan, *Goiena magazinea*-k ere Gabon ukitua izango du asteen. Izan ere, dekorazio berezia jarriko dute platoon; Gabon jaietarako bereziki prestatutako dekorazioa izango da.

Dekorazioa jartzeaz arduratuko dira Arizmendiko batxilergo artistikoko ikasleak. Bi dekoratu ezberdin egin dituzte, Gabonei ukitu berezia emateko.

Bailarako musikariak

Gainera, gaurtik eguenera, modu berezian amaituko dute *Magazinea*: bailarako musika eskolen emanaldiak izango dituzte platoon, zuzenean.

Gaur, astelehena, Arrasate Musikaleko biolin-jotzaileen bisita izango dute; bihar, Are-



Santamasak Arrasaten. | GOIENA

txabaletako Musika Eskolako bisita; eguaztenez, Bergarako Musika Eskolako bisita; eta eguenera, Oñatiko Ganbara Txikikoen bisita.

Santamas eguna

Eguaztenez, santamasak modu berezian jarraituko dituzte Goian; izan ere, tarte berezia hartuko dute *Magazinea*-n.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

GABONETAKO ORDUTEGIA



Abenduak 25 eta urtarrilak 1 eta 6: Museoa itxita
Abenduak 24 eta 31: Museoa 14tan itxen da
Beste egunetan (astelehenak barne): 11:00etatik 19:00etara

Ohiko ikusizun, simulagailu eta planarioko saioez gain, jardura berriak ere prestatu ditugu zuretzat: "KIMIBINGOA" eta "3,2,1 ...EKIN", adibidez.



Informazio gehiago:
www.miramon.org
943 01 24 78

kutxa | www.kutxasocial.net

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Nora Justine Sanchez
Abenduaren 31n, 7 urte.
Zorionak eta patxo
potoloa familiaren
partetik.



BERGARA
Marisa Escobar
Abenduaren 31n,
Urtebetetzea. Zorionak
eta urte askotarako,
ama! Ondo pasatu zure
urtebetetze egunian eta
espero dou tarta beti
bezain goxua egitea!
Muxu eta besarkada
handi bat etxekuen
partetik, bereziki Uxue.



OÑATI
Aratz Etxeberria
Abenduaren 30ean, 6
urte. Zorionak, Aratz!
Ondo-ondo pasatu zure
urtebetetze eguna eta
muxu handi-handi bat
familixa eta lagun danon
partetik.



ARRASATE
Oihan Zulueta
Abenduaren 29an, 6
urte. Zorionak,
txapeldun! Oso ondo
pasatu zure urtebetetze
egunian. Etxeko guztien
partetik muxu potolo
bat. Muxu.



ARRASATE
**Arantza Garcia
Bolinaga**
Abenduaren 29an,
urtebetetzea. Zorionak
eta egun polit bat pasa
ezazula opa dizugu zure
Atxabaltako lagunek. Ea
aurten ere txokolate
goxuakin ospatzen
dugun denok batera.



ARRASATE
M. Tere Urkia Uriarte
Abenduaren 28an,
urtebetetzea. Zorionak
eta egun polit bat pasa
ezazula opa dizugu
familia guztiak, bereziki
zure bilobek, Joni, Irati
eta Haritz. Muxu eta
besarkada handi bat.



BERGARA
Elene eta Alex Larrañaga
Elenek 4 urte betetzen ditu abenduaren 28an eta
Alexek abenduaren 21ean betetzen ditu urteak.
Zorionak, bikote! Patxo potolo bat Oihana eta Igorren
partetik.



OÑATI
**Eneko Aranburu
Onaindia**
Abenduaren 27an, 5
urte. Arreba Irene eta
gurasoen partetik,
zorionak eta muxu
handia, guapo!



OÑATI
**Lide Kortabarria
Suarez**
Abenduaren 26an, 9
urte. Zorionak, potxola.
Muxu pila bat eta
primeran pasatu zure
urtebetetze eguna.



BERGARA
**Bingen
Larrañaga Lete**
Abenduaren 26an, 6
urte. Zorionak etxekoen
partetik.



OÑATI
Aimar Altube Cid
Abenduaren 25ean, 6
urte. Zorionak,
txapeldun! Urte bat
gehixau! Eraman tarta
goxo handi bat
amamaren etxera, gero
zurekin den-dena jateko.
Muxu pila bat familixa
denan eta bereziki ama,
aita eta Marentxoren
partetik. Mua!



ARRASATE
Alai Arregi
Abenduaren 25ean, 13
urte. Zorionak eta patxo
handia etxekoen
partetik!



BERGARA
Aner Arriola Gallastegi
Abenduaren 23an, 5
urte. Zorionak eta patxo
handi bat etxekoen
partetik.



ESKORITATZA
Mikel Cabeza Jorge
Abenduaren 22an, 6
urte. Familiaren partetik
ondo pasatu zure
egunian eta patxo handi
bat.



ORDIZIA
Iban Toledo
Abenduaren 22an,
urtebetetzea. Albokak
irabazi du maestro
handia. Santamasetan,
arren! zure doinuak
kalean entzun nahi
ditugu. Zorionak, gure
Toledito lagun.



BERGARA
Nora Alcaide Morillas
Abenduaren 22an, 3
urte. Zorionak,
kanpanilla! Muxu
handi-handi bat zure
lagunek partetik! Ion,
Naia, Hugo, Amaia,
Andoni, Ander, Mikel,
Iago, Aitor, Maite, Iker,
Ekiñe eta Martin! Oso
ondo pasatu zure
egunian!



ARETXABALETA
Xabi Garcia Aranzadi
Abenduaren 21ean, 7
urte. Zorionak eta musu
handi bat gure etxeko
txapeldunarentzat. Ondo
pasa merendolan eta
nintendoan gutxiago
jollastu!



ARETXABALETA
Arkaitz Ibañe Sillero
Abenduaren 21ean, 4
urte. Zorionak,
txapeldun! Oso ondo
pasatu zure urtebetetze
egunian. Etxeko guztien
partetik besarkada
handi-handi bat eta
Ainhizeren partetik muxu
potolo bat. Muaka.



OÑATI
**Axier Lopez
Kortabarria**
Abenduaren 21ean, 37
urte. Zorionak eta urte
askotarako, guapo.
Maite zaitugunon eta
batez be bi txoritxuen
partetik, mila kilo zorion
eta mila muxu.



ARRASATE
Markel Lana Ibañe
Abenduaren 21ean, 5 urte. Zorionak, pirata, etxeko
guztien partetik, eta batez ere Ander eta Nora. Muxu
handi bat, txapeldun! Ondo pasatu.



BERGARA
**Danel Arrieta
Gorosabel**
Abenduaren 20an, 4
urte. Zorionak, artista!
Eta eskerrik asko ematen
duzun poztasunagatik.
Etxekoen partetik,
bereziki Jone.



BERGARA
Lide Albeniz
Abenduaren 20an, 10
urte. Majikoa da zure
eguna, gozatzeko une
oso ona. Opariak, datoz
eta, sorpresa ugariak.
Zorionak, Lide! Patxo
handi bat aitatxo,
amatxo eta Igorren
partetik.



BERGARA
Igor Albeniz
Abenduaren 20an, 7
urte. Zorionak, Igor!
Presta zaitzen merendola
gidaria izateko. Patxo
handi bat aitatxo,
amatxo eta Lideren
partetik.



BERGARA
**Maddi Barrokak
Santos**
Abenduaren 20an, 5
urte. Zorionak, potxola,
eta muxu pilo bat
etxekoen partetik. Ondo
pasatu zure
urtebetetzea!




ARETXABALETA
**Jose Ramon Saez de
Gordoa**
Abenduaren 20an,
urtebetetzea. Zorionak,
aita! Gero eta
zaharragoa zarela...
Ondo-ondo pasatu. Eta
aupa, UDA! Ioritz eta
Markel.



ARETXABALETA
Irati Garai Leturiaga
Abenduaren 18an,
urtebetetzea. Zorionak,
printzesa! Oso ondo
pasa ezazula eguna opa
dizugu familia guztiak,
bereziki Haritz, Eider,
Oier eta Jondik.
Besarkada eta muxu
handi bat denon partetik.



ARRASATE
Irati Gutierrez
Abenduaren 18an, 12
urte. Etxekoen partetik,
zorionak eta muxu handi
bat.



ESKORITATZA
**AMETZ BELATEGI
ARRESE**
Abenduaren 18an,
urtebete. Zorionak,
bartolo! Patxo potolo bat
etxeko danon partetik
eta txokomarrubizkoa
Oihaneren partetik. Ondo
pasatu zure eguna.



BERGARA
Patri Etxabe Orobengoa eta Beñat Arin Etxabe
Beñatek abenduaren 16an, 5 urte eta aitaitak
abenduaren 22an, urte batzuk gehiago. Zorionak,
bikote! A ze para, ez zarete berehalakoan galduko!
Zorionak eta muxu pilo bat etxekoan partetik. Jarraitu
horrela!



ARETXABALETA
Iargi Villar Urrutia
Abenduaren 15ean, 3
urte. Zorionak
marimatraka! Orain
arte bezain alai
jarraitu.
Bihotz-bihotzez,
Auritz, aitatxo eta
amatxo.



ARRASATE
**Paulo Ferreira
Jausoro**
Abenduaren 16an, 12
urte. Zorionak eta
patxo handi bat.
Entrenamendu ostien
ospatuko ditugu
hamabi horiek. Aupa
Mondra eta aupa
Paulo!




DEBAGOIENA
**Unax Kortabarria
eta Izaro Markaide**
Abenduaren 14an eta
26an, 5 eta 7 urte.
Zorionak eta muxu
potolo bat, familiaren
partetik.



ARETXABALETA
Aitor Zabala
Abenduaren 13an,
urtebetetzea.
Zorionak, aitatxo!
Ondo pasatu zure
urtebetetze egunian.
Muxu asko Oinatz,
Iraide eta amatxoren
partetik.



OÑATI
Belen Guridi
Abenduaren 13an,
urtebetetzea. Zorionak
eta urte askotarako!
Egun on-ona pasatu
eta patxo handi bat
etxeko danon partetik!
Hurrengo pintxua zure
kontu, e?



OÑATI
**Jone Erostarbe
Aranburu**
Abenduaren 13an,
urtebetetzea.
Zorionak, Jone! Egun
ezinhobia igaro
daizula. Patxo handi
bat zure lagun danen
partetik.

JAIOTAKOAK

BABESLEA



IKUSI
MAKUSI

Umeen
paradisua



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32



Nerea Revilla Vz.de Mendizabal

Arrasate. 3,200Kilo. Abenduaren 12a.
Gurasoak: Marta eta Arturo. Argazkian,
amarekin.



Anne Cordero Castilla

Arrasate. 4,580Kilo. Abenduaren 11.
Gurasoak: Elena eta Felipe. Argazkian,
amarekin.



Zaida Leon Aguilar

Arrasate. 3,700Kilo. Abenduaren 13a.
Gurasoak: Johanna eta Alfredo. Argaz-
kian, gurasoekin.



Jose Emmanuel Arias Nieto

Arrasate. 4,425Kilo. Abenduaren 10a.
Gurasoak: Erika eta Erwin. Argazkian,
amarekin.



Naia Telleriarte Sancho

Bergara. 3,180Kilo. Abenduaren 14a.
Gurasoak: Marijo eta Aitor. Argazkian,
amarekin.



Lier Bardezi Kerejeta

Bergara. 3,740Kilo. Abenduaren 14a.
Gurasoak: Nerea eta Asier. Argazkian,
aitarekin.



Uxue Igartua Muxika

Bergara. 3,680Kilo. Abenduaren 16a.
Gurasoak: Ainara eta Iñigo. Argazkian,
amarekin.



Mikel Ibabe Sanchez

Aretxabaleta. 3,700Kilo. Abenduaren
16a. Gurasoak: Rosi eta Jon. Argazkian,
ama eta anaia Galderrekin.



Aner Izagirre Ibabe

Antzuola 3,830Kilo. Abenduaren 16a.
Gurasoak: Ainhoa eta Iñaki. Argazkian,
gurasoekin.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Landre xehea	Emakume izena	Haurdun dago
	Hegzto harrapari	Behargina	Egoskari mota
	* Ataungo urtegia		
Nafarroako herria	Danimar-kako (errep.,) barrea		Röntgen
Eskuko orga			Hori argi
			Musika nota
Handi			Daukat
Nafarroako herria			Kasik, abantzu
Boroa	Bokala	Zerutiko ur	
Katu basa	Sufrea	Potasioa	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

	B	M	I	
	B	E	L	A
	L	A	R	E
E	D	A	N	I
E	S	K	O	R
L	A	R	R	I
G	A	R	R	A
B	E	E	U	R
B	A	S	A	K

BILA-BILA 7



AI, ENE!

Autoak bakarrik ez dira tuneatzen

Ez horixe. Abilidadea izanez gero, etxeko ordenagailua ere tunea daiteke, eta erabilgarria izaten jarraitu, bide batez.
www.sarda.es



AHOBERO

"2010a urte ona izan da eta 1etik 10era bitartean, 11 jartzen diot neure buruari".

JOSE MOURINHO | ENTRENATZAILEA

"Nire ibilbideko urterik onena izan da 2010a. Inter-ekin denak irabazi ditut, Real Madrilek fitxatu nau eta txapelketa denak irabazteko aukerak ditugu", dio portugaldarrak. Florentinok gauza bera pentsatuko du?

www.elmundo.es

EGURALDIA



Max. 11°

Min. 2°

Temperaturak gora eta hego haize zakarra.

www.euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2010-12-20

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Eva Argiñano Nebaren jatetxean gozogileak lana utzi eta kasualitatez sartu zen postre artera. Telebistara ere hala iritsi zen eta ezin pozago dabil kamera artean. | JON BEREZIBAR

"Arroz-esnea eta natillak eskatzen dizkidate gehien"

1. Hasi zarete jo eta su turroiekin etxean?

Gustatzen zaigu, baina ez gara zale-zaleak; dagokion neurrian. Hori bai, turroiak defendatzaile sutsuak ditu, beraz...

2. Zein izan da egin duzun pastelik erraldoiena?

Hasiberritan sekulakoa egin nuen. Ezkongaiak *saint honore* pastel erraldoi bat gura zuten; karameluz lotutako *petit chou-z* dago osatua. Handia nahi zuten eta hala egin nik, baina sasoi hartan ez nekien ezer arkitekturaz eta pentsa nola amaitu zuen...

3. Zure azkeneko liburuan diozu postreekin ausartzeko. Jendeak zer, jan bai baina egin ez?

Bai, eta, gainera, egiten dakienak tarta bat edo bi besterik ez daki egiten. Zail ospea dute gozoen errezetek.

4. Izan ere, zenbait errezetak alkimia dirudite osagaien neurri zehatzengatik, adibidez.

Hori gertatzen da sukaldaritzaz gaziko hiztegiari ohituagoak gaudelako. Pomada puntua zer da, ba horixe, pomada itxura duena. Ez da hain zaila.

5. Zein da zeuri ondoen ateratzen zaizun postrea.

Begira, nire semeek gehien arroz-esnea eta natillak eskatzen dizkidate. Guk etxean tipikoa eta klasikoa jaten dugu. Nire ezauzgarria da nire *goxoa* ez dela hain gozua, astuna.



LEXURI DOYAGE

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Zintzotasun eredia emango nuke"

"Nigandik oso urrun ikusten dut, baina, nire lana lehendakari izatea izango balitz, saiatuko nintzateke herritarren erreferente etikoa izaten. Nik agintariei eskatzen diedana da nire gainetik egon behar badute eta eragingo didaten erabakiak hartu behar badituzte, eredugarri izan daitezela etikoki eta zintzotasunean".

6. Kalorienatik, noski. la bekatua izaten da postrea eskatzea askorentzako.

Bai, zera! Amaitu ziren aspaldi bekatuaren garaiak! Postrea plazer hutsa da eta niretzat handiena da lagunekin txikito batzuk hartu eta gauean etxera heldutakoan arroz-esnea jatea.

7. Gozoetan berrikuntzarik egin daiteke ala pastelak ukiezinak dira?

Gaur egun gozogintzan egin daitekeen gauzarik berritzaileena da zapora tradizionalei eustea, galtzen dabilta-eta.

8. Postre kaxkar batek izorra dezake oturuntza eder bat?

Bazkari handi baten guztiak egon behar du orekan, baita zerbitzariak eta mahai-zapieak ere. Sarri gerta daitekeena da erdipurdiko jatordu bat postreak salbatzea.

9. 20 urte egingo dituzu telebistan datorren urtean. Hori bai marka.

Neukanik ere ez nekien gaitasuna azaleratzen lagundu dit, komunikatzailearena, eta oso baliagarria da. Esker hitzak besterik ez daukat esperientzia horri buruz.

10. Zer egingo dugu sobera geratuko zaigun turroiarekin?

Oso errezeta polit bat. Etxeetan turroiaz gain sagar konpota ere asko sobratzen da. Horrekin hostopilak bete eta labera! Gero izozki epelarekin zerbitzatu.

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



Maialen, Marina eta Maitane

Wikileaks da, gaur egun, mundu erdiaren amesgaiztoa eta krisia, hiru laurdenaren gaiztoa; niri Literaturako ikasleen izenak bihurtu zaizkit zoramen.

Hara, sasoi batean –gaur ere, dena dela, ez da arraroa– hamaika komeria eginak gara irakasleok izenak aurpegiekin lotzen, gela berean Garcia edo Perez deitzen kerizpetan, dozena-erdi Ainhoa, Oihana, Ainara eta Naiara biltzen zitzaizkigunean. Aldi horretan ikusi nuen nik bekokiaren gozagarri nuen flekilloa ere nola joan zitzaidan emigrante.

Bestelako garaiak ziren, ostera, apellido-markarik gabe ere ibiltzeko modukoak, etxe berean, Benita, Leona, Zelestina, Bizenta eta moduko izen ozenak batzen zirenak. *O tempora, o mores!*

Literaturako hamalaukotean Jesus, Mahats, Irene, Celia, Lorena, Irati, eta Ene-ritz; bi Maialen, Maitane bi eta hiru Marina, bai, hiru Marina daude zerrendaturik. Zeinek bere deitura du eta enkargu bat: "Niri, mesedez, izenez deitu". Erdiak martxoso hutsak dira; beste erdiak, berritsuak; urteak dituzte hamazazpina eta adarra jotzeko grina sasoiadina. *Ora pro nobis*, Santa Marina.



Finantzaketa kuota pertsonalizatuak



SIMS

SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO